

Goienkaria

2006ko abenduaren 15a > Egubakoitza > VII. urtea > 269. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

G2a

'Actto para la
Noche Buena'
antzezlanra > 43

OÑATI
Kalitatearen 'Q' agiria emango
diote turismo bulegoari > 05

BERGARA
Orfeoi Txikiak debut emanaldia
egingo du bihar, zapatau > 26

"Ez gara
lehengo
eszenatokira
bueltatuko
inflexioaren
osteau"

Joseba
Egibar
EAJ > 09

ELGETA
Urtarrilera atzeratu da Udalaren
eta erretiratuen batzarra > 37

GOIENKARIA > BERRITUA

Astelehen honetan, hobea

'Asteleheneneko
Goienkaria' berritua,
hobetua, kaleratuko
da hilaren 18an > 05



AG berrituaren azala. GOIENKARIA

MCC > ALDAKETAK

Presidente berria MCCrako

Aldaketa garaia da MCCn, eta korporazioak gaur, egubakoitza, aukeratuko du batzarrean Jesus Cataniari presidente aulkian txanda zeinek hartuko dion.

Horretarako gehien entzun den izena Jose Mari Aldekoarena da, baina baita Oronoko eta Ulmako agintari banarena ere. > 04

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrikzeta > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

ELKARTASUNA > DEBAGOIENDARREN ESPEDIZIOA SAHARARA

Saharako egoera bertatik bertara ikusi dute ibarrekoek

ESPEDIZIOA Debagoienetik 140 lagun egon dira Aaiunen; besteak beste, ikastoletako kideak, Nubikoak eta GOITBkoak

MEZUA Sahararren beharrak eta euren aldarrikapen politikoak gurean zabaltzeko asmoz bueltatu dira

KARABANA Sahararekin elkartasun karabana martxan dago, eta supermerkatuetan produktuak utz daitezke > 02-03



PROTESTA Bergarako denda bateko erakuslehoak estalita, dendarien leloa erakusten.

XABIER URTZELAI

Erakuslehoak estali egin zitzuten dendarieki, saltokiagatik protestan

Zabaletan merkataritzagune handia egitearen aurka daude Debagoieneko dendarien elkarreka. Joan den astean, euren iritzia jakinarazi zuten prentsurrekoan, eta atzo, eguna, beste protesta ekintza bat egin zuten. Hala, erakuslehoak telaz edo

paper ilunez estalitzen Bergaran, Arrasaten...

Erakusleihoko edukiak ez, baina euren leloa argi erakutsi nahi izan zuten: *Zentro komertziala hemen*, saltokia herritik urrutit egitea gaitzesteko.

UNITED COLORS OF BENETTON.
Maalako Errabala 13
ARRASATE
943 79 92 76

DEPORTIBOTASUNAK ETA DOTOREZIAK
BAT EGITEN DUTENEAN...
SEAT LEON BERRIA

Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

SEAT



FESTA Ongietorri festa egin zieten sahararrek ibarrekoei.

TXOMIN MADINA



DANTZAK Euskal dantzak erakutsi zitzuten ikastolakoek.

T. MADINA



OHITURAK Saharako jantziekin agertzen dira ikasle batzuk.

T. MADINA

ELKARTASUNA > 140 DEBAGOIENDAR SAHARAN EGON DIRA

"Eman baino gehiago, jaso egin dugu Saharan"

'IKASTOLATIK SAHARARA'

Ikastolen proiektu baten barruan, ibarreko bi ikastolatako ikasle eta arduradunak, Nubi elkarteko ordezkariak eta GOITBko kazetariak Aaiunen egon dira astebete

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA
Etxean daude, zapatuz geroztik, Saharan astebete pasa duten 140 debagoiendarrak, tartean Arizmendi eta Txantxiku ikastolatako ikasle eta irakasleak, Nubi elkarteko ordezkariak eta GOITBko kazetari bat eta kamerlari bat, Txomin Madina eta Maialen Legorburu. Orain, han bizi izandakoak eta ikasitakoak kontatzeko unea da. Horretan jardun dute lau ordezkariak aste honetan Arrasate Irratian.

Gauza baten ados daude denak: esperientzia bikaina izan

MEZUA ZABALDU

Euren esperientzia jakinarazteko eta sahararren askatasun gogoa eta egoera larria zabaltzea da orain euren asmoa; GOITBn ere agertuko dira han ikusi eta ikasitakoak

dela. Txomin Madinak hau dio: "Hasieratik, ongietori tea haratu genuenetik, jakin nuen leku onean geundela. Etxean bezala sentiarazi gaituzte".

Aaiungo kanpalekuan, sahararren kanpaleku handienetako baten, egon dira debagoiendarrak, *Ikastolatik Saharara* proiektuaren barruan. Helburuak hainbat ziren: sahararrei gurean batutako laguntza eramatea, sahararrekin harremana estutzea eta euren egoeraren berri bertatik bertara jasotzea. Izan ere, Nubiko Agurune Juldainek dioen bezala, asko-

tan entzun arren, "norberak iku si behar du zelan bizi diren" egoeraz benetan konturatzeko.

Bada, helburu guztiak beteta, pozik eta, era berean, penaz bueltatu dira. "Eman baino gehiago, jaso egin dugu: hangoen patxada, ideiak zein garbi dituzten, gauzak zelan estimatzen dituzten, familiako goxotasuna...", dio Txantxiku ikastolako arduradun Ane Mendizabalek.

MARGOTU ERE EGIN DUTE
Kamioitan joan ziren hegazkinetik kanpalekura. Hango egoera-



Chevrolet Captiva

Europarako esklusiboki 5 edo 7 eserleku dituzten bertsioak. 150 ZPk diesel eta 136 eta 230 ZPk gasolinazko motorrak.

Captiva gama **23.330€-tik** hasita.

**150 ZPk 4x4 diesel gama
29.730€-tik** hasita.



3 urteko bermea edo 100.000 Km.

Chevrolet gehiago da

Giauto 902 345 225

Otaola etorbidea, 27. EIBAR. Tel.: 943 70 08 41
Karabi Industrialdea z/g. OLABERRIA. Tel.: 943 88 51 50
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es

Prezio gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan Captiva 2.4 LS eta Captiva 2.0 VCDi 5 eserlekuko ibilgailuentzat.(BEZA, matrikulazio zerga, garraioa eta gasolinazko Prever Plana barne). Hiru amaiera arte baliagarria. Kontsumo mistoa (l/100 km); 7,4-11,5. CO₂ emisioak (g/km): 197-264. Hiru urteko bermea edo 100.000 km bermeen legea aplikatzeko kalterik gabe: 23/2003.



ekar
elkar ezagutzen dugulako

kulturaren plazerra

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

rekin, bateren bat izutu egin zen, baina laster eman zioten buelta horri eta jarrera ezin hobea izan zuten ikasle guztiek; horixe txalotu dute arduradunek.

Ongietorria eta lehenengo gaua igaro eta gero, lanerako ordua iritsi zen. Alde batetik, gurean batutako produktuak banatu zitzuten: hezkuntza eta osasun materiala, Fagorrek lapi-koak, arropa, jostailuak, eta abar, 200 kaxatan. Bestetik, hango Olaf Palme eskola –sahararen alde lan handia egin zuen Suediako lehen ministroaren omenez deituta– margotu egin zuten. Gehiago egin nahian, ikasleek mural batzuk egin zitzuten, hainbat lelo marraztuta.

Hango egoera, ohiturak... ere ikusi dituzte: hala, hainbat etxetan banatu zitzuten, eta tea edateko ohitura, emakumeek erosketak zelan egiten dituzten, hango jatekoak eta otorduen ordutegiak, bizitza soziala... bizi izan dituzte. Hala, Madinak dioenez, "bazkaldu aurretik eta bazkalosteak tea edaten dute. Etxean bisita asko jasotzen zitzuten gure familiakoek. Afaldu, oso berandu afaltzen genuen gure etxeak, gauerdian-edo".

Saharako musikak eta dantzak ere gozatu zitzuten jaialdian eta, horien truke, euskal doinuak, dantzak eta bertsoak era-kutsi zizkieten.

"ITXAROPENARI EUSTEN DIOTE"

Jakina, sahararen eskaera politikoak ere eurenganatu dituzte debagoiendarrek, euren lurraldra bueltatzeko aspaldiko eskaera eta borroka, alegia. Juldainen esanetan, "ondo, animatuta daude, beti itxaropenari eusten, argi dutelako askatasuna lortuko dutela".

Mendizabalek hauxe gainera-tzen du: "Gurean zabaldu behar

ESANAK

"Sahararrek laguntza jasotzen dute, baina hori ez da irtenbidea: euren lurralderra bueltatu behar dute, berandu baino lehen"

Ane Mendizabal > Txantxiku ikastola

"Ondo ikusi ditut, animatuta, beti itxaropenari eusten, badakitelako egunen baten askatasuna lortuko dutela"

Agurne Jıldain > Nubi elkartea

"Ongietorri tea eman ziguten unetik jakin nuen leku onean geundela, eta etxeak bezala sentiarazi gaituzte"

Txomin Madina > Kazetaria

dugu sahararrek euren lurrera bueltatzeko duten beharra. Laguntza jasotzen dute, baina hori ez da irtenbidea: bueltatu egin behar dute, eta berandu baino lehen izan behar du. Izan ere, badira 30 urteko sahararrak bizi osoa kanpalekuetan eman dute-nak. Gure proiektua ez da hemen bukatzen: kontzientziaok bere frutiak eman behar ditu". Mendizabalek salatzen du "zerbait egiteko aukera duten herrialdeek jaramonik ez" dutela egiten.

Espedizioko kideek penaz gogoratzen dituzte kasu batzuk: hala, goi mailako ikasketak egin dituzten gazteek han etorkizunik ez dutela esaten dutenean.

Euren asmoa den bezala, gurean sahararen egoeraren mezua eta hango bizi-penak zabaltzeko, nork bere modura egingo du lan. GOITBko kazetariekin hartutako irudiak, pertsonak eta lekukotasunak telebistan ikusteko aukera izango dute laster debagoiendarrek.

PRODUKTUAK BATZEN

Etorkizunean beste bidaiaaren bat egiteko asmorik duten galdetuta, hauxe erantzuten du Ane Mendizabalek: "Ahalegin handia eskatu digu bidaia honek, eta etorkizunean dauzkagun aukerak analizatu beharko ditugu. Hala ere, ikasle gazteagoak hasi zaizkigu galdezen ea eurek ere joateko aukera izango duten!"

Bestalde, bai Nubik, bai Debagoieneko gainerako Sahararekin elkartasun elkarteekin ere, urtero moduan, produktuak batuko dituzte. Izan ere, dagoeneko utz daitezke produktuak supermarketuetan. Hala, bistan dago Saharara joan beharrik ez dagoela saharrei laguntzako eta elkartasuna helarazteko, nahiz eta, behin hara joanda, bueltatzeko gogoarekin etorri.



MARGOTU Sahararen eskola bat margotu zuten ikasleek.

T. MADINA



BASAMORTUAN Gau bat basamortuan pasa zuten debagoiendarrek.

T. MADINA



HARREMANA Sahararekin harremana estutu zuten espediziokoek.

T. MADINA

Gabonetan oparia egiteko hamaika aukera!



ZURE OPTIKA
ITZIAR UGARTE

Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE 943 08 26 87 Eskola Politeknikoaren ondoan

ENPRESAK > MONDRAGON KOOPERATIBA KORPORAZIOA

MCCK gaur aukeratuko du presidente berria, Cataniaren ordezkoa

Jose Mari Aldekoa automobilgintza saileko presidenteordearen izena nabarmendu da

Baina Txomin Gartzia (Ulma) eta Javier Mutuberriaren (Orona) izenak ere entzun dira

ENEKO AZKARATE > ARRASATE
MCC taldeak buru berria aukeratuko du gaur, hain justu ere, Jesus Catania Kontseilu Orokorreko presidente karguan ordezkatuko duena. Izen ere, azken sei urteetan MCCko burua izan denak erretiroa hartuko du datoren urteam eta gaur aukeratuko dute haren ordezkoa.

Hiruretan artean aukeratuko du MCCko Batzarde Iraunkorrak, hirurak ere MCCko presidenteordeak eta Kontseilu Orokorreko kideak direnak: Jose Mari Aldekoa automobilgintza saileko presidenteordea (Fagor Ederlan, Batz, Ecenario, Luzuriaga, Maier...) eta Fagorren eta MCCko erabaki organoetan esperientzia handia duena; Txomin

Gartzia, Ulmako zuzendari nagusia; eta Javier Mutuberria, Oronako zuzendari nagusia.

Hiruretatik beteranoena eta korporazioan esperientzia handien duena da Jose Mari Aldekoa. Orain dela sei urte Jesus Catania aukeratu zutenean ere haren izena egon zen hautagaien artean. Hori horrela, hasiera batean, behin behin, MCCko buru berri izateko aukera handienak dituena da.

AIRE BERRITZAILEA

Hala ere, azken egunotan, Txomin Gartzia eta Javier Mutuberriaren izenak nabarmendu dira gero eta gehiago. Eta biek bat egingo balute eta Aldekoari aurre egiteko alternatiba edo hautagai

bakar moduan aurkeztuko balaria Batzarde Iraunkorraren aurrean, aukerak izango lituzkete. Bai Ulmako zuzendari nagusia eta baita Oronakoa ere, Aldeko baino gazteagoak dira, berriagoak MCCn, eta, bestalde, oso emaitza onak lortu dituzte euren taldeean; horixe da euren berme eta aurkezpen gutun nagusia.

INDARRAK PAREKATUTA

Hortaz, Cataniaren ordezkoia zein izango den aldez aurretek jakitea gaitza da, inoiz baino gaitzagoa. Kontua ez dago hain argi, hasieran uste zen bezala. Argi dagoena da hiru horien artetik aterako dela MCCko burua eta Batzarde Iraunkorreko kideek -Juan Mari Otaegi da burua eta 20 lagunek dute bota omateko aukera- bi aukera izango dituztela mahai gainean: batetik, Aldekoaren esperientzia eta, bestetik, Gartzia edo Mutuberriaren aire berritzalea.

MCCren bosgarren presidente izango da, Jose Maria Ormetxoa, Javier Mongelos, Antonio Cancelo eta Jesus Cataniaren ondoren.



Jose Maria Aldekoa.



Txomin Gartzia.



Javier Mutuberria.

2X1

ARRASATE BIDAIAK

Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa.: 943 79 74 45
E-posta.: d4051@marsans.es



Kanaria handia, Lanzarote, Tenerife, Punta Cana, Mexico

URTARRILA–OTSAILA–MARTXOA

Abenduaren 23ra arteko erreserbetarako baliagarria.

... eta itsas-bidaietan %22ko deskontua, urtarrilaren 5a baino lehenago, erreserba egiten baduzu.



Eztei-bidaia abenduan edo urtarrilean egiten baduzu liburuxka honetako eskaintzaren bat erreserbatuta, doan emango dizugu Istanbulen bi lagunendako astebeteko egonaldia.

2007ko Aste Santurako ere baditugu eskaintzak! Konsultatu!

ERREPIDEAK > BEASAIN-DURANGO ARDATZA

Bergara-Urretxu autobidea 2010ean

Foru Aldundiak proiektua idazteko lehiaketa atera du; 2,1 milioi euro eta 14 hilabeteko epea zehaztu ditu

ENEKO AZKARATE > BERGARA
Urretxu eta Bergara lotuko dituen autobide berria egiteko proiektuarenak lehiaketa atera du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Autobide berriaren eraikuntza-proiektua idazteko 2,1 milioi euro bideratu dituzte eta 14 hilabeteko epean prest egon beharko du.

Beasain-Durango ardatzaren azken zatia izango da Urretxu eta Bergara artekoak. 9,7 kilometro izango ditu eta noranzko bakoitzean bi bide. Errepide zati hori egiteko 120 milioi euroko aurrekontua dauka onartuta Diputazioak. Lanak 2008. urtean hasiko dituzte, eta, aurrez ikusi dutenez, 2010. urtean autobidea zabalik izango da; eta, hortaz, beste alternatiba bat egongo da Bergarako

Donostiarra bide azkarra erabiliz joateko, AP-1 eta AP-8 autobideez gain, ezer ordaindu barik. Egun, Beasainen Zumarragaino zatia dago eginda.

Lanak Zumarraga-Urretxuko saihestidearekin hasiko dituzte. Bestalde, hiru lotune izango ditu autobideak: Urretxu-Legazpikoa, Antzuolakoa eta Bergara-Antzuolakoa. Autobide zati berriaren beste ezauigarri batzuk dira: Deskargako tunela (620 m), Ipurrietako bidezubia (250 m), Antiguako bidezubia (250 m), Lapatzako bidezubia (75 m), Antzuolako bidezubia (220 m), Igeribarrerrotako bidezubia (70 m) eta San Migeleko bikoizte tunela (890 m).

EKIALDEKO SAIHESBIDEA
Bergarako ekialdeko saihestidea, San Migelen magalean, bikoiztu egingo dute; hau da, hura ere bi bidekoia izango da noranzko bakoitzean. Hortaz, Beasain-Durangok bat egingo du AP-1 autobidearekin Ipinarrisko lotunean. Bergarako ekialdeko saihestidea bide bakarrekoan egin zuten orain dela lau urte inguru. Orain, bikoa egingo dute, tunel berri eta guzti.

ERREPIDE-ARDATZ AZKARRA

Durangoraino noizko?

Gipuzkoako Foru Aldundiak garrantzi handia eman dio obra hori. Izen ere, bukatzen denean, errepidez zuzenean lotuta geratuko dira N-1 errepidea (Beasain) eta AP-1 errepidea (Bergara), eta hegoaldeko zati berri horren bidez aurrera eramango da Gipuzkoako Hiria biribilgunea, Aldundiaren ametsetako bat. Edozelan ere, merezi ditu zehaztasun batzuk obra horrek: batetik, Beasainen Bergarako doan izango da; baina Bergarako Epeleraino AP-1 autobideko bidesaria ordaindu beharko da; bestalde, Epeletik Kanpanzarreraino ez dago aurrez ikusita noranzko bakoitzean bi bidekoia izatea; eta, azkenik, Bizkaiko zatia egiteko dago oraindik. Hau da, Kanpanzarrak Durangoraino ez da autobiderik egin eta ez dago jakiterik noizko egingo duten errepide berria.

AHT > HERRI GALDEKETA ESKATUKO DU ARALARREK

Aralarrek Udalak implikatu gura ditu AHTren ondorioei aurre egiteko

Bi mozio aurkeztuko ditu datozen egunetan udaletan; herri galdeketa egitea eskatuko du batek

AHT proiektuari buruz informaziorik ez dagoela salatu du eta tren sozialaren alde egitea eskatu du

OIHANA ELORTZA > BERGARA Aralarrek udalak implikatu gura ditu AHT proiektuak ekar ditzakeen ondorioei aurre egiteko, "deskalabrua" Aralarren hitzeman. Debagoienean, mozioak aurkeztuko ditu AHTk kaltetzen dituen udalerri guztieta, herri galdeketa egiteko.

HERRI GALDEKETA
Aralarrek uste du AHT, proiektu handia izanagatik, zilegitasun soziala behar duela, eta horregatik herri galdeketa egitea eskatuko du. "Jendeak eztaba idatzi egin behar du horrelako proiektu baten aurrean, iritzia eman behar du. Horregatik, herriz herri galdeketa babestu eta bultzatu behar ditugu eta Jaurlaritzak eskatzen diogu dagoeneko hainbat herritan egiten ari diren galdeketen emaitzak aintzat har-tea eta kontsulta orokorra deitzea", azaldu du Rebeca Uberak, Aralaroko Elgetako zinegotziak eta Batzar Nagusietako kideak.

Mozio horrez gain, beste bat ere aurkeztuko du Aralarrek datozen egunetan ibarreko uda-

letan. Bigarren mozio horrek bost puntu hauek jasotzen ditu: udalak tren sozialaren alde egitea, proiektuari buruzko informazioa herritarrei emanez; bere herrikidatzen pasako den AHTren ibilbidearen proiektuaren berri herritarrei ematea udalak, kalteku zuzenei pertsonalki abisatuta; obrak hastekotan badaude, udalak lan horien jarraipen zorrotza egitea, behar diren neurriak planteatzera hartuz; herritarrei informazioa eta aholkularitza ematea eta udalak bere aurrekontuetan jasotzea diru partida bat, AHTren ibilbidea dela eta kaltekuak izango diren auzokideei beharrezkoia izango duten aholkularitza juridikoen gastuak ordaintzeko.

INFORMAZIORIK EZ
Angiozarko Eduegi baserrian egin du prentsurrekoak Aralarrek, AHTren trazatuaren puntu baten. "Hasierako proiektuak jasotzen du abiadura handiko tren hori pasako dela justu baserriaren gainetik. Erdi Aroko da Eduegi eta monumentu historiko izendatuta dago", azaldu du Bergarako zinegotziak Iñigo Iñurrategik. Oraindik, ordea, inork ez ei daki baseria botako duten edo zenbat metrora pasako den Abiadura Handiko Trena, "ez Jaurlaritzak ez udalek ez dutelako informaziorik ematen", Iñurrategiren esanetan.

Izan ere, AHTren ibilbidean informaziorik ez dagoela ere salatu du Aralarrek prentsurrekoan. "Arrasatetik Irunerako zatia Jaurlaritzak egin behar du. Guk badakigu proiektuaren planoak eginda dituztela, baina inork ez ditu ikusi. Kaltetu zuzenek ere ez dute oraindik inolako abisurrik jaso. Nuria Lopez de Gereñuk

ere aitortu zigun duela sei bat hilabete informazio gutxi eman dutela orain arte, baina ez dute oraindik ezer esan", jarraitu du Iñigo Iñurrategik.

TREN SOZIALAREN ALDE

Bestalde, Aralarrek argi utzi gura izan du Abiadura Handiko Trenaren proiektuaren aurka dagoela eta helburua dela egitasmo hori gelditzea, "proiektu suntsi-

tzailea delako eta garraioaren arazoa ez duelako konponduko", Xabier Sarasua Aretxabaletako zinegotziak adierazi duenez. "Tren sozialaren aldeko apustua egin behar da", gaineratu du.

AHTko lanei buruz, Sarasuak esan du hasita daudela toki batzuetan eta "oraindik inork esan ez duen arren hemen noiz hasiko dituzten, agian bihar edo etzi ekingo diente, auskalo". Eta

horren aurrean "udalek gertu egon" behar dutela esan du Rebeca Uberak.

Aramaio, Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Arrasate eta Bergara zapalduko ditu AHTk, baina eragina ibarreko beste herri batzuetan ere izango duela uste du Aralarrek, eta horregatik Debagoieneko udal guztiak implikatu gura ditu proiektuak ekar ditzakeen ondorioetan.



JENDE EZAGUNA Debagoieneko Ezker Abertzaleko pertsona ezagunek eman zuten prentsurreko martitzenean. GOIENKARIA

Mobilizazio eguna deitu du Askatasunak hilaren 20rako

Askatasunak mobilizazio eguna deitu du datorren eguztenerako, abenduak 20. Dio gobernuak prozesurako beharrezko ikusten diren baldintza demokratikoak urratu egindituela eta prozesua geldi egotearen errua ezker abertzaleari botatzen diola. Horren adibideak ere aipatu ditu Askatasunak: espetxeetan dauden presoen eskubideek ez dutela prozesuaren eraginik ezagutu; interes politikoengatik bakarrik zabalik dauden 18/98 eta euskal gazteriaren aurkako epaiak eta De Juana Chaosen auzia. Askatasunak adierazi du borondatea dagoela prozesua dagoen egoeratik ateratzeko, Estatuak errepresio bidea baztertuz eta euskal herritarren eskubideak errespetatuz. Bada, hori eskatzen deitu du mobilizazio eguna.



KOLTXOIAK



OHEAK



SOMIERRAK



FUNDA NORDIKOAK



IZARAK



ESTALKIAK



ETA ABAR...



*Gabon
zoriontsuak opa
dizkizuegu!*

Arrizuri 7 / BERGARA Tel.: 943 77 18 35 Zarugalde 25 / ARRASATE

TURISMOA > SARIA OÑATIKO BULEGOARI

Turismo kalitatearen 'Q' agiria Oñatiko turismo bulegoari

"Turismoa garatzeko eta bisitariei zerbitzu onena emateko egindako lanaren ordaina da agiria"

Gabonetan, ohiko bisita gidatuez gain, San Migel errota martxan ikusteko aukera eskainiko dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI
Abenduaren 14an, egunean, euskal turismoaren XII. gala egin zuten Irungo Ficoba erakustazokan. Bertan, Oñatiko turismo bulegoak turismo kalitatearen Q agiria jaso zuen.

Ficobako turismo jaian izan ziren, Udala ordezkatz, Lourdes Idoiaga alkatea, Joxe Fernandez alkateordea, Ernesto Murgiondo Kultura zinegotzia eta Andoni Gartzia alkate oha. Turismo bulegoko teknikari Edurne Gorostidi eta Iñaki Igartua eta Garapen Agentziako Ikerne Altube ere hantxe izan ziren. Hain zuzen, alkateak jaso zuen agiria.

AGIRIA JASOTZEKO BALDINTZAK
Agiri hau da "turismoa garatzeko eta bisitariei ahalik eta zerbitzu onena emateko egindako lanaren esker ona", diote turismo bulegoko arduradunek.

Izan ere, eskatutako kalitate baldintzak betetzen dituela ziurtatzen du agiri horrekin ICTEK (Turismo Kalitatearen Espainiako Institutua). Agiria emateko neurten dituzten puntuak honakoak dira: hornikuntza eta mar-

ketina; bisitarien harrera; azpiegiturak eta mantenua; eta zuzendaritz, hain zuzen ere.

Zarauzko turismo bulegoaren atzetik Oñatikoa da agiri hori Gipuzkoan jaso duen bigarrena. EAEn, iaz, Zarauzkoarekin batera Getxokoak eta Gernikakoak ere jaso zuten. Aurten Aste Santurako Bakio sartu zen zerrendan eta orain, Bilbokoak eta Oñatikoa saritu dituzte.

Edurne Gorostidi turismo bulegoko teknikariak esan digunez, "agiri hau eskuratzeko gogor egin dugu lan; eta lanerako zein lana antolatzeko dinamika berria dauzkagu orain. Zerbitzu hobea eskaintza da gure helburua eta horretarako jarraitu beharreko pausoak idatziz jaso ditugu".

Izendapen hori jasotzea "pozgarria" da, Edurne Gorostidiren esanetan. "Ikusi dugu gai garela kalitatezko zerbitzua eskaintzea. Kontuan hartu behar da turismo bulegoek ez ezik jatetxeek, ostatuek, nekazaritza turismo-ko etxeek... agiri hori daukatela, eta pixkanaka gero eta gehiago direla turismo kalitateko Q-a jasotzen duten establezimen-

duak. Gainera, jendeak ere balio handia ematen dio kalitateari".

ZUBIAN BISITARI ASKO

Joan den asteko Zubian Oñatin izandako bisitari kopuruarekin ere pozik egoteko moduan daude turismo bulegoan. Abenduaren 6tik 10era bitartean 372 lagunek egin dute bulegotik buelta. Bisitari gehienak Gipuzkoatik, Kataluniatik, Balear Uharteetik eta Madril diktiorri dira Oñatira. Horietatik 267 lagunek unibertsitateko zein San Migel parrokiako bisita gidatuetan hartu dute parte. Iazko datuekin alde ratuz gero, igoera %61 izan da.

Bestalde, Gabonetako oporrik gainean ditugun honetan, herrian turistak espero dituztela esan digite turismo bulegokoek.

Ohiko bisita gidatuak egingo dituzte jaiegunetan izan ezik gainontzeko egun guztietan. Horretarako, aurrez jakinarazi beharko da turismo bulegoan (943 78 34 53).

Horietaz gain, izango da ekin-tza berezirik Gabonetan. Urtarilaren 2tik 5era bitartean, esaterako, San Migel errota martxan ipiniko dute. Bisita horietan parte hartzen duten lagunen ar team zozketa egingo dute, eta irabaz-leak Oñatiaren gaineko liburuak jasoko ditu, besteak beste.

Bestalde, Oñatiko Elkar Hezikastetxeak Kudeaketaren Kalitateari Euskadi mailan ematen zaion Zilarrezko Q saria lortu du. Abenduaren 19an Donostiako Kursaal Jauregian jasoko dute sari hori ikastetxeko ordezkariek.

TXAKOLINA

Aralarrek 'Txakolina' jatorri-izena eskatu du

I.A. > BERGARA

Txakolinari dagokionez Euskal Autonomia Erkidego osorako jatorri-izen bat sortzeari buruz proposamena egin zuen talde sozialistak. Horren harira Aralarrek eskatu du lehendik dauden jatorri-deiturak errespetatuz, *Gipuzkoako Txakolina* jatorri-deitura sortzea. Helburua da txakolinaren ekoizpena eta merkatuan sartzeko aukera Gipuzkoa osora hedatzea.

Era berean, gure txakolinak batez ere kanpoko merkatuan behar duen lekua izateko Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Geta-rikoizendapenak *Txakolina* izeneko jatorri-deituraren batzea.

ZERBITZUAK > ADINEKOEN EGOITZA BERRITU DUTE OÑATIN

San Martin egoitza berritze lanen ostean inauguru dute

I.A. > OÑATI

Berritu ostean, inaugurazioa egin zuten eguztenean Oñatiko San Martin Egoitzan. Ekitaldian izan ziren Jose Joan Gonzalez de Txabarri, diputatu nagusia; Esther Larrañaga, Gizarte Politikarako diputatura; Lourdes Idoiaga, alkatea; eta Sor Maite Izagirre, egoitzako zuzendaria.

UNITATE PSIKOGERIATRIKOA

Mendeko pertsonen behar konplexuei erantzuteko egokitutako 83 plaza eskaintzen ditu zen-troak. Horietako 15ek unitate psikogeriatriko berezia osatzen dute, dementzia edo portaerako arazoak dituzten adinekoendako baliabideekin.

Zentroaren egokitze lanetarako 1.462.127 euro erabili dituzte eta Foru Aldundiak 782.431 euro ordaindu ditu.



AGINTARIAK Lourdes Idoiaga alkatea Diputatu Nagusia-rekin.

DV



Elgeta bidea z/g.
130 posta-kutxa
20570 BERGARA
Tel.: 94376 91 37
Faxa: 943 76 91 38

e-posta:
ttt@grupottt.com
web orria:
www.grupottt.com

- TEKNOLOGIAK:**
- Bonifikatua
 - Zementazioa, karbonitruraziao, templaketa.
 - Goi-hutsezko tratamendua
 - Tenifer nitruraziao
 - Nitreg nitruraziao
 - Indukzio bidezko tratamenduak
 - Kromo gogorra, kromo matea.
 - Artezketa eta laapeketa
 - Plasma bidezko proiekzioa
 - HVOF bidezko proiekzioa
 - HFVD bidezko proiekzioa
 - Proiekzio oxiazetilenikoa eta elektrikoa
- PRODUKTUAK:**
- Zurtain motelgailua
 - Presiozko galda-ketarako higadura erreminta

markeline
haurrentzako moda

Herri Lagunak 6, behea • Bergara

GABONETAKO ESKAINTZAK

Tel.: 943 760 524

MULTIOPTICAS

orain arte: 39€

Gabonetako prezioa 14€

Gabonetako opariak

orain arte: 85€

Gabonetako prezioa 59€

orain arte: 130€

Gabonetako prezioa 96€

orain arte: 75€

Gabonetako prezioa 49€

R.P.S. N° 190/04 I.L.G. Ez metagarria beste eskaintza batuetara.

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75 • BERGARA

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95 • ARRASATE

TarTuFo

taberna
jatzetxea
brgr



ABENDUA

BERTSO AFARIA

Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagarekin

Abenduaren 15ean, ostiralean 21:00etan.

Menu: 25 euro
Pikatzeko
Iberikoak + txorizo sagardo erara + onddo pastela + arrain zopa
Bigarrena
Bakailaoa, legatza, entrekota edo bildotsa
Postrea + Ardo ondua

Erreserbak: 943 76 35 51

JOSTUNEN AFARIA

Dantza eta gizonezkoen stripteasea
Abenduaren 16an, zapatuan, 21:00etan

Erreserbak: 943 76 35 51

Gabon zoriontsuak igaro

San Juan auzoa 35, 20570 Bergara (Gipuzkoa) • Tel.: 943-76 35 51

gure artekoak

GOZOKIN > Oñatiko Udalak eta Caritasek sortutako Bidebarri enpresaren negozio berria da Gozokin. Berezitasuna da lan esparrun sartzeko zailtasun handienak dituztenei aukera bat emateko sortutakoa dela.

Jon Igartua

"Oraingoz, Ogibarrin saltzen ditugu gure produktuak"

AINTZANE IRIZAR > OÑATI

Gozokinek ateak zabaldu berri ditu, Bidebarri enpresaren eskuak, Oñatiko Zubillaga auzoan. Hiru lagun hasi dira lanean, baina arduradunen helburua da dozena bat langile izatera iristea. Jon Igartua da Bidebarriko gerentea eta proiektu horren sustatzaileetako bat.

Noiz eta ze helbururekin sortu zenuten Bidebarri?

1996an sortu zen, laneratzeko arazoak dituztenei aukera bat emateko helburuarekin; elbarritasunen bat dutenei edo egoera sozio-ekonomiko larrian daude nein lan esparrurako ateak zabaltzen dizkiegu.

Zeinek sortu zuen enpresa?

Oñatiko Udalak eta Caritasek. Ni neu ere izan nintzen sustatzaileetako bat.

Laugarren negozioa zabaldu berri duzue: Gozokin.

Bai; orain arte eduki ditugu Zubillaga tailerra, Ogibarri eta Vending zerbitzua. Tailerrean azpikontratatutako lanak egiten ditugu, eta, nolabait, horren mende egoten gara. Ikusi genuen beharrezko zela negozio berri bati ekitea, eta hainbat azterketa egin eta gero, egokiena gozointza zela erabaki genuen.



Jon Igartua gerentea, Nelson eta Sagrario langileekin.

A.I.

FITXA TEKNIKOA**> HIRU JADUERA**

Zubillaga tailerra (sarrailak eta antzerakoak muntatzen dituze), Ogibarri (okindegia) eta Vending zerbitzua (kafe eta freskagarri makinak).

> 26 LANGILE

Bidebarrik, guztira, 26 langile ditu; Gozokinek, oraingoz, hiru.

> WEB GUNEA

www.bidebarri.org helbidea dute, baita posta elektronikoa ere: bidebarri@terra.es.

Zelako gozoak egiten dituzue?

Oraingoz, pastekin hasi gara; dena dela, negozioa finkatu ahal, era guztiako gozo gauzak egingo prestatuta gaude.

Non eros ditzakegu zuen produktuak?

Oraingoz, Ogibarrin, Oñatin; banatzaleekin hartu-emanetan gaude eta gure nahia da probintzia mailan saltzea.

Langileak oñatiarrak dira?

Gehienak bai; lehentasuna oñatiarrak dute, baina Debagoien osoko langileak ditugu.

etxeko leihotik

Aitziber Aranburuzabala > Arrasate Irratiko arduraduna

Kontraesanen zurrubiloan galdua

Kolore gorria gustuko dut; eta lan-egutegikoa bereziki. Askok bezala, ezta? Asteon eman digute datorren urterako lan-egutegia. Eta horixe da eskuetan hartu ahala egin nuen lehen gauza: kolore gorriko egunak kontatu. Hasiera baten ez nion erreparatu zein zen jaieguna izateko arrazoiari. Bigarren begiratuan, bai: batetik, jai erlijiosoak eta bestetik, urriaren 12a eta baita abenduaren 6a ere. Poza eta amorrua sentitu nuen. Aurreko astean jai izan zutenek eman zidaten inbidia gogoan, orain poza. Euskal nortasuna ahaztuta utzi nuen une hartan. Horregatik, amorrua!

2007a bertan da. Zazpia zenbaki magikoa da. Horrelakoa izango ote da datorrena? Magia eta zerbait gehiago beharko du aurtengoak piztu dituen ilusioak berpizteko. Datorren urtean, gainera, hauteskundeak! Ilusio eta asmo on handiak, prezio merkean barra-barra salduko dizkigute. Merkeak dira-eta gerora betetzen ez diren diskurtsoak.

Bakoitzari berea, baina, nik ere baditut-eta datorren urterakoak pentsatuta. Ea betetzen ditudan aurten ez ditu danak bete, behintzat. Gauza bera opa dizuet!

"Zazpia zenbaki magikoa da. Horrelakoa izango ote da datorren urtea?"

> Urte berri on!

Hauxe izan da-eta etxe honetako leihotik aurten bota dudan azken begiratua. Gustura jardun dut begira, hasiera baten nire burua iritzi-emaile moduan ikusten ez banuen ere.

> Gabonetako lote-rian jokatzeko asmoa daukat. Askorik ez, zerbait. Bai, badakit, hau ere espiñiarra da. Bainaz ezagutzen al duzue xentimorik jokatzen ez duen euskaldunik?

begi-bistan

Erakusleihoa estalita (Bergara)
2006/12/13

Argazkia: Aintzane Irizar.
Testua: Aintzane Irizar.

Eguaztenean eta egunean Debagoieneko dendetako erakusleihoa estali zituzten, herriguneko komertzio txikien defentsan. Asteburuan, ez dute erakusleihotako argirik piztuko.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goinkarria@goinena.com

izen propioak

Lorentzo Altube



Dina Muxika

POLITIKARIA



Haritz Larrinaga

MARRAZKILARIA

Bideberri Mankomunitatearen era da Lorentzo Altube arrasatearra, txalaparta ikastaroa ematen, hango ACE (Associazione Culturale Euskara) elkarteak antolatutako Euskararen Astearen barruan. Asier Altuna *Kixi-k*, Fito Rodriguezek eta Kuraiak ere parte hartu dute.

Elgeta, Antzuola eta Leintz Gatzagako udalek osatzen dute Mankomunitatea; helburua da herri horietako gizarte zerbitzuak kudeatzea. Santamas jaietako kartel lehiaketa irabazi du Haritz Larrinaga aretxabaletarrak. Balantza bat ageri da kartelean, alde batzen txerria eta bestean barazkiak. Hainbat lehiaketan parte hartzen du Larrinagak; Eskoriatzako San Pedro jaietako ere irabazi zuen.

Egungo egoeraz gain, datorren maiatzean egingo dituzten udal eta foru hauteskundeez ere

galdetu diogu Joseba Egibarri. Bergarako eta Oñatiako alkate-gaiak ezagutzen ditugu eta bes-

te herrietakoak nortzuk diren galdu diogu, adibidez, baina oraindik ez dakitela erantzun

digu. Urte bukaera da epea, eta erakundeak zerrendak osatzen dabiltza oraindik.

Joseba Egibar > EAJ

"Ez dut uste lehengo eszenatokira bueltatuko garenik inflexioaren ostean"

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Prozesuaz komunikabideetan asko hitz egiten dela dio Joseba Egibarrek (Andoain, 1959) eta espekulazioetan ibili beharrean, lan egin behar dela arazoa konpontzeko.

Hautsita dago prozesua?

Ez zait iruditzen hori baiteko arrazoi sakonik dagoenik, zailtasunak dituen arren (zenbait epaile, komunikabide edo alderdi politikoren jarrera, adibidez). Hala ere, prozesuaren oinarrian dauden bi ubideek (Espainiako gobernuak eta ETAK osatzen dutena batetik, eta alderdi politikoen arteko elkarritzeta bestetik) etenik ez dutela dirudi, oraingoz. Ez dago hautsita, baina bai blokeo egoeran. Datozen egunotan inflexio puntuia izango da. Ez dakidana da: iraganeko eta atzera bueltako eszenatokia edo bideratze eszenatokia izango dugun aurrean. Iraganeko jokaeretara bueltatzea nahi-kо zaila ikusten dut. ETAK hiru urte eta erdi daramatza atentaturik egin gabe, eta horri berriro ekiteak ezker abertzalea hon-dora lezake. ETA eta Gobernu espainolak bake prozesua eta normalizazio politikoaren proze-sua nahastu dute. ETAK Anoetako eskema onartzen du, baina politika jardunean gertatzen denari ere begiratzen dio. Espainiako Estatuak *bakea presoen truke* eskema eskaintzen du. ETA, dagoeneko amaituta dagoen epea, indar armatuarena ale-gia, aldarrikapen politikoekin nahasten ari da. Eta gobernuak ere prozesu biak nahastu egiten ditu, indarkeriaren arazoaz gain, gatazka politikoa egon badago-ela ukatzen baitu.

Nork eta zer egin behar du blokeoa gainditzeko?

Guztioen esku dago bake prozesua. ETAK garbi izan behar du borroka armatuaren garaia pasa direla, gobernuak arazo politikoari konponbidea eskaintzeko ausardia izan behar du, alderdien artean gutxiengo baldintza demo-kratikoa batzuk adostu behar ditugu eta euskal gizarteak bere pro-agonismoa eskuratu behar du. Uneotan, blokeo egoera horri irtenbidea emateko, su eten iraun-korra ahalbidetu zuten printzipioei heldu behar diegu. Prozesuaren zuzeneko protagonistak gobernu espainola eta ETA izan ziren eta elkarri keinuak egin beharko diente krisi egoerari aurre egiteko.



Joseba Egibar, Bergarako San Joxepe elkartearren aurrean dagoen bankuan eserita.

GOIENKARIA

PROZESA

"ETAK eta gobernuak bake eta normalizazio politikoaren prozesua nahastu dute"

Zergatik eman duzue eragileok espero baino aurrerapauso gutxiago?

Ubide politikoari begiratzen badiogu, garbi daukagu arazoari konponbidea eskaintzeko ezinbestekoa dela Euskal Herriaren errekonozimendua eta bere era-bakitzeko eskubidearen onarpe-

GIZARTEA

"Gizartearen implikazioak ekar dezake prozesuaren atzeraezintasuna"

na. Bi kontzeptu horiek janzteko ezinbestekoa da euskal alderdien arteko elkarritzeta prozesu ofiziala abian ipintzea, baina hori gertatu aurretik aldebiko batzarrak ari gara egiten prozesu horren metodologia eta oinarrizko printzipioak adosteko. Hortxe daude arazoak, ematen duenez.

BLOKEOA

"Gobernu espainolak eta ETAK elkarri keinuak egin beharko diente krisi egoerari aurre egiteko"

Badago lider indartsurik guz-tia aurrera eramateko eta jendearen interesa pizteko? Prozesua aldeanitza delarik, lidertzak konpartitua izan behar du. Gero, nork bere funtzioa bete behar du eta lehendakariak paper garrantzitsua izan behar duela iruditzen zait, berea delako eus-

kal gizartearen ordezkaritza politiko gorena eta prozesu nagusi-ki euskal gizartearen arazoak konpontzeko ipini delako abian. Horrekin batera, lehenago aipa-tu dugun bezala, gizarteak berak eutsi behar dio erronkari. Gizar-tearen implikazioak ekar dezake, neurri handi batean, prozesuaren atzeraezintasuna.

Noiz eta nortzuek osatuko dute alderdien mahaia?

Hasiera baten, euskal alderdi politiko guztiak parte hartu behar lukete. Edozein kasutan, gaur egun bizi dugun zatiketa juridiko-politikoa kontuan iza-nik, eta testuinguru politikoa ere ahaztu gabe, formula desberdinak azter daitezke.

Bake prozesuan iritsiko gara hauteskundeetara?

Baikorra izan nahi nuke. Epe-ak ixtea ez da ona izaten, baina iruditzen zait prozesuak aurrera egingo duela eta hauteskunde oste-an urratsak ematen jarraituko dugula.

EAJ eta EA elkarrekin ez bazo-azte, atzera pausua izango da?

Ez nioke une honetan horri publikoki buelta gehiagorik emango. EAren barne eztabaidea abian delarik, utz diezaiegun pro-zesu horri lasai burutzen.

Jon Jauregi aurkeztu du EAJk Foru Aldundiko hautagai. Txabarriaren lana hobetzeko?

EAJ hauteskundeetara hau-tagai egokienak aurkezten saiatzen da beti. Eta Txabarriaren lana ona izan da, ez dut zalantza izpirik.

Erabaki horrek ozpindu egin ditu EAJren bi ildoen arteko harremanak?

Ez du zerikusirik izan ilde-kin. GBBk azterketa politiko sako-na egin du, eta azterketa horren ondorioz Jon Jauregiren aldeko apustua. Dugun aukera historiko honetan inork uste badu GBB bar-ne liskarrei begira ibili dela, argi dago ez dituela ondo ezagutzen ez EAJ eta ez GBB.

Egia da urrian alderdien arteko akordioa lortzearen egin zela? Zer gertatu zen?

Ez dut hori baiezteko informaziorik eta komunikabideetan agertu diren espekulazioen atze-tik ibili beharrean, hobe dugu lanari eutsi eta arazoa behin betiko konpondu.



zabalik

Manu Arregi

Foroetan neskarik ez

Hamahiru urte bete ditut irakaskuntzan aurten eta urtez urte gauza bera ikusteko aukera izan dut: neskek lortzen dituztela batxilergoko espediente onenak. Ez dut ahalmen mailan desberdintasunik nabaritu, baina adin horietan saiatuagoak dira. Unibertsitate mailan ere emakumezkoak dira gehiengoa dagoeneko, pasa den astean ikusi nuen estatistika baten arabera.

Baina zerbait gertatzen da gero. Zientziaren inguruko foro mordoskatxotan hartzen dut parte eta han ez da inondik emakumezkorik agertzen. Solteren bat akaso. Eszeptizismoa, astronomia, fisika... Ez dago, itxuraz, horretan interesaturik dagoen andererik. Amatasuna dela eta, zaletasunak alde batera uzten dituztela argudiatu daiteke. Baina, gaur egun, hogeita hamar piku urte eduki arte ez du gehiengo batek seme-alabarik izaten. Eta tarte luzea dago hor. Zer-tara dedikatzen dira nesnak bitarte horretan?

Estatu mailako astronomia jar-dunaldi batzuetan izan naiz kons-tituzio Zubian Santanderren. Ponen-tzia kurioso bat aurkeztu zuten ber-tan: *Vivencias de la pareja del astronomo aficionado*. Ez zaitu harri-tuko hizlariak emakumezkoak zire-la jakiteak. Nekeza da gizakume bat bere bikotearen zaletasunaren arri-mura ikustea. Han izan ziren, bai-ta, unibertsitario batzuk ponen-tziak aurkezten. Ia guztiak nesnak, noski. Herengana joateko gogoarekin gelditu nintzan galdetzen: non egongo zara bost urte barru? Zergatik utziko duzu zaletasuna?

Aita naizenetik astegunetako arratsalde dezente pasatzen ditut Oñatiako plazan. Esku bateko hatzakin soberan daukat han egoten diren aitak zenbatzeko. Emakumezkoen lan ordutegiak egokitu dai-tezke errazago, antza denez. Eskerrak artikulua bukatzean dagoen, topikoetan erortzen hasi behar nintzen eta. Batekin bukatu behar dut: emakumezkoen esku dago hau aldatzea, neurri handi batean. Gizarte honek ez dizu emango zuk hartzen ez duzuna.

Goienkaria

Argiratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Esteban Plazaola **Zuzendaria** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako ardurdunak** Ubane Madera (Herrrialde), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirrezailegegi **Oinarritzko diseinua** Goi Arana **Maketa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mirela Larrañaga, Amaia Munduan, Zortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Bereizibar **Testuen zuzenketak** Sergi Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gainzain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAIKA



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatioko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarra galdezka

ZABOR BILKETA

Bergarar batek galdu digu ea zaborrak biltzeko ordutegi zehatzik dagoen. "Goizeangoiz hasten dira beira eta paper edukiontzia husten eta zarata handia ateratzen dute", esan digu.

Debagoineneko Mankomunitate-
ra deitu dugu eta zabor bilketa-
ren gaineko azalpen zehatzak eman dizkigute: "Zabor organiko
20:00etatik 22:00etara bitar-
tean bota behar da edukiontzie-
tara bilketa egunetan. Bergaran
astelehen, eguztzen eta egubakoi-
tzetan. San Juan eta Ubera auzu-
etan izan ezik; horietan marti-
tzen, eguen eta domeketan egiten
dute bilketa. Bilketa ordua
22:00etatik 05:00ak artekoa da".
Martitzen, eguen eta domeketan
Arrasaten, Leintz Gatzagan,
Eskoriatzan Aretxabaletan eta
Elgetan ere egiten dute bilketa;
eta astelehen, eguztzen eta egubakoi-
tzetan, Bergaran ez ezik, Oñatin
eta Antzuolan ere.

Gainontzeko edukiontzietan
aldatu egiten da maiztasuna:
"Bakoitzak nahi dueanean bota
ditzake beira eta papera eta bil-
keta egunak aldakorrak dira,

bete ahala husten baitituzte. Hala
ere, gomendatzen dugu ekidite-
ko beira gauez uztea, bizilagunei
eragozpenik ez sortzeko. Maizta-
suna berez zehaztuta daukagu,
baina beharren arabera egokitu
egiten dugu. Bilketa 06:00etan
hasten da eta 14:00ak ingurura
arte ibiltzen dira kamioiak".

Hondakin handiak Arrasaten
eta Bergaran martitzenetan
jasotzen dituzte eta gainontzeko
herrietan eguenten.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta
bazaude eta gai horren
gaineko informazio gehiago
jaso nahi baduzu, bidaligu-
zu galdera eta geu jarriko
gara harremanetan
dagokionarekin. Galdera
egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar
jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
- Posta elektronikoz:
goienkaria@goiena.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK

Emakume batek kezka azaldu digu Bergaran, Ibargaraiko autobus geltokian, ordutegirik ez dagoe-lako eta inoiz okerreko ordutegiak ere egon izan direla jakinarazi digu. Bide batez, honako galdera egin digu: "Zeini dagokio autobus geltokietan ordutegiak ipintzea?".

Pesa autobus konpainiari deitu
dugu azalpen eske eta zera esan
digute: "Autobus geltokien edo
markesinen ardura udal bakoi-
tzarena da; beraz, bertako langileei
dagokie ordutegiak ipintzea,
eta aldaketarik balego ordute-
gietan, hori ere jakinaraztea. Gai-
nera, kontuan hartu behar da
haien geltokitan ordutegia ipint-
zeke leihatila batzuk daudela
eta horien giltza udaletxe bakoi-
tzean daukate".

Bestalde, aurreratu digute
Lurraldebus plangintzaren
barruan, geltokietan pantailak
ipintzekoak direla. "Pantaila
horien bitartez geltokian dau-
den bidaiaiei jakinaraziko zaie
hurrengo autobusa noiz iritsiko
den, edo atzerapenen bat dagoen.
Hala ere, oraindik zehazteke dago
noiz ipiniko dituzten".

marrakiz

Alex Ugalde



Gogoeta eta iritzia

Markos Zapiain
www.eibar.org/blogak/zapiain

Bileretan eta eztabaidetan
adierazten diren iritzien
eta hedabideetan erakus-
ten diren irudi distiratsuen
berri ematearen, ispili
paralelo biak irudikatuko
ditugu berriro. Bakarra izango
da erreproduzitutiko gauza edo
gogoeta; aldiz, gauza berrage-
rrazik duden iritziek zein
irudiak, gure munduko oiloak
legetxe, kopuru zehaztugabe-
koak.

ak izango dira, baina ez
azkengabeak.

Izan ere, gauzaren edo
gogoetaren bikoizketaren eta
erdibitzearen bitartez lorturiko
iritzion zein irudion biderketa,
zehaztugabea izango da apika
kopuruari dagokionez, baina
egitez inoiz ez da azkengabea
izatera iritsiko, ezta argiak edo
adimenak gauza erreproduzi-
tzeko denborarik beharko ez
balu ere.

Edonola ere, gauzatik,
gertakizunetik nahiz gogoeta-
tik urrutiratua ahala, iritziek
eta irudiek gero eta antz eta
hurbiltasun handiagoa dute
beren artean, gero eta ilun eta

lanbrotsuagoak bilakatzen
dira, harik eta azkenik goitik
beherainoko anabasan nahas-
ten diren arte, gauzak eta
gertakizunak zuzenean bizi eta
pentsatu beharrean bileretan
haietaz esaten dena eta hedabi-
deetan erakusten dena askies-
ten dugun garunak bezala.

Euskalduna

Onintza Enbeita
www.matraka.info/blogak/onintza

A benduaren 2an, bizitzan
lehenengo, Bilboko
Euskalduna jauregiko

plazara

Arrasaten, Zabaleta inguruan, egain nahi duten merkataritzaguneak hautsak harrotu ditu ibarren. Merkatariak prentsurrekoan

azaldu aurretik Itziar Lamarai-neak gaiaren gaineko testua idatziz zuen tarte honetarako, nahiz eta guk zubia dela-eta geroago

kaleratu. Bada, merkataritzaguneaz, ekarriko lituzkeen ondorioez eta herriko erdialdeak behar duen bizitasunaz dihardu.

Itziar Lamarain *

Merkataritza eta aisi gunea? Bai, baina non?

B adira urte batzuk Arrasaten hiru zinema areto zeudena: Gurea zinema, Ideal zinema eta Amaia zinema. Seguru aski batzuek gogoan izango dute lehenengoa, nahiz eta orain dela urte asko itxi zuten. Ideal zinemak, gerora Alai izango zenak, orain dela hiru urte eta erdi inguru eman zituen bere azkenak. Gaur egun Amaia daukagu, Udal Antzokia dena.

Zinemaz gain, bazen aisiaaldi-rako beste aukerarik. Gazteek Herriko Plazan egiten zuten dansza; eta egunez azoka zena (egungo Seber Altube plaza) domeketaan Verdury Dancing (horrela esaten genion) bihurtzen zen.

Zer daukagu gaur egun? Hori ere ez.


Bai, Amaia antzokia badaukagu, egun zehatzetan zinema emanaldiak egiteko eta ohiko kultura ikuskizunetarako egoitua, zorionez.

Hori bai, badugu kirolgune egoki bat, eta aurki amaituko dituzten berrikuntzekin, atal hau behar bezala amaitutxat joko genuke. Hori da guztia.

Arrasate da herri bat, industriari eta hezkuntzari dagokionez, Euskal Herrian eta inguruan punta-puntako dena. Baino aisiaaldiari eta jolas jarduerei dagokienez gabezia larriak dauzkagu.

Zabaletan merkataritza zen-troa ipintzeko aukera azaldu digute. Ideiaren aldekoak eta aurka-koak egongo direla ziur nago.

Arrasaten, Udalaren ekime-nez, eta hainbat parte-hartze fororekin, Arrasateko iraunkortasun plana egin genuen. Plan horrek hainbat atal dauzka bere baitan, eta horietako bat da, hain



MIKEL ARROIAIBE

zuzen ere, merkataritza dinamizatzea: herria zentzu guztietan bizia eta bizigarría egitea eta herriko kaleak bizitza horren eta mugimenduaren isla izatea.

Iraunkortasun plan horretan oinarrituz gero, ba al du zentzu-rik herriko kanpoaldera erama-tea zinema aretoak, dendak eta aisiaiduguneak izango dituen merkataritza zentro erraldoia? Nik neuk zalantza asko dauzkat honen gainean.

Herriaren erdian aparkaleku handi bat eraiki dugu herritarra-ko gure bizigunera erakartzeko" Herriaren erdian aparkaleku handi bat eraiki dugu (merkatu egin beharko litzatekeena) herritarra-ko gure bizigunera era-kartzeko. Nork diosku ezin dugula herriaren erdialdean egin zinema aretoak, dendak eta aisiaidi-

"Arrasaten, aisiaaldiari eta jolas jarduerei dagokienez, gabezia larriak dauzkagu"

"Herriaren erdian aparkaleku handi bat eraiki dugu herritarra-ko gure bizigunera erakartzeko"

barrikadetan lekua aldatu nuen. Beti egon naiz publiko artean jesarrita. Zapatauan agertokian egon nintzen.

Itzela da. Handia. Harrigarria. Buru bat, eta buru bi, hiru buru eta dena buruz beteta. Beno, ia dena. Ahotsak-en deiari jarraitu ziotenek ia osorik bete baitzuten Euskalduna.

Eta abenduaren 16an beteago egongo da. Ez baitago sarrerarik. Eta bizitzan bigarrenet, agertokian egongo naiz. Inbidia ematen didate, inoiz pentsatuko ez nuen besteko inbidia, egun horretan jende artean trankil jesarriko direnek. Ni ez bainaiz trankil

egongo. Izugarria irudituko zait berriro ere Euskalduna. Handia da agertokia bera, handia da lekua, handiak dekoraziorako jarritako kontuak, handia entzuleria, handia giroa...

Baina era berean zoragarria izango da. Zoragarria eta lehenengo aldi guztiak izaten diren moduan, errepika ezina. Behin izango da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera heltzen naizen lehen aldia, eta berean, Euskaldunaz gozatu egin gura neuke, Euskaldunaz sufritu baino gehiago. Iku-siko dugu zer gertatzen den.

Euskalduna beteta dago honezkerio. Sarrerarik ez da

geratzen. Txapeldun berria nor izango ote den galdetzen dio mundu guztiak bere buruari. Nik baditut hautagai bi, edo beno, hiru. Zortzi behar nituzke, baina txapel bakarra dago, eta buruz burukora bi bakarrik pasatuko dira. Txapelketa hasi aurreko apustua mantentzen dut nik, ez dut aldatu. Larrabetzu eta Algortaren artean utziko ditut gauzak, nahiz eta badakidan, apustuak kolorez aldatzen hasita daude. Nik hortxe utziko dut kiniela. Zati handi batean bihotzarekin egindakoa noski, baina neurea; Euskaldunako lehen finala izango den bezain neurea!

Argi ta egur erretzeko hil izaten da abendua. Uztaritzera ere heldu da Su garraren infernuia. Mintzatzu sua pizten omen da eta itzali isilduz. Irratiz berbak aditu bitez guztiion eleak bilduz. Urrutian den urak ezin du sua hain errezz amata. Denon artean itzali baietz euskal ur tantak botata.

zer deritzozu?

www.goiena.net

Hiesari
beldurra galdu
diogu?

BAI	%75
EZ	%25

> SEXUA BABES GABE

Bai, eta jendeak sexu harremanak babesik gabe izaten dituenez infekzio gehiago gertatzen dira.
Ainara

> ARRISKUAZ OHARTARAZI

Gazteen ustez hiesa gaindituta dago, eta beldurra galdu diote. Ohartarazi beharko lirateke zenbaterainoko arriskua duten sexu harremanak babes barik izaten dituztenean.
Mari Carmen

> PREBENTZIOA

Gaitza gure artean dagoen aldetik edozeini toka daki, are gehiago prebentziorik ezean. Ez zaio beldurra galdu behar.
Miren

> TRATAMENDUA

Gaitzari behin hartutakoan arintzeko tratamendua arrakasta izan dutenez, gaitza hartzeari beldurra galdu dio jendeak eta sexu ohiturak aldatu ditu, preserbatiboa gutxiago erabiltzen dira.
Unai

DATORREN ASTEKO:
Gabonetako loteriarik
erosten duzu?

Eman zure iritzia
www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

koplak

Irati Agirreazaldegia

Gure Irratia laguntza eske

Argi ta egur erretzeko hil izaten da abendua.

Uztaritzera ere heldu da Su garraren infernuia.

Mintzatzu sua pizten omen da eta itzali isilduz.

Irratiz berbak aditu bitez guztiion eleak bilduz.

Urrutian den urak ezin du sua hain errezz amata.

Denon artean itzali baietz euskal ur tantak botata.

Eguaztenetik berriz martxan da Gure Irratia ozen.

Uhinez uhin jarrai bezate hitza ta musika lotzen

Euskara dute sostengu eta euskara dute lan tresna.

Lagun ditzagun beharko gara euskaldun guztiok esna.

Sutea izan ez dadin gero uhinetan berri hutsa.

Irrati doinu bihur dezagun Uztaritzeko errautsa.

Militante iraultzaile baten biografia

Antxon Mendizabal
(EHUko irakaslea)
Arrasate

Celestino Uriarte, Klandestinitatea eta Erresistentzia
Komunista izenarekin Txalaparta argitaletxeak liburu berri bat atera du. Gure azken historiaren zenbait alde ilun argitzen dituena. Protagonista Celestino da, arrasatearra bera, komunista eta euskalduna. Celestino Uriarteri buruz egindako biografia ez da soilik hogeigarren gizaldiko, 30 eta 40ko hamarkadetan gauzatutako gertaeretan murgildurik, arrasatear komunista euskaldun baten historia. Hori baino askoz gehiago da hemen daukaguna.

Gazte Sozialista Bateratuaren sortzaile eta arduraduna (gazteria sozialista eta komunista bateratzen zuena); 34ko iraultzaren gidaria Arrasaten; altxamendu nazionaleko hasierako egunetan, Donostian, faxisten aurka borrokatu zuen milizia zutabe baten sortzaile eta gidaria; Arrasateko Dragoi Batailoiaaren sortzailea eta buruzagia; Ebroko guduan, ausardiaren domina eskuratu zuen brigada baten (lau batailoi osatzen zituena) buruzagia; Guruko kontzentrazio gunean euskal eremuaren arduraduna; erbesterrata Txilen; Madrilgo gerrillaren arduradun politiko-militarra 1945ean, frankismoaren aurka hirietan egindako lehen ekintza armatuen gidaria; Valentziako guerrillaren arduradun politiko-militarra; eta Kantabriar zonaldean (Santander, Asturias, Leon) zeuden makis mugimenduaren arduradun politiko-militarra (beste bi adiskide kamaradarekin agintea konpartituz).

Espetxeratua 1947an, hasieran 30 urteko zigorra eta gero heriotza zigorra ezarri zioten. 1950ean Martuteneko espoxean izugarrizko ihesaldia antolatzen du. Muga pasatuz, Alderdi Komunistako komite zentraleko kidea izaten jarraituko du, Parisen lehenbizi eta Polonian gero. 1970ean, bere iritzien ondorioz, Listerekin batera, alderdi komunistatik kalera-tua izango da. Bere biografiak aparta zen militante iraultzai-le baten bizitza islatzen du. Biografia honek baimentzen digu berriz ere interpretatzeara 30 eta 40ko hamarkadetan mugimendu komunistaren historia eta frankismoaren

Bihotzez, mila esker, guztioi

Andoni Larrañaga (Arianeren lagunen izenean) > Bergara

datzi honen bitartez, Arianeren alde egindako ekintzetan parte hartu duten guztieei beraien lagunza eskertu nahi genieke.

Esker mila batez ere herritar guztioi eta bereziki Bergarako Gaztetxea, Txapa Irratia, Etxeberria erloju denda, Berroya inprimategia, Peñalba, BTLS eta opariak eman dizkigutenei kirolari eta kirol taldeei.

Zoritzarrez bagenekei eginiko saiakera, agian, ez zela nahikoa izango minbizia gainditzeke, eta azkenean horrela gertatu da, Ariane abenduaren 5ean hil baitzen.

Hala ere, Arianerengan izan ditugun itxaropen eta ilusioek indar asko eman digute, eta seguru gaude indar horiek beste norbaitek eskertuko dituela; horregatik, hasieran argitu genuen bezala, jasotako dirua minbizien aurkako erakunde batera bideratuko da, eta horretarako hasita ditugun ekintzakin aurrera jarraituko dugu.

Bihotzez, mila esker, guztioi.

aurka hasierako urteetako erresistentziaren historia. Baita ere Euskal Herriko historia eta batez ere Arrasaten 34ko Iraultzarena.

Liburu eder baten aurrean gaude, atsegina, estilo narratibo eta euskara jatorra duena. Celestinoren biografian bitartez agerian gelditzen dira erosoa bizi diren burokrazia politiko eta herriaren alde beraien larrua jokatzen duten gizon eta emakume militanteen arteko kontraesanak. Harago, gizateriaren emantzipazioaren dinamikan eta problematikan sakontzen du liburuak; eta horrela, gizarte horretako pertsonen izaera eta antropologiari buruzko ezagutza aurkitzen dugu hemen.

Juan Ramon Garai egileak egindako lan paziente, sistematiko eta sakona aipagarria da hemen. Langileriaren bizzitza tarteetan izandako denbora librea ekarpen baliotsu hau egin duelarik. Bere lanaren balioaren onarpena honen burutzean lagundu dioten Arrasate eta Deba bailarako ikertzaileen gana zabaldu behar da. Ezin dugu ahaztu historia zientzia soziala dela eta ondorioz testuak autorearen ikuspuntu subjektiboa jasotzen duela. Hemen azalduriko gertakizunak bertsio ezberdinak ditu, esperientzia bizi zuten protagonistak komunistak, anarkistak, edo nazionalistak badira. Egileak askotan nolabaiteko distantzia mantentzen du, gertaeraren aurrean kontrako herri sektoreen bertsioak ere aipatuz.

Adierazgarritasun maila berezia du 34ko Iraultzari buruzko liburuaren ekarpenea. 34ko Iraultzak herrien bizi-tzak markatzen dituen horietako da, zerura iristeko

beraien ahaleginean. Irabazi ezina zen guda bateko trintxeretan gelditu ziren asturiar meatzari heroikoak. Iraultza horrek markatu zuen garai horretako Euskal Herriko Guda Sozialaren aldi historiko bat. Arrasaten, Eibarren, Hernanin eta Aretxabaletan, Asturiasko meatzarien portaerak birstortu ziren. Arrasaten, Asturiasek gertatu zen bezala, prozesuak izaera iraultzailea hartu zuen. Matxinoek moneta eta jabetza pribatuaren abolizioa aldarrikatu zuten, produkzio eta hornikuntzen kontrola gauzatu zuten eta baita ere milizia proletarioak eratu.

Komunistak eta gazteek izan gertaeraren protagonistak, mundu berri bat posible zen ustean. Baino ez zoriontasunaren bila dabiltzan egungo progre-en ildoan. Garai horietakoek larrua eta odola implikatu zuten Errepublika Sozialaren eraikuntzan, orduko errepublika ezkerre-rantz biratzea bultzatu nahian. Beraien etika iraultzailea izan zen. Zerikusirik ez egungo zenbait ezkerrek eta indar demokratikoek aldarrikatzen duten menekot-sunaren etikarekin.

Gazte utopikoak izan ziren. Dena eraldatzea eta justizian oinarritutako mundua eraikitza posible zela usten zuten. Utopia motore zuten eta gizakiok daukagun ahalmen ikaragariaren kontzientzia zeukan. Gure herriekin Sobiet Batasuneko iraultza berriz gauzatzea nahi zuten.

Gure historiaren zati onenetariko bat egin dute eta gure jendearen zati onenetari-koak izan dira. Hauek gizateriaren emantzipazioaren alde gure herriekin borrokatu zuten. Komunistak eta euskaldunak, garaiko muga eta kontraesa-

nekin batera, Euskal Herriaren autodeterminazioa aldarrikatzen zuten. Iraultza sozialak eta sozialismoak Euskal Herriko askatasuna ekarriko zuen sinesmenean.

Kapitalismoaren aurkako borroka sozialista utopiko hauek pentsatzen zuten baino konplexuagoa da. Zapalkuntzak alde gehiago ditu. Emantzipazioak ere isurialde gehiago. Prozesu historikoak hauen sinesmen sendoetariko batzuk bota egin ditu. Boterearen konkistak estrategia konplexuagoak eskatzen ditu. Botere politikoak ez du dena konpontzen. Sozialismoak ez du herrien askatasuna bermatzen. Alderdia ez da gaur gizarte berria eraikitze-ko bermea. Izpiritutu kritikorik gabeko militante menpekoa oztopoa besterik ez da prozesu iraultzaileentzako.

Baina kapitalismoak sekula baino gutxiago balio du gure garaiko arazo nagusiak konpontzeko. Errepublika sozialaren konsigna, gero eta garbiago Euskal Herriaren askatasunarekin uztar-tzen da. Eta gero eta egiazkoagoa eta beharrezkoagoa bihurtzen zaigu. Hauek erakutsi zuten ausardia, berdintasun sozialaren aldeko jarrera, militantzia, erabakia eta implikazioa, gaur egunera-ko balio handiko eredu etikoa iruditzen zaigu.

Hauek porrot egin zuten beraien saiakeran, baina espazio-denboraren mugen galarazten zieten ikustea XX. mendeko azkeneko hamarkadetan Errepublika Sozialaren konsigna, modu adierazkorra-go batean Euskal Herri aske batean integraturik, erresis-tentziaren eredu gero eta sendoagoa izango zela. Ezin zuten igarri beraien garaian, Errepublika Soziala Euskal Herriaren baldintza material eta kulturalak berreskura-tzen dituen prozesu batean murgildurik azaleratuko zela XXI. mendeko belaunaldi berrientzat. Ez soilik eredu garrantzitsua eta beharrezko gisa, baina orain, gainera ezinbestekoak.

Laburbilduz, Celestinoren biografiaren bitartez, liburu honek ikerketa historiko ederra eta ekarpen handia dakarkigu. Frankismoaren aurkako erresistentzian, Euskal Herriko historian eta Arrasateko herriaren iraganean dagoen alde ilun bat argia emanez.

Gizateriaren emantzipazioaren denbora bateko narrazio epikoa. Euskal Herrian kokaturik gainera. Hausnarketa egitera gonbidatzen gaituena, ekarpen berria, berritzalea, euskaraz idatzita eta irakurtzeko atsegina.

IRAKURLEARI

GOIENKARIA berritua

Oraingo astelehenean berritura jasoko duzu *Asteleheneko Goienkaria*. Eduki aldetik, informazio gehiago izango du: herriei tarte berezi eta zabalagoa eskainiko diegu; iritzi gehiago jasoko du; asteburuko berriak ere bai; kronikak; eta, nola ez, gure eskualdeko kirolari eta taldeen kontuak ere jaso-ko du, luze eta zabal... Eta, bes-talde, diseinu berrituarekin etorriko da.

Izan ere, aurki beteko dira hiru urte Goiena Komunikazio Zerbitzuen produkturik berriena, *Asteleheneko Goienkaria*, abian jarri genuenetik. 2003ko abenduaren 22an izan zen hori. Orain, hirugarren urteurrena ospatzeko, goitik behera berritura kaleratuko dugu *Asteleheneko Goienkaria* abendua-ren 18an, datorren astelehenean.

Produktua hobetzeko eta zuri, gure irakurle zaren horri, kalitateko aldizkari interesgarri, entrene-nigarri eta erakargarria egiteko berritu dugu *Asteleheneko Goienkaria*.

Berritu eta hobetu, etorkizunari aurre hartu eta gure bezeroei, debagoiendar guztiei, produktu onenak eskaini. Horixe dugu buruan Goiena egiten dugun guztiok, eta, bide horretatik, berritu eta hobetu egin ditugu azken urtean gure hedabideak:

- *Goiena.net*, eskualdeko eta herrietako informazio osatuena ematen duen Internet ataria, eralda-ku egin dugu azken teknologia erabilita.

- Goiena Telebistak aurkezle eta programa berriak estreinatu berri ditu, itxura aldetik modernoago agertuz eta programa berriak aurkeztuz, eta digitalizazioaren erronkari aurre hartu.

- Eta ezin dugu ahaztu eskue-tan duzun egubakoitzeko GOIENKARIA, edizio bakarrekoa, mardula-goa, koloretsuagoa eta hobia jasotzen duzula aurtengo otsailaz geroztik. Hala aitortu diguzue zuek, irakurleok, egin berri ditugun inkes-tetan, eta hala adierazten dute audientzia datuek ere.

Eskualdea da gure jomuga: hemengo herriarrak, elkarreak, erakundeak, enpresak...; gertuta-suna da gure indarra; eta euskara da gure tresna eta Goiena egitas-moari esanahia ematen diona. Eskutik goaz, hortaz, euskara, zeu irakurle hori eta Goiena.

Eta, hala jarraitu nahi dugu, etorkizuna eskutik eraiki nahi dugulako, Debagoienean euskarazko eta kalitatezko hedabide modernoak bultzatu nahi dugulako, orain arte bezala eta beste inon ez bezala, zuregatik esker eredu garelako Euskal Herrian euskarazko informazio lokalean.

Horregatik guztiagatik, berritu eta hobetu egin dugu *Asteleheneko Goienkaria*, oraingo astelehenean irakurri ahal izango duzuna.



Opari bat Ikerrentzat.

Eta beste bat niretzat.

Aurtengo eguberriean,
zeure buruari egin opari.
kutxako zure kreditu-txartelak
erabiltze hutsaren truke.

Erosketa bakoitzeko, gero opari bihur ditzakezun
puntuak bilduko baitituzu. Begira nolakoak diren
opariok www.kutxa.net-en edo **kutxaren** edozein
bulegotan.

Sustapen honek txartel hauetarako balio du: **kutxako** Visa Classic, Visa Urre, MasterCard Urdin eta
e-Business. Sustapenaren oinarriak eskuragarri daude www.kutxa.net-en eta **kutxaren** bulegotan.

gabonak

Eta orain ere...

SUKALDE ALTZARIAK!

- Eskatu aurrekontuak konpromiso barik.
- Neurrira egindako finantzaketa.

gabonak dira, aurkitu ezazu milar-en

ARRASATE
Olarte, 1.
Tel. 94379 18 86.

MILAR ELKORO

J A N T Z I D E N D A

L A S A G A B A S T E R

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ETXE APAINKETA

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> ARRASATE
256 lagunek eman
dute izena udal
lanpostu
finkoetarako > 18



> BERGARA
Ekainerako
zabaldu nahi
dute Eroski
berria
Leizeagan > 24



> ARETXABAleta
Zilarrezko "Q"-a
eskuratu du
Aretxabaletako
institutuak > 31



> ARAMAIO
Mertxe Mondragon
alkatea GOITBKO
Debarri saioan izan
da asteon > 38

ARAMAIO > SAGARZALEAK, ELKARTEA OSATU NAHIAN

Aramaion elkartea sortu nahi dute, sagar ura eta sagardoa egiteko: ASE

ASE ELKARTEA

Aramaixoko Sagarzalien
Elkartie (ASE) izena
ipini diote elkarteari

GAUR BATZARRA

Gaur, barikua, emango
diete herritarrei
egitasmoaren berri

UBANE MADERA > ARAMAIO

Helburu bikotzarekin eratu nahi
dute Aramaixoko Sagarzalien
Elkartie, ASE: bata, baserritarrek
elkarren artean lan egin ahal
izateko eta, besteak, orain arte alfe-
rrik galdu diren edo guztiz apro-
betxatu ez diren sagarrak apro-
betxatzeko eta, modu horretan,
gainera, sagarrondoak indartu
eta Aramaioko ingurumena
babesteko.

Ideia lantzen zela hasi ziren
azaldu digu elkarteko kide Juanan
Aretxagak: "Ikuster genuen Ara-
maion bazegoela behar bat. Izan
ere, Aramaion baserritar profesio-
nal gutxi daude. Denok gabiltza
zaletasun moduan, eta orain arte
sagardoa egin dugu prentsa txiki-
kin, erreminta eskasekin... Hasi
ginen beste esperientzia batzuk
ikusten (Ezkio-Itsaso) eta pentsa-
tu genuen esperientzia horiek Ara-
maiora ekartzea, makina on
batzuk ekarri, guztiak ipini lokal
batean eta elkartze bat sortzea".

ASEko kide Kepa Lizarral-
dek elkartearen aldeko beste arra-
zoit bat eman du: "Aramaion lehen
baserri guztiz zituzten sagarrak.
Orain, berriz, pinu asko dago.
Eta elkartearen helburuetako bat
da Aramaion ez galtzea sagar bat
bera ere; produktua eta bere abe-
rastasuna berreskuratzea. Gura
duguna da baserritarra *pika-
tza* zaindu dezaten gaur egun
leku askotan abandonatuta dago-
ena eta hemendik aurrera saga-
rrondoak izan daitezela baserri-
tarengako balio erantsia, zer-
bait probetxuzkoa. Eta gainera,
pinu gutxiago sartzea".

Sagar ura egiteko ideia ere
arrazoi berarengatik izan zuten:



ZORTZI LAGUN Aramaixoko Sagarzalien Elkarteko orain arteko kideak, Untzilla auzoan, sagardoa, sagar ura eta sagarrekin. U.M.

"Sagardoa askori ez zaio gustatzen
eta gustatu arren, jendeak ardo-
ra jotzen du. Zukua bada irteera
bat, jendea animatzeko". Pasteu-
rizatutakoa izango da. Sagarra-
ren zukua irakin barik, 75-80 gra-
dutan berotuta. Urte pare bat
iraungo luke iraungi barik".

Aldeko hirugarren arrazoi bat
ere eman digute: "Orain arte, sagar
gutxi duenari ez dio merezi izan
makinak erostea sagarrok apro-
betxatzeko; aldiz, halako elkart-
batekin askoz errazagoa da".

Datuek babesten dituzte arra-
zoioik: "Aramaion sagarrari kon-

tsumo propiorako probetxua ate-
ra diezaietako 50 baserri inguru
daude".

Bukatzeko, gogorarazi dute
herrian ohitura izan den auzola-
na berrindartzeko ere balioko due-
la proiektuak. Eta baserritarren
harremana ere indartuko luke.


EPE ERTAINERAKO ASMOAK

Etorkizunari ere begiratu dio Aramaixoko Sagarzalien Elkartiek

Datorren urtean abiarazteko projektuaz gainera,
ASEko kideek begi-puntua denboran aurrerago ere
ipinita dute eta sagarraren aberastasunak aprobetxa-
tzeko bestelako projektuak ere baditzute pentsatua.

Esaterako, posible ikusten dute Udalaren lursail
batzutan, orain pinua eta pagoa landatzen dutenetan
sagarr sartzea. "Asmoa da sagastia sartu eta erakutsi
jendeari pauso guztiak zela egin: landatzetik hasi eta
produzitu arte". Horrez gainera, lursail horretan
bertako sagar mota berreskuratzeko lana egingo
litzateke.

Possible ikusten dute, baita ere, sagardoa eta zukua
egiteaz gain, bestelako produktuak ere egitea, marme-
lada, konpota, irasagarra..., esaterako. Azken helburua
da %100ean aprobetxatzea sagarren produkzioa.



SAGARRA Elkartearen logoak sagarra irudikatzen du. ASE.

DATUA

100
KILO

Ehun kilo sagarrekin atera daiteke
50-75 litro zuku. Baino teknologia
berrikin eta sagarren aprobetxa-
mendua handitzen, hobetu egin
daiteke kopurua. Orain, seguru aski
Frantzian erosiko dituzte makinak.

ASKO JOTA 40 LAGUN

Oraingo zortzi bat lagun dabilta
ideia lantzen. Baino gaurko batza-
rrean hartuko dituzte interesa
dutten herritarren izenak. ASEko
kide izateko honako baldintzak
bete beharko dituzte: "Nahiz eta
baserria eduki ez, lursaila baldin
badauka eta sagastia, nahikoa da;
sagarrak izatea, azken batean. Eta
Aramaikoa izatea. Izan ere,
mugatu egin behar dugu baserri-
tar kopurua, dolareak muga dau-
ka-eta". Muga hori izango litzate-
ke 40 bat lagunekoak, "baina 15 bat
lagunek izana emanez gero, elkar-
teak aurrera egingo du".

LOKAL BARIK, PROIEKTURIK EZ

Beste baldintza bat edo jakin
beharreko bat da inbertsio txiki
bat egin beharko dutela: "Gure
urrekontua da, gutxi gorabehe-
ra, 40.000 euro behar dugula tres-
nak erosteko. Eta lokala aparte
da. Hori Udalari eskatu diogu. Eta
argi dago lokal barik ezin dugu
la proiektua landu. Dirulagun-
tzak ere eskatuko ditugu". Elkar-
tearen izaera, berriz, irabazi
asmak bakoa izango da. Eta gogo-
rarazi dute halako ekimenak aur-
keztu dituzten bestelako udale-
rritan (Ezkio-Itsason, adibidez),
Udalak %100 babestu dituela.

DATORREN URTEAN

Hala, Udalari, proiektua aurkez-
tu eta, besteak beste, eskatu diote
100 m²-ko lokala, kale erdi inguru-
an, orain ezin bada, geroago:
"Asmoa da datorren urtean zukua
eta sagardoa egitea. Ordurako utz
diezagukete lokal txikia, behin-
behinekoa, tresneriarendako; eta
aurrerago beste bat hobea". Ea
bada Udalak zer dioen.

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapatura, 16	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Domeka, 17	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Astelehen, 18	Irizar	Erguin 11	943 79 12 39
Martitzena, 19	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Eguaztena, 20	Español	Araba 14	943 79 18 65
Eguena, 21	Ruiz	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Egubakoitz, 22	Zabola	Maala 31	943 79 14 09

BERGARA

Zapatura, 16	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Domeka, 17	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Astelehen, 18	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Martitzena, 19	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Eguaztena, 20	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguena, 21	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Egubakoitz, 22	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15

ONATI

Zapatura, 16	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 17	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehen, 18	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Martitzena, 19	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Eguaztena, 20	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguena, 21	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Egubakoitz, 22	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16

ARETXABAleta

Zapatura, 16	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 17	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Astelehen, 18	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Martitzena, 19	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Eguaztena, 20	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Eguena, 21	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Egubakoitz, 22	Iturralde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	943 53 47 20
Oasun Etxeak	
Arrasateko ospitala	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 03 54 00
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Udalitztaingaak	
Antzuola	943 76 62 46
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

GARRAOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 77 12 64
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboa	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	943 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

ARRASATE

Kirolegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 76 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41

Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58

Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00

Elgeta

Eskoriatza

Leintz Gatzaga

Oñati

URBANOAK**ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterrí, Legarre, Musakola eta Eroski.	

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreto, Onerreka, Makaztena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	

kale inuesta

Edukiontzi batzuk lurperatuko dituzte laster; zer deritzoz?



Txaro Loblida
Langilea
Aretxabaleta



Paqui Hernandez
Langilea
Aretxabaleta



Juan Ramon Azkotia
Langilea
Aretxabaleta



Leonor Medrano
Erretiratua
Aretxabaleta



Jose Olivenza
Erretiratua
Aretxabaleta

Ondo. Ilargi plaza parean zabor handia pilatzen da, eta bero egiten duen egunetan usain txarra egoten da. Nik asko nabarritzen dut; hortaz, usainak kentzeko, behintzat, ondo etorriko dira.

Lurrean botata egotea baino hobe izango da zaborra lur azpian sartzea. Herria garbiago egongo da eta usain txikiagoa izango dugu. Neuk pentsa, berdin-berdin erabiliko ditugula...

Oso ideia ona dela uste dut. Edukiontzi inguruak askoz garbiago egongo lirateke, eta erabiltzaileontzat ez dago desberdintasunik. Gasteizkoak ikusi ditut, eta oso ondo daude.

Oso ondo deritzot. Lurazpian sartzea askoz garbiagoa eta osasungarriagoa delakoan nago. Beste herri batzuetan ikusi izan ditut halakoak, eta zalantza barik ederto daudela esango nuke.

Oraingoek baino erantzun hobea emango luke-tela uste dut: leku handiagoa izango dugu edukiontziok lurperatuta, eta usain txikiagoa. Herritarrok, ostera, berdin-berdin erabiliko ditugu.

txaloak eta txistuak



AINIZANE IRIZAR

Errepide bazterrean hesirik ez dago



Errepide bazterrak hesiarekin babestuta egoten dira, batez ere errepidea etxebizitzetatik geru pasatzen denean. Bada, irakurle batek abisatu digu Antzuolako Sagasti kaleko etxeen atzeko aldetik errepidea pasatzen dela eta ez dagoela hesirik, eta egokia litzatekeela ipintzea.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

120

Beasain-Durango korridorearen Urretxu-Bergara zatia lehiaketara atera du Diputazioak. 120 milioi euroko aurrekontua du. Besteak beste, Deskarga zeharkatzeko 620 metroko tunela eraiki behar dute.

Datorren urtetik aurrera argiaren tarifa igoko omen dute. Ai, Gabonen aurretik igoko balute, batzuek behintzat aberastuko lirateke Gabonetako izpiritua deitzen dioten argi printza horren truke.

Gabonak: kontsumoa, dirua, tarifen igoera eta bonbillak. Hainbat hitz alperrik gauza bakarra esateko argi edo klaru: argi daukagun ez dakit seguru baina argia, argi mordoa, bauaukagu.

5 galdera...

Amaia Axpe

Euskara Saila
Aramaio

1. Zein euskal produktu opari egin dezakegu aurtenago Gabonetan?

Denetatik: musika, filmak, aldizkariak, liburuak, informatica, jostailuak eta jokoak.

2. Zelan eta non eskura ditzakegu produktuak? Garestiak dira?

Ohiko lekuetan eros ditzakezue: liburu-denda, musika-denda eta saltoki handietan. Debagoe-netik irten gabe eskura ditzakegu. Prezioari dagokionez, norberak baloratu beharko du zer den garestia eta zer ez. Egia da kultura eta aisialdia askotan garesti irudizen zaizkigula.

3. Zein izan da produktu horiek aukeratzeko arrazoia?

Momentu honetan merkaturan euskaraz dauden produktuak dira. Batzuk berri-berriak eta beste batzuk hain berriak ez izanda ere, onak diren produktuak. Haur eta gaztetxoendako produktuak aukeratzentzira batez ere. Gurasoei laguntzeko gida da, euren umeendako gomendagarriak diren produktuak eros ditzaten.

4. Aisialdia eta euskara lotu gura dituzue ekimen horrekin?

Euskaraz irakurri, euskaraz jolastu, euskaraz ikasi, euskaraz kantatu, euskaraz erosni nahi dugu... Azken finean, euskaraz bizi. Eta horretarako pauso bat gehiago besterik ez da hau. Bide batez, euskaraz sortzen dutenen erakusleihoa eta lagungarri ere bada, euskaraz sortzen dutenak behar ditugu euskaraz bizitzeko.

5. Noren ekimena da eta non eskura dezakegu katalogoa?

Euskal Herriko 96 udal, mankomunitate eta elkartek hartu du parte horren argitalpenean. Horien artean daude Debagoe-neko Mankomunitatea eta gure ibarreko udal guztia. Katalogoa etxez etxe do eskolan bantuako dute herriaren arabera. Bestela, helbide honetan ere aurki daiteke nahi izanez gero: www.katalogoa.org.



LANA > ZAZPI LANPOSTU BETETZEKO DEIALDIA EGIN DU UDALAK

Udalaren lanpostu finkoetarako 256 lagunek eman dute izena

Astelehenean argitaratuko dute onartu dituzten lagunen zerrenda, epaimahai-kideen izenak eta lehenengo azterketen data

UBANE MADERA > ARRASATE
Zazpi lanpostu finko betetzeko deialdia egin zuen Udalak azaroan: liburuzain bat, liburuzain laguntzailea, erizaina, arotza, delineatzailea eta bi udaltzain. Izenematea epea itxita dago, baina Correos bidez bidalitako zenbait eskaera jasotzen ibili dira oraingo astean.

Hori horrela, albiste hau idaztean (eguaztenean) 256 eskaera zitzuten jasota Udaleko Personal Sailean. Honela banatuta: liburuzain izateko 64 lagun; liburuzain laguntzaile izateko 87 lagun; arotza izateko 31 lagun;



GEHIEN Eskaera gehienak izan dira liburuzain eta liburuzain laguntzaile izateko; argazkian, Adela Bikandi liburuzaina.

betetzen dituzten eskatutako baldintzak. Horren ostean, argitaratu behar du onartutako eta onartu ez dituztenen zerrenda. Horrekin batera jakinarazi behar du azterketetarako epaimahai-kideen izenak eta baita lehen azterketaren data ere.

Hala, Udaletik esandakoaren arabera, oraindik ezin dute ezer aurreratu. Batetik, "oraindik Correos bidezko eskaera batzuk jasotzen gabiltzalako. Gabonetengatik edo, atzeratuta dabiltza Correosen. Adibidez, gaur (eguaztenea) hamar eskaera gehiago jaso ditugu erregistrotik".

Bestetik, epaimahai-kideen artean, Jaurlaritzako ordezkarriak egon behar dira (udaltzain izateko azterketen kasuan, Arkauteko ordezkarri bat). Eta horiek ere izendatu barik daudela esan dute Udaletik. "Dena den, pentsatzen dut astelehenerako eginda egongo dela".

Hori horrela bada, beraz, astelehenean jakinaraziko du Udalak, baita ere, noiz egingo duten lehenengo azterketa.

udaltzain izateko 30 eta erizain izateko 12 lagun. "Aurrekoan, erizain eta udaltzain izateko jende gehiagok eman zuen izena.

Akaso oraingo honetan Osakidezko azterketek izan dute era-ginen bat", adierazi dute Personal Saitetik.

AZTERKETA FINKATZEAR

Halakoetan ohi denez, izen guztia jaso eta gero, Udalak ikusi behar du ea izena eman dutenek

aukerak zabaltzen

Kontratupek
mugikorrak

LG KU311
hiru bandakoa
bluetooth-a
USB
mp3
kamera
p.el.
19€

Sony Ericsson K610i
hiru bandakoa
bluetooth-a
USB
mp3
kamera
p.el.
36€

3G

3G

**ROUTER
COMUNICACIONES, S.L**

Errebal, 15
Eibar
943 700 369

Maalako Errebala, 8
Arrasate
943 712 781

euskaltel

* Euskaltel Hautaketako edo Euskaltel Leihoko bezeroentzako PSPa, betiere 2006/12/31 baino lehen kontratatzeten badute ondoren ordaintzeko etxeko zerbitzua, 18 Kontratu Libreña edo goragoko kontratuarekin eta 18 hilabetetik irauteko konpromisoarekin. Gehienez 50 unitate.

-en Banatzaile Ofiziala



EPAITEGITIK Isidor Solupe (EAJ), Luis Urkiza (abokatua) eta Inazio Lakuntza. U.M.

EPAIKETA > HASI DA GELMAREN GAINeko EPAIKETA

Alkateak dio gauzak "garbi" geratu direla epailearen aurrean

Ines Aldaik lau grabazio eraman zituen: alkatea, Urdangarin, EAJ eta Urkizarekin egindakoak

UBANE MADERA > ARRASATE
Horixe izan zen asteleheneko argazkia: Inazio Lakuntza alkatea Bergarako epaitegian, inputatu moduan deklaratzen. Izan ere, hura, Jose Maria Loiti alkate ohia eta Obenerrekako enpresaburu Javier Guibert inputatura daude Gelmaren auzian. Kohetxoa (funtzionario-eroskeria), diru publikoa bidegabe era-biltzera eta prebarikazioa (euren eginkizuna ez betetzea) dira leporatzzen zaizkien delituak.

Berez, Lakuntzarekin batera Loitik ere deklaratu behar zuen, baina ezin izan dute aurkitu; horrenbestez, oraindik ez da deklaratzeria joan.

Bai izan zen, ordea, lekuko moduan EAJko zinegotzi ohi eta orain Talde Mistoko kide Ines Aldai eta akusazio partikular eta lekuko moduan izan zen EBko zinegotzi Ander Rodriguez.

EZUSTEKO: LAU GRABAZIO
Ezohiko argazkia ikustearaz gainera, ezusteko handia ere izan zen astelehenean: Ines Aldai zinegotziak lau elkarritzetaren grabazioa aurkeztu zuen frogamoduan: bata Inazio Lakuntza alkatearekin, bestea Luis Urki-

za aholkulari ekonomikoarekin, beste bat EAJren barruan izandakoa eta beste bat Hirigintzako teknikari-buru Juan Antonio Urdangarinarekin. Ikusi beharko da zein tratamendu ematen dien Bergarako instrukziozko bigarren zenbakiko epaileak.

DEKLARATU OSTEAN ESANDAKOAK
Deklaratu ostean, nork bere moduan interpretatu zuen ordura artekoa. Inazio Lakuntza, adibidez, lasai atera zen: "Oso ondo joan da. Gauzak oso garbi gelditu dira eta galderak ez dira izan horren zorrotzak; beti ibili dira ilegalitate mundu horretan, ea 2004ko hitzarmena nolakoa zen. Eta hori garbi zegoen eta ez nik esaten dudalako, baizik eta iaia indar politiko guztiak hori adierazi dute: 2004ko hitzarmeena guztiz legala zela, eta kito".

Rodriguezek, berriz, zera adierazi zuen: "Harrigarriena izan da galdeketan Lakuntzak *baloia kanpora* bota dituela, Hirigintzako zinegotzi Agustin Ugarteri bota dio errua eta ger-tatu denaren gainean ez zekiela ezer adierazi du". Dena den, EBko balorazio positiboa egin zuen "lehenengo pausoak" izan delako.

EKONOMIA > ARRASATEKO EGOERA SOZIOEKONOMIKOA

Jarduera-tasak gora egin du urteotan

Baina langabezia-tasak ere gora egin du; 2005ean %5,82 izan zen, ibarreko altuena. Eta Bergara zen bigarren, %5,71rekin

U.M. > ARRASATE
Arrasateko egoera sozioekonomikoaren argazkia erakutsi zuen atzo Udalak prentsurrekoan.

Azken bost urteotako azterketa sozioekonomikoa da; eta oro har, datuek erakusten dute Arrasateko ekonomia hazten doala. Hain justu ere, 2005ean, herriko jardueratasa %73,70 izan zen. Hau da, lanerako adinean zeuden hamar pertsonatik 7,4 lanean zebilen edo lan bila. Kooperativismoaren nagusitasuna ere agerian geratua Udalak batutako datuetan: 2001ean, langileen %23,04 kooperativistak ziren; laurdena, alegia.

Baina horrekin batera, Udalak egiaztatu du langabezia-tasak ere gora egin duela herrian. 2000n %3,73 zen eta 2005ean, berriz, %5,82. Horien artean, gainera, emakumeak ziren gehienak:

hamarretik sei. Dena den, horren harira, azken urteotan sexuen arteko desberdintasuna txikitu egin dela ere jaso du Udalak azterketa sozioekonomikoan.

ALDI BATERAKO KONTRATUAK
Kontratu motei begiratuta, 2006ko lehen hiruhilekoan egindako hamar kontratutik sei aldi baterakoak izan dira. Emakumeen kasuan, %69,6. Erdiak baino gehiago izan dira ostalaritzan jarduteko.

Sektore ekonomikoei dago-kienet, berriz, industriak duen garrantzia egiaztatu dute azterketan: herriko lanpostuen erdiak baino gehiago sortzen ditu.

Bestalde, egiaztatu dute, baita ere, geroago eta garrantzi handiagoa duela hirugarren sektoreak: komertzioek, %43,45. Dena den, azpimarratu dute sektore horren etorkizuna ziurtatzeko zenbait aspektu kontuan hartu beharko dituztela, eta aurre egin: besteak beste, herritarrek Arrasatetik kanpo egiten duten erosketa kopurua esanguratsua da. Hala, mehatxuetako bat da Arrasate inguruaren eurendako konpetentzia izan daitekeen gune komertzial berriak zabaltzea.

> KOMUNIKABIDEAK
Santamasetako gehigarria etxez etxe, eguztenean

Abenduaren 20an, Santamasetako bi egun falta direnean, GOIENKARIAK Santamas jaien gaineko gehigarria bantu du Arrasaten etxez etxe. Modu horretan, arrasatear guztiek esku artean izango dute Santamas egunean izango diren ekitaldi guztien informazio zabala eta zehatza. Protagonistekin elkarritzetak ere irakurri ahal izango dituzte, azokaren planoa ikusi, antzinako Santamasak gogoratu... Guztia 48 orriko gehigarri batean, 32 orri koloretan.

> PRESOAK
Bigarren eskuko jantzien azoka bihar eta etzi izango da

Portaloirak elkarrean bihar, zapatua, 10:00etan jarriko du bigarren eskuko jantzien azoka, Seber Altuben. 20:00ak arte eten barik izango dira han. Eta domekan ere ordutegi bera izango dute.

Iragarri dutenez, era guztietako jantziak ipiniko dituzte presoen alde dirua batzeko: "Oso politak" eta "oso merkeak". Ekimenean herritarren parte-hartzea eskatu dute.

Citroën C4 Picasso berria (7 eserleku) Visiospace

A black and white advertisement for the Citroën C4 Picasso. It features a side profile of the car, which is a five-door hatchback with a distinctive rounded roofline and sliding rear door. The car is shown from a three-quarter angle, highlighting its spacious interior through the open sliding door. The background is a soft-focus studio setting.

Zatoz probatzera!

Gabon jai zoriontsuak!

ETOR ZAITEZ: **TALLERES CHAPIME** Debagoieneko Citroën kontzesionario ofiziala
San Andres auzoa 5. Tel.: 943 79 45 22.

CITROËN CITROËN EDOZER EGIN DEZAKE ZUREGATIK

ANTZERKIA > SEXOLOGIAREN GAINeko ANTZEZLANA EGINGO DUTE AMAIA UDAL ANTZOKIAN

Sexologia Zerbitzuaren urteurrena dela eta, gaztetxekoek antzezlanan egingo dute

Sardina Bakalau taldeak 'Kitto!!!' antzezlanan eskainiko du hilaren 20an Amaia Udal Antzokian, 20:00etan; Beñat Zamalloa da lan horren zuzendaria

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Joan den urtean jaio zen AGAKOren baitan antzerki talde bat egiteko asmoa. Hala, gaztetxeen entseaten hasi eta Sardina Bakalau sortu zuten. San Juanetan *Mondra d'or* ikuskizuna egin zuten eta oso harrera ona izan zuen. Are gehiago, beste herri batzuetatik ere eskaerak jaso zituzten.

Aspaldian, beriz, beste lan bat daukate eskua artean. Horretarako, hainbat kasualitatek gertatu behar izan dute: Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuak Beñat Zamalloa aretxabaletarrari sexologiarengaineko ikuskizun bat egiteko eskaera egin zion. Lanpetuta zebilela-eta, gerorako utzi zuen, eta orain dela gutxi ideia batzuk bururatu zitzazkion.

Sasoi berean, Arrasateko gazttxeko lagun batek eskatu zien Sardina Bakalau taldekoei tailer bat emateko. Bada, taldea ezagutu zuenean konturatu zen gazttxekoak gai zirela ikuskizuna aurrera eramateko.



'MONDRA D'OR' Gazttxeko Sardina Bakalau taldeak San Juanetan egin zuen *Mondra D'or* ikuskizuna (argazkia).

SARDINA BAKALAU

Hala, maiatzetik irailera bitartean hainbat alditan elkartu ziren antzerkiko oinarriak ikasi eta ikuskizuneko pertsonaiak asmatzeko. Bitartean, Zamalloak gidoia idatzi zuen eta opor ostetik hona ikuskizuna entseaten dihardute.

SEXOLOGIA 'ADITUAK'
Datorren egunean, hilaren 20an, izango da ikuskizuna Amaia Udal Antzokian, 20:00etan. Zortzi aktore arituko dira taula gainean. Atzean Beñat Zamalloa izango da.

Sexologia ikasketak bukatu dituen lagun talde bat parkean

elkartu da; izan ere, biharamunean Kubara bidaia egiteko asmoa dute.

Oso lagun talde berezia da: apaiz bat, ninfomano bat, orain arte sexu harremanik izan ez duen bat, daukan kulturarengaitik sexua saihesten duen beste

bat, putazale bat, bi biki saltse-ro, eta abar.

Sexualitatearen gainean aritu dira, eta etorkizunean pensatzen dutenean kontsulta bat irudikatuko dute. Umorea, dramatizazioa eta beste elementu batzuk uztartuko dituzte.



J.A. ARETA GOÑI 'JUXE'

Flaming Groovies gogoan, Roy Loneyrekin

Bihar, zapatua, Roy Loney handiak, Flaming Groovies taldeko abeslari ohiak, Euskal Herriko kontzertzua bakarra egingo du Arrasateko 3.60 aretoan. Señor No taldeko musikariak izango ditu lagun, eta horren aurrerik Madrilgo Los Chicos eta Donostiarra Nuevo Catecismo Catolico taldeek ere omenaldia egingo diote Loneyri.

Loney AE Betako Flaming Groovies taldeko abeslari izan zen 1965etik 1971ra bitartean; *Teenage Head* eta halako harribitxiak grabatu zituen.

AISIALDIA > JOSTAILU TRUKE MERKATUA

Jostailu Truke Merkatua egingo dute aste bukaieran

Gaur, egubakoitza, eta bihar egingo dute AEDko lokalean, arratsaldez

I.B.> ARRASATE

Gaur, egubakoitza, eta zapatuan Jostailu Truke Merkatua egingo du Txatxilipurdi elkarrekin. Hirugaran aldia da ekinmen hori abiarazten dutena, eta, hain justu, 3 eta 12 urte bitarteoendako da.

Azaroan eta abenduan Txatxilipurdiko lagunak jostailuak batzen ibili dira herriko auzotan eta erdigunean. Jostailu ugari batu dituzte, eta aste bukaieran truke merkatua jarriko dute AEDk Pablo Urangan duen txokoan. Gaur, egubakoitza,

eta zapatuan egongo da zabalik, arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

JOSTAILUEN BERRERABILPENA

Txatxilipurdik orain dela 3 urte sortu zuen truke merkatu hori. Ekimenak bi helburu nagusi ditu: Gabonetako gehiegizko kontsumoa mugatzea eta jostailuen berrerabilpena bultzatzea, hain zuzen ere.

Jostailuak aukeratzeko orduan, Txatxilipurdik kontuan hartu du horiek belikoak ez izatea eta sexu bereizketarik ez egitea. Horrez gain, jostailu elektronikoak martxan dabiltsan probatu dute.

Aurreko urtean, adibidez, 170 bat jostailu batu zituzten azokarako. Oraingoan ere kopuru polita lortu dutela jakinari-zi digute.

Aurtengo Gabonetan opari egizu... **OSASUNA**

FISIOTERAPIA SAIOAK OPARI ITZAZU.

Bizkarreko edo bestelako minak hobetzeko.

Urte osoko tentsioa gorputzetik kentzeko.

Gorputzak mimatzea merezi duelako.

Arrasaten:




Lapurdi kalea 4
943 79 97 44

Bergaran:



ione moñux
fisioterapia zentroa

Burdinate 2
943 76 21 31



GRUPO ARKAUZ
ARETXABAleta 1950 • 2006 ARRASATE

RKAUZ
ELECTRODOMÉSTICOS
Andramari auzunea
Tel./Fax: 943 79 10 97
ARETXABAleta

ETXE MOBEL
ALTZARIA 44
Araba etorbidea 5
Tel./Fax: 943 79 41 82
ARRASATE

RKAUZ
COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Fax: 943 77 04 55
ARETXABAleta

RKAUZ
MUEBLES
Araba etorbidea 20
Tel./Fax: 943 79 23 51
ARETXABAleta

Lagunen aurrean ederto gelditu nahian?
Har ezazu lasaitasun!
Arkauz etxeak eskainitakoarekin txundituta geldituko dira.

Arkauz zure etxea da.

> BESAIDE ME
Eguaztenean amaituko da beka eskatzeko epea

Besaide Mendi Elkarteak 50 urte egin dituela ospatzeko mendi taldearen historia kontatuko duen liburua argitatu gura du. Horretarako, Besaidekoek beka jarri dute abian.

Eta, datorren eguztenean baino lehenago egin behar da, Besaideko egoitzan, beka eskaria. Horretarako, interesatuek ahalik eta proiektu zehatzena aurkeztu beharko dute. Informazio gehiago 943-77 30 66 telefono zenbakian.

> ESKUBALOIA
Ford Mugarririk etxeko lanak eginda hasiko du bigarren itzulia

Arrasateko eskubaloi taldeak Portugaleteren kontra hasiko du oraingo asteburuan bigarren itzulia. Hala, Basauriko kantxan beste ezusteko bat eman eta gero (29-32), uste baino hobeto hasiko dute bigarren itzulia, 14 puntu batuta.

Beñardo Balerdik *Asteleheneko Goienkaria*-ri esandako moduan, bigarren itzulirako taldeak ahalik eta goren sailkatzeke helburuarekin ekingo du urtea.

ATLETISMOA > SANTAMASETAKO KROSA

Koadrilek domekan dute krosarekin hitzordua

11:30ean hasiko dira geroago eta jarraitzaile gehiago dituzten gaztetxoen lasterketak; koadrilen arteko proba, beriz, 12:30ean hasiko da

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Arrasate Atletiko Taldeak antolatuta, domekan 29 urte egingo ditu Santamasetako krosak. Eta, azken urteotako probek erakutsi dute sasoibetean dagoen lasterketa dela. Hala, aurten ere 11:30ean hasiko dituzte gaztetxoen lasterketak, eta 12:30ean koadrilen proba.

NAGUSIETAN, 78 LAGUN
Joan den urtean 90 gaztetxo ibili baziren korrika, nagusien proban 78 herritarrek hartzutzen esku. Aritz Kortabarria eta Zuhaitz Ezpeleta izan ziren azkarenak; eskutik helduta helmugarratu ziren Antxintxikako biak



SARIA Koadrila azkarrenak bildotsa eramango du etxera.

GOIENKARIA

(20:05). Koadriletan, beriz, Tríkimasako lagunendako izan zen bildotsa, eta Mari Fran Alonsok egin zuen nesketa marka one- na (25:29). Domekako lasterketa- ri dagokionez, aldaketa gutxi izango da: Seber Altuben hasi eta Herriko Plazan amaituko dute.

futbitoa zaldibar

PARTIDUAK

Abenduak 16, zapatau	Epaileak
11:00 Mc Awen Dauen-Iluntz.	Antol.
12:00 Lasagabaster-Equs	Antol.
13:00 Abokajarro-Omu Dribling	Antol.
15:50 Man, Pippol-Iturrioz tab.	Antol.
17:00 Saukelu Abian-Billy & The...	Antol.

Abenduak 17, domeka

10:50 THC-HLB 108	Antol.
12:00 Cicatrus-Betrayer	Antol.
13:00 Cicatrus-Betrayer	Antol.

SAILKAPENA

	P	J
1. Saukelu Abian.....	16	6
2. Iluntz	16	6
3. HLB 108.....	15	6
4. Betrayer.....	13	6
5. Omu Dribling.....	12	6
6. AT Celaya.....	11	6
7. Manhattan Pippol.....	10	6
8. Cipris	10	6
9. Lasagabaster.....	9	6
10. Abokajarro	9	6
11. Mc Awen Dauen.....	8	6
12. Billy & The Cowboys.....	7	6
13. Dublin Irish Pub	6	6
14. Iriztu Taberna.....	5	6
15. Iturrioz Taberna.....	4	6
16. Equus	3	6
17. THC	1	6
18. Cicatrus	0	6

Kopako final zortzirenak jokoan

Liga txapelketa alde batera utzi eta asteburuauan Kopari helduko diote Zaldibarren, final zortzirenei. Gainera, 2006ko azken jardunaldia jokatuko dute asteburuan.

angela

Estetika & Gorpuzkako Zentroa

ARGALTZEA ETA GORPUTZA ITXURAZ HOBETZEA

Iturrioz, 35
20500 Arrasate (Gipuzkoa)
T. 607 596 429
info@angelaestetika.net
www.angelaestetika.net

**20 saiotan
ALDEA IGARRIKO DUZU**

LPG DA GURE AZKEN BERRIKUNTZA

Zelulitisa kendu eta gorputza itxuraz hobetu
Larruzalaren erlaxazioa
Zelulitis biguna
Ebakuntza ostekoa
Erlaxazioa

**Aurkezpen promozioa:
600€ x 20 saio**

Gure dietisten aholkularitza espezializatua zure zerbitzura.

bote prontuen

Unai Diez > Mondrako zuzendaritza taldeko kidie

"Jokalarixek ondo egingo leukie talue"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Santamas egunien justu-justu aillegauko da kua-drillako bazkarire. Izen be, Unai Diezek 150 kilo-metro inguru egin biherko dau Mendabiatic (Nafarroa) Mondraguera etorteko. Tuterako ikas-tolako zuzendariz izetiek ez dutzo kentzen den-porrik Lore Gazteak dantzat taldeko kide eta Mon-drako zuzendaritza taldien egoteko. Barre eg-itzen dau, baiñe, distantziara egitten dauelako horrek biherrok.

Santamas egunien ez zara ferixara aille-gauko.

Ez, 13:00ak aldera urtengo dot Menda-biatik, eta ordu eta erdi biherko dot Mondraguera aillegetako. Bazkaiteko aillegauko naz, justo-justo, baiñe ez dust ardura, kuadrillakuen artien be nahiko ganau izengo dou-eta.

Tuterako Ikastolako zuzendarixe izenda, honezkero euskal dantzak derrigorrezko ikasgai izengo die, ala?

Neuk dauketen taldiekin ahaleginketan naz euskal dantzak erakusten, eta ibiltzen gare, bai. Txikiñetin ibiltzen gare onduen.



Enpresa bat sortu gure dot, koadrillen baz-karixek eta afarixek organizauko daue-na. Baiñe sozio bille nabil.

(Barre). Egixe da holakuek organizetie gustau egiten jatela, Marixekean egitten dogun egin-pasie... Baiñe zaletasun hori lan bihurtuko balitz grazia dana galduko leuke, ez geuke horren gustora egingo.

Santamas egunien Mondrako jokalari-xek gure dot kalien ikusi, taluek egitten. Kluban aurrekontue borobilketako modu ona izengo litzake.

Ba bai, ondo egongo litzake. Taluek egitten, dantzan, jaixetako ekintzetan murgildutte. Gaiñera, jokalarixek ondo egingo leukie talue, onak die eskulanetan.

Zer gureu? Bizperan juergie egindde feri-xara ahal dan moduen juetie ala indderrak Santamas egunerako gordetie?

Egun luzie izeten da, eta hobe da aurreko gabien bueltatxo bat emutera urten, baiñe formal ibilttie.

Bai, baiñe ze gatxa dan hori...

bere ustez



Ander Etxeberria

Santa Klausek ho, ho, ho egiten duenean

Gutxi dela Bernardo Atxaga egon zen gurean. Arizmendiarietaren ome-nezko topaketan bere Euskal Hiria izan zuen mintzagai. Esan zuen, Euskal Hirian dagoen arazo bat dela identitatea eta arrazoi ekonomikoaren arteko txokea.

Egunotan, ageri agerian dago talka horren aurpegi bat. Etxera datorren publizitate askotan Santa Klaus dago Gabonetako ikono bezala. Inbasioa oso zabala da: iragarkietan, dendetan eta, azken urteetan, baita etxe partikula-

"Hemen Olentzero daukagu eta ez dago Santa Klaus edo antzerako beharrik"

Mesedeetako Andra Mari Ikastolako 30 neska-mutiko izan ziren Donostian abesten

Joan den domekan izan ziren Mese-deetako Andra Mari Ikastolako ikas-leak Donostian, kantuan. Edorta Ayastuik zuzentzen duen koroko neska-mutikoak ibili ziren jo eta ke kantuan, eta esan digutenez, Donos-tia aldean lan txukuna egin eta gero itzuli ziren Arrasatera. Ez dugu esan-go Kursaal auditorioan zeuden ikus-le guztiak zutik agurtu zituztela, ez gara pasatuko, baina bai neurrian abestu zutela. Izan ere, ikastetxe horretan urteak daramatzate koro-an lanean, eta taula gainera igotze-rakoan lehenagotik egindako lana igarri egiten da. Gabonak gainean, kantuan jarraitzeko egun ezin apro-posoak dituzte aurrean.



rretan balkoitik sartu nahian.


Estatuko beste lurralde batzutan bidea errazagoa dauka. Gero eta gehiago entzuten ari naiz Santa Klausek ematen dituela Gabonetako opariak. Erregeak oporen amaieran datozenet, abenduaren 24an familiako norbaitek traje zuri gorria eta bizarre janzen ditu erregaluak banatzeko.

Hemen, ordea, Olentzero daukagu eta ez dago Santa Klaus edo antzerako beharrik. Kanpoko eragina itzelezkoia izanik, arrotzaren presen-tzia ez litzateke hain handia izango bertakoak horren gogo-tsua jokoan sartuko ez bagina.

Iruditzen zait Santa Klausek ho, ho, ho egiten duen bakoitzean besoa erdi luzatuta eta hatz luzea tente duela egiten digula.



OINETAKOAK



Erosketa egiterakoan kupoi hau aurkezten baduzu, %10eko deskontua egingo dizugu.

* Promozio honek abenduaren 23ra arte balio du.

Gabon zoriontsuak!

ZERBITZUAK > EKAINERAKO ZABALDU NAHI DUTE EROSKI BERRIA

Ondartza ondoko zubitik bidea egingo dute Eroskiko supermerkatura sartzeko

Herriko dendariek erakusleihotako argiak itzalita izango dituzte asteburuan, merkatari eta etxeak, eraikitzeak, erdigunean eraikitzeko eskatzeo

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Leizeaga industriaguneko Eroski berria Orni enpresa egondako tokian egongo da, eraikin berean, Eroskiko iturriek adierazi dutenez. Supermerkatu berri horrek bi sarrera izango ditu: "Zubitik bide berria egingo dugu eta handik sartuko dira saihes-bidetik datozen ibilgailu txikiak; handiak orain arteko tokitik sartuko dira. Irteera ere handik izango da", dio Hirigintzako Josean Etxeberriak. Orni barrukoa Center supermerkatua izango da, 1.500 metro koadro izango ditu



OBRAK Ekainean zabaldu nahi dute Eroski berria eta dagoeneko hasi dira obrak egiten.

O.E.

dendak eta jatekoak bakarrik salduko dute. Carpinas, berriak, botak egin dute. Enpresa biak San Juan go industriagunean daude orain.

Dendaren ondoan, 120 ibilgailuren dako aparkaleku egingo dute. 1,5 milioi euro ibertituko ditu Eroskik proiektuan.

ERAKUSLEIHOETAN ARGIRIK EZ
Herriko dendariek, bestalde, erakusleihotako argiak itzaliko dituzte asteburuan, merkatari-

tza-etaek erdigunean jartzeko eskatzeo. Aste barruan ere aldarrikapen hori jaso dute dendetan jarritako karteletan.

Matxiategin ziburu berriak dituzte jolasteko

Herriko auzo eta kaleetan ziburu berriak jarri nahi ditu Udalak, eta horretan ari dira. Matxiategi kalean, adibidez, jarri dituzte ziburu berriak. Espoloian ere zaharrak kendu dituzte eta laster jarriko dituzte berriak. Lehen fase horretan, Gorlan, Bolun eta Labegarietan ere jarriko dituzte, eta bigarren fasean Martokoan, Osintxun eta Angiozarren.



OIHANA ELORTZA

ELKARTASUNA > ARIANERI LAGUNTZA

Emandako laguntza eskertu nahi du Arianeren familiak

Astebururako antolatuta zuten kontzertua bertan behera gelditu da

O.E. > BERGARA
Hilaren 5ean hil zen Ariane Lowe Tabuenka neskatila eta bere senideek eskerrak eman nahi dizkiete minbiziai aurre egiteko egindako diru bilketan lagundu duten herritar eta talde guztiei. Eneko Tabuenka Arianeren osabak kontatu digu-

nez, "Ariane ez zegoen Alemania iraino joateko moduan eta tratamendua etxean aplikatu zioten. Baino okerrera egin zuen. Ospitalera eraman zuten eta bizpahiru ordu koman egin ostein hil egin zen". Haren aldeko hileta eguztenean, abenduak 13, egin dute, Inglaterran. "Arrebaren asmoa da gorputua erretzea eta errautsak Bergarara ekartzea. Hemen ere egingo diogu hileta elizkizuna, ziurrenik", dio osabak. Asteburu honetarako kontzertua zuten antolatuta Arianeri laguntzeko, baina bertan behera gelditu da.



ASPACE
Otxirondo 3 Bergara • Tel.: 943 31 28 33

Aukera zabala saskietan
Salmenta zuzena
Enkarguak ere hartzen dira

Gabonetan opari berezia egizu!

Ordutegia
Abenduaren 11tik 22ra
Astelehenetik ostiraleera 09:30-19:45
(urtean zehar 08:45-16:45)



> LEHIAKETA
**Jaiotzen lehiaketa
antolatu du Gure
Ametsa elkarrean**

Jaiotza eramangarrien bosgarren lehiaketa antolatu du aurtengo Gabonetarako Gure Ametsa elkarrean gastronomikoak. Jaiotzek 30 eta 80 cm. arteko oinarri sendoak izan behar dituzte alde bakotzean. Edozeinek har dezake parte. Abenduaren 22an, egubakoitzaz, eraman behar dira jaiotzak Gure Ametsa elkarrean; sariak hurrengo egunean banatuko dituzte San Antonioko plaza txikian. Bestalde, hilaren 23an, zapatua, Gabonetako hirugarren azoka egingo du elkarrean.

> HITZALDIA
**Euskaraz ez dakiten
gurasoek nola
lagundu seme-alabei**

Euskaraz ez jakin arren euskaraz dakiten seme-alabei nola lagun diezaieketen azalatzeko hitzaldia antolatu du Jardun elkarrean hurrengo eguztelerako. Hitzaldia espainolez izango da eta Iñaki Eizmendik eta Julio Ibarra kazetariak hitz egingo dute. Ibarrak bere esperientzia kontatuko du. Hain zuzen ere, *No sabemos euskara... ¿cómo podemos ayudar a nuestros hijos?* da hitzaldia izena eta kultura etxean da hilaren 20an, 18:30ean.

> OSASUNA
**Esklerosi anitza zer
den azalatzeko
mahaia jarriko dute**

Esklerosi anitza zer den azalatzeko informazio mahaia jarriko dute zapatuan herriko plazan, 10:00etik 13:00era. Gipuzkoako esklerosi anitzaren gaineko elkarteko kide batzuk jarriko dute informazio mahai hori eta gaixotasunari buruzko argibideak emango dituzte. Horrekin batera dirua batzeko kutzak ere jarriko dituzte.

Datorren astelehenean, hilak 18, da esklerosi anitzaren nazioarteko eguna.

ELKARTASUNA > SAHARAREN ALDEKO KARABANA

Jakiak eta konpresak Saharara bidaltzeko

Atuna oliotan, arroza,
dilistak eta konpresak
jasoko dituzte janari
dendetan
astelehenetik aurrera

OIHANA ELORTZA > BERGARA
Sahararen aldeko III. euskal karabana martxan jarri du herri sahararraren aldeko euskal elkarrean. Bergaran ere, Bubisherren eskutik, karabana horretan bidaiko dituzten jakiak batuko dituzte. Astelehenean, abenduaren 18an, abiaraziko dute kanpaina Bergaran eta herriko janari dendetan kaxa bereziak jarriko dituzte Saharara bidaltzeko produktuak jasotzeko.

JASOTAKOA, TINDOUFERAKO
"Urtero produktu jakin batzuk biltzen ditugu Saharara bidaltzeko, eta aurten, beharrei begiratuta, aukeratu ditugu: arroza, dilistak, atuna oliotan eta konpresak", dio Bibi Anduezak, Bubisher elkarteko kideak. Otsalean



TINDOUF Tindoufeko kanpamentuetara eramango dute jasotakoak.

BUBISHER

aterako da karabana Euskal Herriko Saharara. Produktuak batzearen helburua da sahararrei ahalik eta elikagai gehien eramatea, Tindoufeko kanpamentuetan duten elikagai falta konponatzeko asmoz.

LAGUNTZA EKONOMIKOA
Ekonomikoki lagundu nahi dute nendako, kontu korronte zenbaiki bat zabaldutako Euskadiko Kutxan. Harremanetarako eta edozein informazioetako Gipuzkoako telefonoa da: 619 02 97 48.


Gasparreko garajeak hasi dira botatzen

Hasi dira Gaspar jatetxearen ondoan dagoen garajeen eraikina botatzen. Saparde gastronomia elkarteko parra ere abenduan botako dute. Horixe izango da Domingo Irala kalea berriztatzeako egin beharreko lehen pausoak. Gabonen ostean, kaleko lurra altzatzen hasiko dira lurzorua berria jartzeko. Proiektuak 2,2 milioiko aurrekontua du.



OIHANA ELORTZA

OGIZUN koop. elk. okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

bere ustez



Iñigo Iñurrategi

Gauza
txikixekekin
gozatzen

Edurra mara-mara dihar du kanpuan. Udazkeneko lehenengo edurtia. Sutara beste egur bat. Bailaratik irten barik bertako gain batian gare. Baña egunero-kuakin etena erabatekua da. Agenda, telefono, bilera... danak behian lagata igo gara mendira. Hurrian egonda urrin gare. Arratsaldia sutonduan egin dogu. Barriketia. Tarteka isiltasuna, txinparta eta sugar hotza. Gustora, suari begira, belaunaldiz belaunaldi errituan, antziñakuen begirada eta misterixuakuen.

**"Honek ez dauka
salgai jartzen
doskuen
zoriontasunakin zer
ikusirik"**

Erlojuak traba eitten dau hemen. Eguzkixak, tripiak eta loguriak agintzen dabe. Gaintontzian, denboria geuria da. Lasaitasuna eta bakia. Kanpuan eta barruan. Haize arinanak elur malutak biltzen dittu kristalian. Hotza ikustiaz bat sutondora arrimatzen gara.

Zorioneko gu, suari begira. Honek ez dauka internet, telebista, irrati, megadenda eta buzoieta salgai jartzen doskuen plastikozko zoriontasunakin zer ikusirik. Honek ez dauka preziorik. Hau ez dago salgai. Eta danon esku dago. Ez dogu askorik bihar. Edo bai: denboria hartzeko, lagunak sentitzeko eta gauza txikixekekin gozatzeko gogoa...

Edurra mara-mara dihar du kanpuan. Berriro egur bila. Bazterrak zuritu die, negu miñez.

MUSIKA > UDAZKEN KULTURALA

Bergarako Orfeoiak eta Gaberok emanaldia egingo dute bihar, zapatua

Aurretik, Orfeoi Txikiak lehenbiziko emanaldia egingo du zapatuan, Musika Eskolako abesbatzarekin batera; Mariaren Lagundian izango da kontzertua

EDU MENDIBIL > BERGARA

Udaazken Kulturaleko programazioarekin jarraituz, Bergarako Orfeoiaren, Gabero abesbatzaren, Musika Eskolako abesbatzaren eta Orfeoi Txikiaren emanaldia izango da bihar, zapatua, Mariaren Lagundiko elizan.

Emanaldia 19:00etan hasiko da: Orfeoi Txikia eta Musika Eskolako abesbatza izango dira taula gainean. Hain zuzen ere, Orfeoi Txikiaren estreinaldia izango da. 6 eta 12 urte bitarteko 40 gaztetxo ari dira taldean. Martitzenean egiten dituzte entseguak.



ORFEOI TXIKIA 6 urtetik 12 urtera bitarteko 40 gaztetxo ari dira taldean. Martitzenean egiten dituzte entseguak.

E.M.

eta *Titus igela* (Kantiruri) kantatuko dituzte. Musika Eskolako abesbatzak, Cristina Larrañagaren zuzendaritzapean, lau pieza eskainiko ditu; bederatzi musika-

riz osatutako taldea arituko da haietan. Gabero abesbatzaren emanaldia izango da jarraian. Eta, azkenik, hiru abesbatzek, elkarrekin, *Nere herriko neskatzxa*

maite, Nesipono eta Hator-Hator abestuko dituzte.

Kontzertuaren bigarren zatian, 20:15ean, Gaberok eta Bergarako Orfeoiak ondoko piezak

eskainiko dituzte: *Es ist ein Ros Entsprungen, Lantzarena, Arrateko, Bart hamarretan, Leixibatxoa* (azken lauak David Azurtzarenak), *Cant De Nadal, Oi Bethleem, White Christmas* eta *Hator-Hator*.

KONTZERTUA MARTITZENEAN

Era berean, martitzenean, hilaren 19an, Bergarako Musika Eskolako taldeen kontzertua izango da Udal Pilotaleku, 19:00etan. Suzuki taldeko biolin jole gaztetxoek, haurren abesbatzak, akordeoi orkestrak, gazteen bandak eta orkestra sinfonikoak hartuko dute parte eta Musika Eskolako irakasleek ere pieza bat eskainiko dute, *The Simpsons* telesailekoak.

Amaieran, hizkuntza musikaleko eta koraleko ikasleak talde guztiekin elkartuko dira, azken obra eskaintzeko. Warren Barker konpositoreak moldatutako *A Christmas serenade* lana eskainiko dute. Guztira, 300 lagun inguru hartuko dute parte martitzeneko emanaldian. Tere Arantzia bria arituko da aurkezle lanetan.

> JARDUN

Amodiozko gutunen lehiaketarako lanak eta SMS mezuak urtarrilaren 7ra arte jasoko dituzte

Jardun elkarrekin amodiozko gutunen XV. ekitaldia deitu du. 1992an edo lehenago jaiotako edozeinek har dezake parte lehiaketan. Ira-bazleak 450 euroko saria jasoko du eta beste 490 euro banatuko dituzte saritan. Lanak urtarrilaren 7ra arte jasoko dira eta sari banaketa ekitaldia otsailaren 14an egingo da.

Era berean, SMS bidezko lehiaketa izango da aurten ere. 90 euro eskuratuko du mezurik onenak. Mezuak 605 71 24 69 telefono zenbakira edo *kulturajardin@topagunea.com* posta elektronika bidali beharko dira. Argibideak Jardunen, Errotalde jauregian, edo 943 76 08 19 telefono zenbakian.

> IKASTAROAK > KULTURA ZERBITZUA

Sabel dantza eta sukaldaritzaritza begetarianoa ikasteko aukera, urtarriletik aurrera

Eskolak martxora bitartean izango dira, astean behin, bi orduz, eta izenematea zabalik dago Udaleko Kultura Zerbitzuan

E.M. > BERGARA

Udaleko Kultura Zerbitzuak bi ikastaro iragarri ditu urtarriletik: sabel dantza ikastaroa batek eta sukaldaritzaritza begetarianoa eta nutrizioa bestetik.

Sabel dantza ikastaroa (hasiera maila) urtarriletik martxora bitarteko egubakoitzetan emango du Jaione Albenizek. Eskolak Agorrosin kirolgunean izango dira, 18:30etik 20:30era. Ikastaroa urtarrilaren 12an hasiko da. Amaitutakoan, ika-sitakoa sakontzeko aukera izango dute interesatuek: hobekunta ikastaroa egingo da apirilek ikainera.

SUKALDARITZA BEGETARIANOA

Sukaldaritzaritza begetarianoa eta nutrizioa ikastaroari dagokionez, Mireia Alberdik eta Jesus



SUKALDARITZA ETA NUTRIZIOA Teoria eta praktika uztartuko dituzte.

GOIENKARIA

Mari Kalboetxeagak emango dute, urtarrilaren 10ean hasita. Eguaztenetan izango dira klaseak, 18:30etik 20:30era. Teoria eta praktika uztartuko dituzte Kalboetxeagak eta Alberdik.

Izenematea zabalik dago Udaleko Kultura Zerbitzuan. Plaza mugatuak izango dira eta zehaztutako kopurua gaindituz gero, zozketa egingo da izena eman dutenen artean partaideak norantzuk izango diren erabakitzeko.

Edozelan ere, bergararrek lehen-tasuna izango dute ikastaroetan parte hartzeko. Prezioari dago-kionez, hileko 15 euro izango dira Bergaran erroldatutakoendako; Bergaratik kanpo erroldatutakoek hilean 20 euro ordaindu beharko dituzte.

Izena emateko edo argibide-tarako Udaleko Kultura Zerbitzura (Errotalde jauregian) edo 943 77 91 58 telefono zenbakira jo dezakezue.

Herran BERGARA

Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4 • 943 76 37 53




ZABALA OPTIKA

Iñigo Zabala Optiko Optometrista

Barrenkale 25, Bergara • Tel.: 943 76 16 97

Gabonetako opariak



VERSACE

Iñigok eta Amaiak Gabon zoriontsuak opa dizkizuite



GABONETAKO ESKAINTZAK

Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

MIRARI JANTZI DENDAK
GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!

> FUTBOLA > ERREGIONAL MAILA

Bergarak Lagun Onak hartuko du bihar

Bergarako taldeak etxean itxura ona emanda gura dio esan agur urteari

Bosgarren postuan egonda, lider dagoen Tolosa lau puntura baino ez dago

XABIER URTZELAI > BERGARA

Uste baino gehiago kosta zaio Bergarari erregionalean aurreko postuetara gerturatzea, baina Neka Galan eta Nedza Zivojevicen multilak badoaz txapelketari neurria hartzen. Aurten, jokalari gazteekin betetako taldea sortu dute, eta Galanek dioen moduan, "taldeari etekina ateratzeko denbora behar zen". Orain, badirudi Bergarak lortu duela oinarri sendoagoa: "Egia esateko, bi norgehiagoka baino ez ditugu galdut, lider dagoen Tolosak moduan. Dena dela, Tolosak gure kontra 1-3ko emaitzari buelta eman zion, eta Elgoibarrek ere

90. minutuan egin zigun banakoa. Alde egin diguten puntu horientzatik ez balitz...". Hala ere, Bergarako entrenatzaileak ez du gustuko egin ez denari begira egotea: "Horrelakoetatik ikasi egin behar da, baina ez behin eta berriro atzera begira egon. Izan ere, partidu asko irabazi ditugu guk oso txarto jokatuta, eta orduan ez dugu ezer esan".

ETXEKO ZALEEN AURREAN

Orduan gura dute mahoneroek ondo jokatu, etxean itxura ona erakutsi: "Taldeak igartzen du presio hori dagoela, Agorrosinen ondo jokatu gura dugula.



AGIRREZBAL Segurako kontrarioa gainean duela, Agorrosinen.

I.A.

Hala, azkeneko norgehiagokan nahiko ondo jokatuta irabazi genuen, baina egia da aurreko partiduetan negargarri ibili garela, batere jokatu barik".

Bergarak bihar du urtea ondo amaitzeko aukera: "Urtarrilaren zazpira arte atsedena izango dugu, eta biharko norgehiagoka irabaztea oso garrantzitsua izango da guretako". Sailkapenean atzerago dagoen Lagun Onak izango da Agorrosinen (15:30): "Egia esateko, Nedzak eta biok ez

dugu gustuko sailkapenari begira egon eta kontrarioak zer egin duen etengabe aztertzea: "Ez dakit hori oso lagungarria den, kontrarioa okerrago dagoela ikustera-koan posible delako taldea lasai-tuta zelairatzea, eta hori da gura ez duguna".

BTLS-K ZESTOA HARTUKO DU

Bigarren erregionalean, BTLS taldeak azkeneko postuan dagoen Zestoa hartuko du zapatu ilun-keran Ipintzan (19:30).

Martitzenean gaztetxoenek bete zuten Udal Pilotalekua

Euskal soin jardueren barruan, martitzenean ehunka neska-mutiko izan ziren Bergarako pilotalekuak, pilotak eskaintzen dituen modalitate guztietan lehian. Ikastolako zein ikastetxe publikoetako gaztetxoek esku pilotan, zesta-puntan, sarean, eta horren ezagunak ez diren beste joko batzuetan jardun zuten. Ondo pasatu gura bazuten, erretretuak erakusten du helburua bete zutela.



X.U.

> KIROLDEGIA
Pilotalekuak alokatzeko izenemate epea zabalik dago

Bergarako Udal Pilotalekuak urte osorako alokatu gura duenak argi ibili beharko du, oraingo domeka da-eta, hilak 17, hori egiteko azken eguna. Arduradunek izen guztiak batu eta gero, eskaera handia dagoen aukeretan zozketa egingo dute, eta ordutegi guztiak zehaztu.

Esandako moduan, dome-kara arte dago izena emateko aukera, eta horretarako, interesatuek Agorrosingo kirol bulego berrietara joan beharko dute. 943-77 70 95 telefono zenbakian izango duzue informazio gehiago, edo bestela idatzi agorrosin@bergara.net helbide elektronikora.

Iabegaraieta

PARTIDUAK

Abenduak 17, domeka, barruan Epaileak
10:00 Errtagain-Komando Pip. Teatekh
11:00 Belengua-Teatekh Komando Pip.
12:00 Altosportos-Komando Pip. Belengua
Atsedena: Irish Pub eta Niu Tim.

SAILKAPENA

	P	J
1. Niu Tim	21	7
2. Errrotagain.....	18	6
3. Irish Pub	15	7
4. Altosportos.....	15	7
5. Tiki Taka	9	8
6. Teatekh	9	6
7. Belengua	6	6
8. Komando Piperrak	3	6
9. Irubide	3	6
10. Tornilleria Deba	0	7
11. Azkenak.....	0	0

Asteburua eta gero, hiru asteko atsedena

Azkenak taldeak gainontzeko taldeek baino deskantsu luzeagoa izango du, txapelketatik kanko geratu delako. Hala, jakin talde horren kontra erdietsitako puntuek ez dutela balio izango. Urteko azken jardunaldia jokatuta, urtarriaren 13an itzuliko da txapelketa. Hiru asteko oporraldia izango dute, horrenbestez.

JOXAN ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

KONDE PANADEROKUA



Burdinatxe 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

Olentzero, Olentzero, gure etxian saldia bero...



Abenduaren 21ean, arratsaldeko 15:15ean,
Haur Hezkuntzako Gabonetako Jaialdia, Eskolako aretoan.



Abenduaren 24an, 11:00etan,
Eskolan elkartuko gara Olentzerorekin irtetzeko.



ETORRI GUREKIN!

SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA - HHE-EPA

Bergarako ikastetxe publikoak



San Martin Agirre
herri eskola

Aurten, Errege gaua gurean ospatu!



LASA jatetxea
Ozaeta jauregia
Tel.: 943 76 10 55
BERGARA



FHYSIO PILATES ESTUDIOA & BIZKAR ESKOLA - TAICHI

- **Monitoreak nazioarteko ziurtagiriarekin**
- **Pilatesa aparailuekin egiten aitzindariak**
- **Banakako eskolak eta talde murriztuak**



Abenduan 15ian, Beinkek 20 urte!!

17:30: "Kutxidazu bidea, Ixabel" antzerkia Ludotekako artisten eskutik. Kurtzebarri eskolako aretoan.

18:00: Buruhaundixak umiendako Loramendi parian hasitta.

18:30: Txokolate berua gailetekin Herriko plazan mundu guztixandako.

19:00: Beinke-Loramendi dantza Herriko plazan, musika eskola eta atxabaltako abesbatzan laguntzaz.

19:30: Joteko Prest! Pala txapelketan finala, Iturrigorri pilotalekuaren. Sari banaketa izengo da jarraixan.

20:30: Poteua Atxabaltako tabernetan zehar.

21:30: Afaixa Taberna Berrin. Animaziñua, besteak beste, Iñigo Madinabeitian eskutik afal ostian.

... eta zeu, Joteko prest?



Loramendi
SABADELA ALDEKO



INSTITUTUA Amaia Arantzabal zuzendaria eta irakasle bi, martitzenean bertan iritsi zitzaizkien fresatzeko makina berrietako baten aurrean.

M.A.

ESALDIA

"Gauzak ondo egiteagatik emango digute saria, eta orain dela urte batzuk kalitatearen alde lanean hasitako bidean jarraituko dugu"

Amaia Arantzabal > Zuzendaria

dintza". Behin saria jasota goi mailako zentro izendatuko dute, eta, hala, irakaskuntza arautuarekin batera langileei eskainitako etengabeko prestakuntzako ikastaroak eta langabeentzako ikastaro okupazionalak antolatzetan jarraituko dute.

27 URTEKO IBILBIDEA

Orain dela 27 urte sortu zuten institutua Aretxabaletan. Hasieran pribatua zen, Arrasateko Eskola Politeknikoarenak egiten zuten lan, eta urte askoan herriko parroko izan zen Bitoriano Aranburuk bultzatu zuen. Handik urte gutxiira hezkuntzako sare publikoa sartu zen, eta ordutik hona makinatxo bat lan egin dute. Abian jarri zuten lehen ziklo automobilgintzaren gainekoa izan zen, eta 1999 inguruau, LOGSE iritsi zenean, goi mailako ziklo guztiak ematen hasi ziren. Orain 35 irakasle ditu institutuak, eta 150 ikasle prestakuntza arautuan. Horiez gain, ikastaroetara datozent langileak eta langabeak hurreratzen dira.

Lanbide Hezkuntzaren ikuspegia asko aldatu da urte hauean guztietan: "Lehen unibertsitateko ikasketak ezin zituztenak egin etortzen ziren, orain osterak, norberak hautatzen du zein bide jarraitu gura duen. Bestalde, inguruko enpresekin hartu-eman handia daukagu, eta sarritan eurek deitzen digute ikasles eske. Horregatik ikasle gehienek berehalera aurkitzen dute lana", dio Arantzabalek.

Lanaren etekinari esker lortu dute martitzenean jasoko duten saria, eta lanean jarraitzeko asmoa daukate. Orain, esaterako, bi tailer berri egiten dabilta: soldadura eta metal-eraikuntzan erabiltzeko bata, eta automobilgintzako tailerraren luzapena bestea. Azken hori datoren urtean abian jarriko duten karrozeriaren gaineko modulua emateko izango da.

HEZKUNTZA > SARIA ARETXABALETAKO INSTITUTUARI

Zilarrezko 'Q'-a eskuratu du Aretxabaletako institutuak

Jasotako sariarekin
goi mailako zentro
integratua izatea
lortuko du

150 ikasle daude
prestakuntza arautuan,
eta ikastaroetan langile
eta langabeak

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Martitzenean, abenduak 19, jaso
du Aretxabaletako institu
tuak zilarrezko Q saria. Donostiako
Kursaalen egingo duten
ekitaldian emango diote.

GOI MAILAKO ZENTROA
Ez da institutuak jaso duen lehen
saria. 2002an AENOR ziurtagiria
eskuratu zuen prestakuntza arautuan
eta urte bi geroago ziurtagi
bera jaso zuen etengabeko
prestakuntzan eta okupazionalean.
2003an, ISO 9001-2000 araura
egokitu zuten ikastetxeko sistema
osoa, eta orain, 2006a buka
tzekotan dagoela, zilarrezko Q-a
jasoko dute. "Gauzak ondo egite-

agatik emango digute, eta orain
urte batzuk kalitatearen alde
lanean hasitako bidean jarraituko
dugu", dio institutuko zuzendariak, Amaia Arantzabalek, eta

argitu du: "Derrigorrez atera
behar genuen zilarrezko Q-a goi
mailako zentro integratua izateko,
hori zen Lanbide Hezkuntza
zuzendaritzak jarritako bal-

KONTUAN HARTZEKO

Ikasle, langile zein langabeen zerbitzura

Lanbide Hezkuntzaren inguruau egiten dute lan institutuan. Goizetan,
prestakuntza arautuko eskolak ematen dituzte 16 urtetik gorakoendako.
Zazpi ziklo dituzte, eta datorren ikasturtean beste bat jarriko dute abian,
karrozeriaren gainekoa. Arratsaldetan, osterak, etengabeko prestakuntza
ikastaroak eskaintzen dizkiete langileei, tarteak, metal-eraikuntzak eta
automobilgintza. Langabeentzat ere baditzute ikastaroak: geriatria
lagunzailea, mekanizatua eta tresneria elektronikoak. Eta gainera,
enplegu zentroa zabaldu zuten otsailean lan bila dabilzanei lagunzeko.

postalak
egutegiak
errifak
txartelak
loteria



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

ERRETIRATUAK > OMENALDIA

Aurten 90 urte bete dituzten bederatzi bazkide omendu ditu Basotxok

Abenduaren 22an, Santo Tomas eguna ospatzeko, ogitartekoak eskainiko dizkiete bazkideei eta opariak zozketatuko dituzte

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Ohiturari jarraituz, Santa Luzia egunean omendu zituen Basotxo erretiratuen elkartea 90 urte bete dituzten bazkideak. Bederatzi izan dira aurten, lau emakume eta bost gizon.

TXOKOLATE BEROA

1916an jaiotakoak dira, eta dagoeneko guztiak bete dituzte 90 urteetan. Hona izenak: Amadeo Carras-

co, Luisa Gutierrez, Matias Peñaranda, Maria Arranz, Antonio Laskurain, Federico Uribesalgo, Jose Maria Makazaga, Mari Carmen Villena eta Mari Carmen Altuna. Elkarteko presidente Jose Ramon Rodriguezek egin zien ongietorria, eta dantzariek ohorezko aurreskua eskaini zieten. Orain egun batzuk diploma banatu zieten, eta eguztenean opariak jaso zituzten. Ekitaldia



OMENALDIA 90 urte aurten bete dituzten Basotxo erretiratuen elkarteko bazkideak, opariak eskuan dituztela.

M.A.

bukatzeko txokolate beroa hartu zuten omendutako eta Basotxora hurreratutako guztiak.

Ez da izango erretiratuen elkartea abenduan egingo duen

ekitaldi bakarra. Izan ere, Santo Tomas eguna ospatuko dute hilaren 22an, egubakoitzat. Ogitartekoak eskainiko dizkiete bazkideei, eta ostean opariak zozketatu-

ko dituzte. Gainera, Gabonetako saskiaren zozketa txartelak saltzten dabiltza azken asteotan, eta egun horretan bertan jakingo dute zeinek eskuratu duen.



GURUTZE LARRINAGA

Ardoa, euskaraz berriketan egiteko aitzakia

Barriketan egitasmoaren lehen fasea amaitzeko, hilaren 12an, Mikel Garaizabal enologoa gonbidatu zuten ardoaren gaineko ikastaroa emateko. Hartzaile eta emaile, zein baino zein gusturago ibili ziren ardoaren sekretutxoak deskubritzen; eta ardoak kalterik ez egingo ikastaroaren ostean luntxa izan zuten. Barriketan egitasmoak, baina, aurrerantzean ere jarraipena izango du. Martxan dauden taldeek aurrera egin nahi dute eta beste talderen batzuk ere hastekoak dira urtarrilean; beraz, badakizue, astean ordubete euskaraz berriketan eman gura baduzue eman izena udaletxeen, Loramendin edota euskaltegian.

PAGALDAI
Opari denda
Burrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta • 943 79 10 14

Allumette
LINGERIE
www.allumette-lingerie.com

> SAHARAREKIN ELKARTASUNA

'Karabana 2007: piztu itxaropena' egitasmorako janaria eta dirua batzen dabil Iesbaa elkartea

Aurten sortu duten Sahararen aldeko Iesbaa elkartea *Karabana 2007: piztu itxaropena* egitasmorako janaria eta dirua batzen dabil herrian. Abenduaren 9an hasi zuten egitasmoa eta urtarriaren 9a bitartean izango da abian. Hala, kutxa jarri dute Ilargi plazan dagoen Eroskin janaria sartzeko bertan. Aurten dilistak, arroza, atuna eta konpresak gura dituzte.

Bestalde, abenduaren 23an, zapatua, Solidaritate Jaia egingo dute Iesbaa eta Hiruatz elkartek. Bidezko merkataritzako produktuen dastatzea eta salmenta egongo da, eta Saharako artisauen lanak ere ekarriko dituzte. Sahararen sukaldaritza dastatzeko aukera ere eskainiko dute eguerdi partean.

NAZIOTASUN ESKUBIDEA > TRAMITAZIO ETA SINADURA BILKETA EGUNA

EHNA trimitatu eta sinadurak batzeko eguna bihar, hilak 16

Udaletxe zaharrean trimitatuko dituzte 11:00etatik 14:00etara bitartean

Naziotasun eskubidearen aldeko aldarrikapena egiteko eguna izango da

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta
Naziotasun eskubidearen aldeko trimitazio eta sinadura bilketa eguna egingo dute bihar, zapatua. Bai Euskal Herriari ekimenak antolatu du, eta EHNA egiteko zein sinadurak jasotzeko udaletxe zaharrean egongo dira, 11:00etatik 14:00etara bitartean.

ERABILTZERA ANIMATU
Txartel hutsa baino zerbaite gehiago dela EHNA adierazi gura dute ekimenaren bultzatzailleek. Hala, gero eta aretxabaletar gehiagok dauka eta erabiltzen du. Manex Larrinagak, esaterako, iaz egin zuen, eta ordutik hona oporretan joateko eta edozein ordainketa egiteko erabili du: "Eta ez dut sekula arazorik izan", adierazi digu. Meritxell Serrato, ostera,



EHNA Meritxell Serrato, Manex Larrinaga eta Araitz eta Ekain anai-arrebak, EHNA eskuan dutela.

M.A.

dendaria da, eta herritarrak bere dendan, behintzat, erabiltzera animatu gura ditu: "Nik neuk beti erakusten dut EHNA, eta leku gehienetan onartu izan didate. Hortaz, erabiltzera animatuko nuke jendea", dio.

Ekain eta Araitz Altuna anai-arrebek ere badute EHNA, eta pozik erakutsi dizkigute. "Euskaldunak direla berresteko egin genien", diosku Unai aitak. "Euren

lehen nortasun-agiria izango da, gero bestea derrigor atera beharko dute; baina lehena, behintzat, geurea izan dadila", argitu du.

SINADURA EKITALDIA

EHNA egiteko hiru argazki, udaltxeko erroldako agiria eta 15 euro ekarri beharko dituzte herriarrek. Baina biharko ekitaldia ez da trimitatzeko bakarrik, naziotasun eskubidearen aldeko alda-

rrikapena egiteko ere bada. Txartel hutsa baino zerbaite gehiago dela agertu gura dute: eskubide bat, herri bezala agertzeko tresna eta norberaren burua aurkezteko agiria. Hori horrela, Euskal Herriko naziotasuna errespetatzeko eskakizun ofiziala sinatzea aukera egongo da. Nazio Batuen Erakundeko giza eskubideetarako goi mandatariari bidaltzeko izango dira sinadurok.

OSPAKIZUNA > BEINKE ELKARTEA SORTU ZELA 20 URTE

Beinke eta Loramendi elkarteen historia kontatzen duen 'performance'-a egingo dute Herriko Plazan

Elkartearren sortzaile, bazkide eta herritarrak afaltzeko elkartuko dira Taberna Berrin; guztira 105 lagun

M.A. > ARETXABAleta
1986ko abenduaren 15a izan zen Beinke elkartea sortu zuten eguna. Eta, gaur, 2006ko abenduak 15, Loramendi EEk gogora ekarri gura die aretxabaletarrei guztioan ospatzeko.

'PERFORMANCE'-A ETA DANTZA
Ludotekako umeek *Kutxidazu bidea, Ixabel!* antzeztuko dute, 17:30ean, Kurtzebarri eskolan, eta bukatutakoan buruhandiak ate- rako dira umeei jarraika.

Arratsaldea girotzen hasteko txokolate beroa banatuko dute Herriko Plazan. 19:00ak inguruaren Beinke eta Loramendi elkarteen historia kontatzen duen performance-a eskainiko dute herriko

artista batzuek; eta ondoren, Beinke-Loramendi dantza erakustaldia Leizarra musika Eskolako musikarien eta Aretxabaleta Abesbatzaren laguntzarekin. Halaber, *Joteko prest!* pala txapel-

ketaren finala jokatuko dute, 19:30ean, Iturrigorri pilotalekuaren: Urkia eta Priego, Azkargorta eta Altzolaren aurka. Eta urteurrena borobiltzeko, afaltzeko batuko dira 105 lagun Taberna Berrin.

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

Lie

LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABAleta

AD
ADOLFO DOMINGUEZ

bere ustez



Beñat Zamalloa

Zorionak eta eskerrik asko!

H ogei dagoeneko! Aretxabaletarrok euskaldunago egiten, bi hamarkada, euskara bultzatzeko herritarrek sortu zintuztenetik. Ehunka aldarrikapen ekin-tza, kanpaina, jaialdi, afari, kontzertu, antzerki, berbal-di... Batzuk beste batzuk baino jendetzuagoak, baina guztiak izan dute eta izango dute helburu bat, bera: gure herrian euskaraz bizi ahal izatea.

Elkartea sortu zenean baino jarraitzaile gehiago

"Ostantzean, iritsiko da eguna, gizartea euskararen alde egongo dena, inork euskara jakin gabe"

ditu euskarak, baina gutxiago hitz egiten da. Gure herriko hizkuntzaren alde gaude altxor bat bailitzan, baina ez da altxor bat. Txinan ez daude txineraren alde, txineraz hitz egiten dute, beste barik. Euskara da Euskal Herriko berezko hizkuntza. Hiztun gutxiko hizkuntza da, eta bizirik iraun dezan lan egin behar dugu hizkuntzaren alde; baina alde egonda bakkrik ez du iraungo. Iraun dezan erabili egin behar da. Ostantzean, iritsiko da eguna, gizartea euskararen alde egongo dena, inork euskara jakin gabe.

Horrelakorik gerta ez dadin behar dugu Euskara Elkartea. *Dugu* diot herritarrek sortu zutelako eta herritarrok egiten dugulako, herritarrontzat.

ONDAREAREN KUDEAKETA > IBARRAUNDI FUNDAZIOA

Ibarraundi Fundazioa sendotzeko lanean dihardute

Fundazioaren helburua da Leintz ibarrak daukan kultura, turismo eta aisialdi ondarea ondo kudeatzea

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Eskoriatzako Udaleko eta Eusko Ikaskuntzako ordezkarien hainbat pausu ematen dihardute Ibarraundi Fundazioa sendotzeko. Aspaldian herriko hainbat enpresen arduradunekin batzartu dira: TESA, Pates Zubia, Fagorreko hainbat enpresa, Ederlan, Euskomedia eta abar.

Herriko enpresen buruek ondo hartu dute fundazioaren ideia, eta egun gutxi barru zehaztuko dute zer esku-hartze egin gura duten.

MANKOMUNITATEAN AURKEZTU
Horrez gain, fundazioaren bultzatzaileen asmoa da egun gutxi barru Debagoieneko Mankomunitatearen Turismo batzordeare-



FUNDAZIOA Eragilea Ibarraundi izango da. Argazkian, bisitari batzuk.

I.B.

kin ere batzartzea, eta fundazioaren asmoa azaltzea.

LEINTZ IBARREKO ONDAREA
Ibarraundi fundazioaren helburua da Leintz ibarrak daukan kultura, aisialdi eta turismo ondarea ondo kudeatzeko bidea aurkitzea, jasangarritasuna aintzat hartuta.

Ondare hori guztia kudeatuko lukeen eragilea Ibarraundi museoa izango litzateke.

Idea hori orain dela 2 urte sora zuten, eta dagoeneko nahiko garatuta daukate. Bi alderdi era-bakitzale egongo dira: talde kudeatzalea, independentea izango dena, batetik; eta administrazio batzordea, bestetik. Azken hori herriko enpresa, elkartea eta bestelakoek osatuko dute.

Eskoriatzako Udalak Ibarraundi museoa, Zubiate labea eta Elorretako errota utziko ditzio fundazioari.

Herriko merkatarien afaria egin zuten festa-jantziekin

Orain dela gutxi, herriko hainbat merkatari urteroko afaria egin zuten festa-jantziekin: saltokiak dituztenak, ile-apaintzaileak eta beste elkartu ziren mahaiaren bueltan. Guztira, 16 lagun izan ziren Otxeta jatetxeen.

Afalostein, herria giroten aritu ziren. Horien artean, afari horren sortzaile diren Mertxe eta Felisa saltseroak.



GOIENKARIA

KIROLA > MENDI IRTEERA

Domekarako, Adarra mendira irteera eta baba-jana antolatu dituzte

Kirol Elkarteko Mendi Taldea hainbat ekimen antolatzen hasi da berriro

I.B. > ESKORIATZA

Kirol Elkarteko Mendi Taldeak mendi irteera egingo du domekan. Adarra mendira irteera egingo dute, eta ostean, baba-jana izango dute Urnieta.

08:30erako egingo dute hitzordua herriko plazan. Asmoa zen Urnieta autobusez joatea, baina antolatzaillek jakin

narazi ziguten izenemate-kopuruaren arabera bidaia hori agian autoan egin beharko zutela.

Urnietatik Adarrara igoera eta jaitsiera hiru bat ordutan egingo dutela jakinarazi zuten. Horren ostean, baba-jana egingo dute Urnieta.

IZENA EMAN, LEHENBAILEHEN

Autobusa eta baba-jana ordaintzeko, helduek 25 euro ordaindu beharko dute; gaztetxoek, berriz, 15 euro. Autobusa erabilten ez badute, merkeagoa izango da. Izena emateko, Namasterra edo kirol elkartera jo.

> ZINEMA

Etzi, domeka, umeendako 'Azti ikaslea' filma emango dute Ibarraundi museoan

Udazkenarekin eta neguarekin batera, Udaleko Kultura eta Euskara sailak hasi dira berriro umeendako film emanaldiak antolatzen. Etzi, domeka, *Azti ikaslea* lana emango dute, 17:30ean. Filmak 98 minuto iraungo du, eta euskaraz emango dute.

Morgana sorgin maltzurra Merlin aziarengana joango da talismana eskuratu nahian, mundua suntsitzeko. Ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka inoiz baino estuagoa izango da.

> ERRETIRATUA Eguenean txistorra-jana egingo dute Olazar elkartean

Eguenean, hilaren 20an, Olazar erretiratuen elkarteko lagunek txistorra-jana egingo dute. 17:30erako egin dute hitzordua.

Urteroko ohitura da erretiratua batzeko merienda egitea. Hala egiten jarraitzen dute, eta aurten ere hala jakinarazi digute.


Txistorra-jana herriko erretiratuen elkarteko bazkide guztiendako da, baina derrigorrezkoa izango da horiek urteko kuota ordainduta izatea.

Meriendaren ostean, hainbat opari zozkatuko dituzte gerturatutakoaren artean.

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



FAGOR 

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebasco pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01

 MONDRAGON
UNIVERSITY OF MONDRAGON

Itziar Gabikagogeaskoa > Zaintzako sistema publikoaren aldeko plataforma

"Mendeko pertsonak zaintzeko ia ez dago zerbitzu publikorik; erakundeei dagokie ardura hori"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Martitzenean, ELAKo Itziar Gabikagogeaskoak eta ESK-ko Isabel Cas trok berbaldia egin zuten kultura etxeen, Amuskak eskatuta. Biak ere, zaintzako euskal sistema publiko eta unibertsalaren alde egiteko plataformako kideak dira.

Lehenik eta behin, aurkeztu zure burua...

ELA sindikatuko genero politikan eta gazteen alorrean, bietan, lanean nabil. 2005eko maiatzean, Euskal Herriko hainbat sindikatu eta talde feministak plataforma bat sortu genuen. Hain zuen ere, zaintzako euskal sistema publiko eta unibertsalaren alde egiteko egin genuen hainbat taldek bat.

Zer kanpaina bultzatzen zabiltzate orain?

Lehenik eta behin, hasi gara plataforma horren eskaerari babesera emateko sinadurak batzen. Euskal Herri osoan gabilta zeregin horretan. Plataforma hori osatzen duen talde bakotzak bere esparruan dihardu sinadurak jasotzen. Behin sinadurak jasota, Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko ditugu.

Mendeko pertsonen zaintza aipatzen duzuenean, zer giza talderen gainean ari zarete?

Askotan, mendeko pertsonez berba egiten dugunean, gehienok pertsona nagusiak iza ten ditugu gogoan, baina badi ra beste talde batzuk ere bai: umeak eta zailtasun psikiko edo fisikoak dituztenak, hain zuzen ere. Mendekoak dira beste norbaiten laguntza behar duten guztiak, autonomoak ez direnak. Horiendako ere azpiegitura beharrean gaude.

Nork du erantzukizuna, era kunde publikoek?

Bai. Esaten dute 2007an Espainiako Estatuan lege berri bat onartuko dutela eta horren bitarte mendeko pertsonak zaintzen dituztenei soldatua emango dientela. Lan hori egiten dutenendako bada zerbait, baina ikusi beharko da zelako soldatuk diren, eta, egia esanda, badakigu hori ez dela arazoaren benetako konponbidea izango.

Erakundeek hartu beharko lukete zaintzaren ardura?

Bai, edo behintzat horretarako aukera franko eman beharko lituzkete. Gaur egun ez dago aukeratzerik. Zerbitzu publikoa eta unibertsala eskatzen dugu guk, askotarikoa eta kalitatezkoa, mendekoaren ongizate osoa ber matuko duena. Gaur egun mendekoak zaintzeo ia ez dago zer-



Itziar Gabikagogeasko sindikalista da plataformako kidea. IKER BARANDIARAN

"Gizonezkoen lana, kanpoko, baloratzen da; emakumezkoena, etxe barruko, ez"

"Autonomiarik ez dutenak zaintzeo zerbitzu publiko duina eta askotarikoa eskatzen dugu"

"Etxean lana banatzeko eskaera XX. mendekoa da; gizonek badute zer aldatu"

bitzurik eta dagoena, pribatua, oso garestia da. Lotsagarria da pertsona bat zaintzearen halako dirutzak ordaindu beharra. Erakundeek eman behar diote irtenbidea arazo horri; eurek eskaini behar dute zerbitzua.

Aukera hori izanda, norbaitek gurago badu mendekoa etxeen zaintzea, gu ez gaude horren kontra. Egin dezala, baina, behintzat, beste aukera batzuk ere izan ditzala.

Zaintza hori egiten dutenen lan baldintzak ere aintzat har-

tu dituzue. Hor ere badago lana egiteko, ezta?

Bai. Lehenik eta behin, ez da baloratzen jende ugarik, ia beti emakumeek, mendekoak zaintzen egiten duten lana. Gizonezkoen lana, kanpora begirakoa, beti baloratu izan da; emakumezkoek egiten dutena, emozionala, etxe barruko, ez da kontuan hartzen. Eta bada ordua hori alda dadin. Horrek lotuta, garrantzitsua da lan hori egiten duten lan baldintzak egokiak iza tea, jakina.

Horrez gain, gizonezkoek ere izango dugu erantzukizun eta ardura?

Bai, noski. Datu bat ematearen, gaur egun lan murrizketak edo eszedentzia eskatzen duten langileen %95 emakumezkoak dira. Emakumeek historikoki zeregin horiek bete ditugu, guk eraman dugu pertsonen zaintza, baina gaur egun gutako askok kankoan ere lan egiten dugu.

Izan ere, XX. mendeko aldarrikapena da lana banatzea. Horren aldeko pauso batzuk ematen gabiltza, baina oraindik asko dago egiteko. Eta gizonezkoek badute erantzukizuna aldaketa horretan.

LEHIAKETAK > GABONETAKOAK ETA ORRI-PUNTUAK

Luis Aragonesesena da 2007an Bibliotekak erabiliko duen orri-puntuak

Aurten Bibliotekak lehenengo aldiz orri-puntuen lehiaketa antolatu du; Eibarko Luis Aragonesesek irabazi du saria

I.B.> ESKORIATZA

Udal Bibliotekak orri-puntuua egiteko lehiaketa deitu zuen orain dela gutxi. Udaleko Kultura Saila eta Udal Bibliotekako arduradunak oso pozik daude lehiaketak izan duen harre rarekin, eta dagoeneko aukeratu dute 2007an erabiliko duten orri-puntuua. Eibarko Luis Aragoneses da horren egilea.

Irabazleak, Aragonesesek, 400 euroko saria jasoko du, eta Bibliotekako orri-puntuek irudi hori izango dute. Biblioteka ko erabiltzaileei liburuak mai leguan hartzean emango dizkie te orri-puntuak.

28 LAN AURKEZTU DITUZTE

Izan ere, Udalak eta Bibliotekak herriko margolari edo diseinatzaileei eskatzen zizkieten orri-puntuak. Aurten, berriz, lehiaketa deitza erabaki dute. Hala, 28 lan aurkeztu dituzte. Horietako gehienak eskoriatzarrek egindakoak dira, baina badaude baita Arrasaten eta Eibarren egindakoak ere. Azken horien artean, saria jaso duena.

GABONETAKO MARRAZKIAK

Bestalde, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako udalek *Egin zure Gabonetako marrazkia* lehiaketa deitu zuten orain dela aste batzuk. 6 eta 12 urte bitartekoendako lehiaketa da hori.

Guztira, 25 lan aurkeztu dituzte; aurreko urtean baino gutxiago. Eskolako maila bakotzko sari bana eman dute, eta honako hauek izan dira irabazleak: Uxue Beloki, Ane Eraña, Aitziber Colino, Maider Bastardo, Auritz Iñurrieta eta Ane Benito, hain zuzen ere.



Saria jaso duen lana. LUIS ARAGONESES



EUSKARA > ORDENAGAILUETAKO PROGRAMAK EUSKARATZEKO LAGUNTZAK EMANGO DITU UDALAK

Elkarteei dirulaguntzak emango dizkiete euskara erabiltzeagatik

Kontsumitutakoa apuntatzeko paperetik ordenagailura pasaten dabilta elkarrean

Udalaren helburua da aplikazio informatikoak euskaraz erabiltzea bultzatzea

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Herriko elkarrean gastronomikoei diru kontuen aplikazio informatikoak euskaratzeko dirulaguntzak emango ditu Udalak. Horixe erabaki zuen udalbatzarrak abenduko osoko bilkuraren.

Eperra elkartean jarri dute dagoeneko ordenagailua, euskarazko programarekin. Gaztelugain eta Olalde elkarteen, berriz, oraintxe dira jartzekoak.

Orain arte papera erabiltzen zuten elkarteen bakoitzak kontsumitutakoa apuntatzeko; bada, paperean euskaraz egiten zutenena ordenagailuan ere euskaraz egitea bultzatu nahi du Udalak, eta horretarako dirulaguntzak emango ditu. Aurtengo aurrekontutik, gehienez, 1.500 euro bideratuko ditu horretara.

ESKAERAK

Herriko edozein elkarrean gastronomikok dauka dirulaguntza euskatzeko aukera. Euskara Zerbitzura jo beharko dute horretarako. Dena dela, osoko bilkuran onartutakoaren berri jasoko dute elkarrean guztiak, informazio guztiarekin.

Onartutako araudiaaren arabera, aplikazio osoa euskara hutsean baldin badago, Udalak erdia ordainduko du, gehienez 500 euro. Bi hizkuntzatan egotekotan, berriz, gastuaren %15 eta %35 bitartean, euskararen presentziaren arabera.

KOMERTZIOEI LAGUNTZAK

Honakoa ez da Udalak euskararen presentzia bultzatzeko onartzen duen lehendabiziko lagun-



ORDENAGAILUAN Eperra elkarteko bazkide bat ordenagailuaren aurrean. A.I.

tza. Komertzioen kasuan, esaterako, errrotuluak euskaraz jartzeko ere ematen ditu laguntzak. Bestalde, aurten bertan, ekaine-

an, onartu zuen Udalak laguntzak ematea alfabetatze edo euskalduntze eskoletan dihardutenean herritarrei.



GABARAINDARRAK Eskumatik lehena, Milagros; hirugarrena, Txaro. SANTA TERESA ABESBATZA

MUSIKA > GABARAIN AHIZPEK ABESTEN DUTE ABESBATZAN

Zaragozako abesbatzaren emanaldia bihar, zapatua

Milagros eta Txaro Gabarain ahizpak Zaragozan bizi dira eta abesbatzako kide dira

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA
Zaragozako Santa Teresa abesbatzaren emanaldia izango dugu bihar, zapatua, 19:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokiaren. Antzuolako abesbatzaren batera egingo dute emanaldi hori.

Santa Teresa abesbatza 1984an sortu zuten eta pizkunde garaiko musikan eta musika barrokoan espezializatuta daude. Errepertorio benetan zabala dute.

GABARAIN AHIZPAK

Milagros eta Txaro Gabarain ahizpek abesten dute Zaragozako abesbatzan. Milagros Hernanin jaio zen eta Txaro Zaragozan, baina Antzuolaren harreman estua izan dute, euren ahizpa Beatriz hementxe bizi da-eta. Bestalde, On Cesareo Gabarain anaia Antzuolan egon zen apaiz.

> UDALBILTZA
EHNA tramitatzeko aukera egongo da asteburuan herrian

Udalbiltzak antolatuta, Nazio-tasunerako Eskubidearen eguna izango da bihar, zapatua, eta EHNA tramitatzeko aukera egongo da udaletxeen. Zapatauan, 18:00etatik 20:00etara eta domekan 12:00etatik 14:00etara. Erroldaren ziurgaria, hiru argazki eta 15 euro eraman behar dira.

> ERRETIRATUA
Txistorra jana eta bingo jokoa datorren egunean

Datorren egunean, hilak 21, Santo Tomas eguna dela-eta, txistorra jana izango dute erretiratuek, doan. Ondoren, bingo jokoa izango dute. Hila-ren 19an, berriz, martitzena, karta txapelketako finala jokatuko dute; ondoren, afaria izango dute parte-hartzale guztiak, 3 euroen truke.

> UMEA
Lupe Lekuona ipuin kontalaria bihar Udal Liburutegian

Bihar, zapatua, ipuin kontaketa saioa izango dugu Udal Liburutegian. Lupe Lekuona ipuin kontalaria etorriko da. Hain zuzen ere, 5 urtetik aurrerako umeei zuzenduta dago saio hori, eta sarrera 1,5 euro izango da.

> MUSIKA
Musika Eskolako kontzertua egunean, hilak 21

Musika Eskolako ikasleek kontzertua emango dute egunean, hilak 21, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

Emanaldi horretan 30 bat umek parte hartuko dute. Aipatzeko da, gainera, aurten hasi direla Bergarako Musika Eskolakoak hainbat eskola ematen Antzuolan bertan.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



INDUSTRI MANTENIMENDUA

Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA

Era guztiak arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

bere ustez



Maria Elena Eztenaga

Adiskidetasun harremanen garrantzia

Egun karian lerro batzuk idaztea egokitzent zaiguin bakoitzean lantzen ditugun gaiak gehiengoarentzat interesgarriak izatea edo behintzat gaurkotasunekoak izan daitezten saiatzen gara. Oraingoan eta benetan gure bizitzan garrantzi handia duelako, adiskidetasunaren balioaz idatziko dut. Gaztelerazko esaera zahar batek esaten duen moduan, "quien tiene un amigo tiene un tesoro". Arrazoi handia da. Lagun batengana beti jo dezakezu, eta ez bakarrik parrandara-

"Esan zidan berak ez lukeela inoiz bizileku aldatuko lagunak gertu behar zituelako"

ko, bidaitzeko edo aisiaaldi-rako. Penak eta arazoak ere benetako adiskidetasun harremanean sartzen dira.

Duela gutxi, ezkontza eta lan asuntoak medio herritik alde egindako seme-alaba batzuen amak esan zidan, berak ez lukeela bizileku aldatuko. Berak hurbil behar zituela bere lagun minak. Pixka bat arraroa dirudien arren arrazoa eman nion, familia OSO-OSO garrantzitsua da, baina seme alabek beraien bideari ekiten diotenean, familia propioa osatzen dutenean, gurasoek hutsune handia sentitzen dugu. Nahiz eta beraien maitasun guztia eduki hori horrela da. Orduan, lagun onak gertu edukitzeak inoiz baino gehiago pozten gaitu.

((112))
SOS DEIAK



TORREALDEKO ETXEBIZITZA BERRIAK Bost hilabete pasa dira, baina ez dute gasik eta argia obrakoa dute.

L.Z.

HIRIGINTZA > ELGETAKO ARALARREK DIO EAJ-EA EZ DELA ARAZOAK KUDEATZEKO GAUZA

Aralar: "Hirigintzan Udalak kale egiten du"

Torrealdeko etxebizitza berriak, babes ofizialeko etxeak eta Uruburuko transformadorearen auziak jarri ditu Aralarrek adibide gisa

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Elgetako Aralarrek salatu du EAJ-EAk ez diela irtenbiderik ematen hirigintza arloan dauden arazoei. Egoeraren adibide Torrealdeko etxebizitza berriak, babes ofizialeko etxebizitzak eta Uruburuko transformadorearen auziak jarri ditu Aralarrek. "Hilabeteak igaro dira eta agerian geratzen ari da EAJ-EA ez dela gai arazoak kudeatzeko".

TORREALDEKO ETXEAK

"Hilabete mordoa pasa dira eta Torrealdeko etxebizitza berriean ez dute gasik, argia obrakoa da eta ingurua behar den moduan urbanizatu gabe dago", adierazi du Aralarrek. Babes ofizialeko etxebizitzan jabeek ere arazoak dituztela salatu du alderdi horrek. "Hilabete baino gehiago da jabe horiek Udalera deituak izan zirela etxe-

bizten agiriak sinatzeko. Agiriak, ordea, gaizki zeuden. Hilabete nahiko denbora da gaizki egindakoa konpontzeko".

URUBURUKO TRANSFORMADOREA

"Hilabete igaro dira transformadore hori non kokatuko den galdetu genuenetik", dio Aralarrek. "Zenbat denbora behar du EAJ-EAk kokalekua argitzeko?".

ERRETIRATUAUAK > ERRETIRATUEN AUZIA, AIREAN

Udala eta Ozkarbi ez dira urtarrilera arte batzartuko

Gaur arratsaldean
egingo dute urteroko
merienda Ozkarbi
elkartean

L.Z. > ELGETA

Elgetako erretiratuek Ozkarbi elkartean egiten duten azken Gabonetako merienda izan dai-teke aurtengoa.

Elgetako Udala eta Ozkarbi elkarteko zuzendaritza batzordea ez dira ados jartzent eta urtarrilera arte atzeratutu dute auziaren gaineko hurrengo batzarra.

Bitartean, erretiratuek urteroko merienda egiteko deialdia egin diete erretiratuen elkarteko bazkide diren lagun guztie, 180 bat lagun inguru uneotan.

Gaur arratsaldean, 17:00etan dira Ozkarbi elkartean batzekoak. Txistorra, gazta eta irasagarría izango dituzte merienda-ko. Urtero legez, saskiak zozketatuko dituzte. Baina hiru beharrean hamar otzara izango dira aurtengoan eta bertaratu artean zozketatuko ordez bazkide guztien artean zozketatuko dira, asko baitira ezinduta etxeen gelditzen direnak.

IMSERSOREN BAINUETXEA

Zabalik da Imsersoren bainuetxe programan izena emateko epea. Egonaldi bakotza 12 egunekoa izango da. Hala, abuztua baino lehen joan nahi izanez gero abenduaren 29a baino lehen eman behar da izena. Bestela, maiatzaren 16a da azken epea.



L.Z.

Gabonetako argiak gaur piztuko dira

Aurreko urtean bezala gaur, abenduak 15, isiotuko dituzte Gabonetako argiak. Urtarrilaren 8ra bitartean egongo dira piztuta eta kaleko argien moduan isiotuko dira. Astelehenetik eguenetara gauko 23:00ak arte eta barikuetatik domeketara gau osoan. Asteon ibili dira Iramako langileak argi-estrukturak plazan eta inguruko kaleetan ipintzen.

> MUSIKA

Kantu gregorianoa zapatuan Espaloia Kafe Antzokian

Donostiako Ereski Schola Gregorianista taldeak kontzertua emango du bihar, zapatua, Espaloia Kafe Antzokian. 20:15ean hasiko dute emanaldia eta 20 bat pieza abestuko dituzte. Jokin Otamendik zuzentzen duen taldeak Solesmeseko kantu estiloan oinarritzen du bere estiloa. Sarrera doan izango da.

> BOLETA TXAPELKETA

Zapatuan, 23:00etan egingo dute azken aurreko boleta saioa

Bihar, zapatua, jokatuko da bolatokian Gabonetako Boleta Txapelketako azken aurreko saioa. Xabier Osoro dugu sailkapenean aurretik bost txirlo jo ondoren; Bittor Rodriguez bigarren dago hiru txirlokin; eta marka berarekin hirugarren dago bolatokiko Josetxo Monterroso.

> EHNA

Domeka eguerdian izango da Elgetan tramitatzeko aukera

Hiru argazki, erroldak agiria eta 15 euro eraman beharko dituzte udaletxera EHNA tramitatu nahi duten guztiak.

Domeka eguerdian, 12:00etatik 14:00etara izango da EHNA Elgetan tramitatzeko aukera. Eta, hain zuzen ere, bi hilabeteko epean jasoko du EHNA etxe postontzian tramitazioa egiten duenak.

UDALA > MERTXE MONDRAGON TELEBISTAN

Kezka erakutsi zuen alkateak AHT eta gazte lokalengatik

2007rako aurrekontuak lantzen dabilzala esan zuen; 1.600.000 euroen bueltan ibiliko dira

Ezustekorik ezean, Mertxe Mondragon ez da atzera ere alkatzara aurkeztuko

UBANE MADERA > ARAMAIO

Makina bat galdera egin zion Alberto Gorritiberear *Debarrisaiko* aurkezleak Mertxe Mondragon alkateari eguztenean. Herriarrek egindakoak ere helarazizkion Aramaioko alkateari.

Lehenengoa izan zen Abiadura Handiko Trenaren gaineakoa. Alkateari gogorarazi zioten herri galdeketaren aldeko 657 sinadura batu dituztela, eta ea Udalak zer egingo duen. "Ez dugu erabaki oraindik; asmoa da udal taldea oraingo astean elkartzea erabakia hartzeko. Momentu honetan ezin dut esan zein jarrera hartuko dugun", erantzun zion Mondragonek. Zera gaineratu zuen: "Osoko bilkuraren erabaki beharra dago. Eta urteko azken egunetan gaudela kontuan hartuta, gura dut aurrekontuak ere sartu osoko horretan. Pentsatzen dut oraingo hilean egingo dugula batzarra".

AHT-REN PROIEKTU OFIZIALIK EZ

Alkateak onartu zuen obra handia dela. Aramaion bost kilometro egingo ditu, gehienak lurpetik: "Lurpetik doanean eragina txikiagoa izaten da, baina arazoak ere izan daitezke: errekar, iturriak... Ofizialki ez dugu proiekturik, baina orain gutxi jakin izan dugu eginda dagoela. Itxaroten gaude; ikusi egin beharko dugu proiektua".

Dena den, alkateak zera nabarmendu zuen: "Udal moduan eskatu behar dugu ondo egin dezetela, gauzak ondo aztertuta. Beste zalantza bat ere badugu: ez dakit halako udal txiki batek gaitasuna daukan kontrola eramateko. Baina bagabiltza; kontsulta teknikoen egin ditugu..." Horren harira, alkateak esan zuen Aramaion 5-6 iturri erabiltzen dituztela orain, eta horietako bat kaltetuko duela AHTk: "Ikusi behar zein konponbide ematen diguten. Kontsultak gure aldetik egin ditugu, euren proposamena ez zitzagulako horren beste gustatzen".

AURREKONTUAK, LASTER

Bestalde, jakinarazi zuen 2007rako aurrekontuen proposamena buka-

tzen dabilzala. 1.600.000 euroen bueltan ibiliko dira. Eta inbertsio zerrenda oso luzea dutela gehitu zuen. "Orain egokitu egin behar...". Edozelan ere, lehentasunak zeintzuk diren aurreratu zuen: "Bentamotz baserrria dago edateko ur eta saneamendu barik. Hori egingo dugu lehenengo. Bestalde, hasi ginen auzoetan azpiegiturak sartzen; bagoaz polito-polito eta aurten tokatuko zaio Arriolari. Atzo (martitzena) egon ginen proiektua aztertzen. Dirua badugu. Hori egingo dugu bigarren. Hirugarraren proiektua da Zalgo-Errotabarriko azpiegiturak. Horretarako dirua ere badugu. Eta laugarena da auzo guztien argiztapen publikoa berritzea".

ALBINARAKO PROPOSAMENA

Horrekin guztiarekin batera, bestelako artean, Albina urtegia ere berbagai izan zuten. "Albinaren gainekeo proposamena egin genuen. Guk ez dugu gura izugarrizko hondartzarik egin. Pasealeku politik bat, aparkalekuak eta halako gauza txiki bat egin gura dugu, ze berez oso polita da-eta".

HAUR ESKOLAREN ARRAKASTA

Bestalde, poza erakutsi zuen haur eskolarako hamar ume daudelako izena emanda: "Oso kopuru ona da. Seguru aski, bi urtean 25-26 bat joan ahal izango dira haur eskola".

GOITB-REN SEINALEA ETA INTERNET

Bestalde, GOITB ikusteko Barajuuen duten arazoaren gainean esan zuen Barajuengo arazoaren



PLATOAN Mertxe Mondragonek *Debarri*-ren grabazioan iragarri zuen ezustekorik ezean ez dela aurkeztuko hauteskundeetan. U.M.

ESANAK

"AHTren galdeketaren gainekeo erabakirik ez dugu hartu oraindik; osoko bilkuratik pasa behar du; batzar hori hil honetan izango dela uste dut"

lara". Funtzionamenduari dago-kionez, berriz, partzuergoak eza-rritako araudia segituko duela esan zuen (adibidez, 07:30etik 18:30ak arte izango dela zabalik) eta seguru aski otsailean zabalduko dutela, bi irakasleren.

GOITB-REN SEINALEA ETA INTERNET
Bestalde, GOITB ikusteko Barajuuen duten arazoaren gainean esan zuen Barajuengo arazoaren

"Hamar umek eman dute izena haur eskolarako. Oso ondo dago hori. Otsailean zabalduko dugu eta partzuergoaren araudia izango du"

berririk ez zeukala. Eta Ibarra duten arazoa konpontzeko, berriz, badabiltzala bidea lantzen.

Azpiegitura kontuekin jarraituz, jakinarazi zuen aurreikusen duela urtarrielerako edo otsaileko konponduta izatea Interneteko seinalearekin zenbait baserritan duten arazoa. Kontua da auzoen erdiguneetara iritsi dela banda zabaleko seinalea; ez, ordea, inguruko baserri guztie-

"Neu ere kezkatuta nago gazte lokalen kontuarekin. Egoera ez dago ondo. Ez badute konpromisorik hartzen ez naiz eurekin batzartuko"

tara. Bada, hori konponduko dute urtearen hasieran.

GAZTE LOKALAK, BERDIN

Gazte lokalen gaineakoa izan zen alkateari egin zioten beste galderetako bat. Onartu zuen "kezkatuta" dagoela, egoera ez dagoela ondo eta gazteekin hainbat batzar izan dituela konpontzeko asmoarekin, baina ez dutela lortu: "Orain ere eskatu didate gazteek eurekin egoteko. Baina ez dut hori egiteko asmorik, eurek ez badute konpromisorik hartzen, behintzat".

Gazte kontuekin segitz, onartu zuen azkenaldian asteburu batuetan istiluak sortu izan ditueta zenbait gaztek. Eta iragarri zuen haien gurasoekin batzarra egiteko asmoa dutela.

ALKATEAREN SOLDATA DELA-ETA

Bukatzeko, *Goiena.net* webgunearen bitartez, galdeztu zioten zenbateko den kobratzen duen "izugarrizko" soldata. Alkateak argi utzi gura izan du Eudel-ek zehaztutako soldata oinarri hartuta, hiru ordu kobratzen dituela eta ez duela ez dieta ezta ere kilometraje gasturik pasatzen.

BERRITASUNAK

Etorkizunerako nahiak: nagusiendako egoitza eta igerilekuak

Zenbait asmo berri ere iragarri zituen Mertxe Mondragonek telebistako elkarritzetan. Esaterako, Aramaion nagusien egoitza bat egiteko proiektu "txiki" bat duela Udalak esan zuen. Egoitza horrek eguneko zentroa ere izango luke barruan. "Etxe bat badugu, egokia izan daitekeena: lehen ospitale zaharra izan zena. Diputazioari eskainiko diogu hor zaharren egoitza egiteko aukera, eta ea zer gertatzen den. Ez da samurra izango". Eguneko zentroaren oraingo egoeraren gainean, berriz, gogorarazi zuen Aita Mennirekin hitzarmena dutela aramaioarrendako. Eta orain bi plaza dituztela hitzartuta. Baina halaber, jakinarazi zuen beste hiru plaza lortzeko bidean direla: "Oraindik horiek hirurok ez dira martxan ipini,

eta hor gabiltza ea hitzarmena ixten dugun. Horrela, izango genituzke bost plaza".

Aramaioarrek hainbestetan eskatu duten igerilekuari dagokionez, berriz, alkateak zabalik utzi zuen proiektu hori gauzatzeko aukera. Kontua da Likiniao baserriaren atzeko aldean elkarri atxikitako 13 etxebizitza egiteko aukera dutela udal araudiaren arabera. Baina araudia aldatu eta 32 etxebizitza egitea onartzeko aukera ere badu Udalak. Hala, hori eginez gero eta enpresa-etzegileren batek etxeok eraikitzeko eskaera eginez gero, hari eskatuko dio Udalak, besteak beste, baimen horren truke lursaila (5.000 m²) ematea, igerileku eta futbol zelaia eraikitzeko. Dena den, oraindik ez dute ezer lotuta.

GABONAK > ENTSEGUAUAK

Pandero eta kantu entseguak egingo dituzte hilaren 18an eta 21ean

Gaur, egubakoitza, Marin auzoko Unai Salaberriak urpean ateratako argazkiak erakutsiko dizkie gatzagarrei, 18:30ean, kultur etxeen

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Gabon gainean ditugu, eta aste bukaera honetan bertan hasiko dira Leintz Gatzagan Gabon itxura ematen herriari.

URPEKO ARGAZKIAK
Gurel guraso elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunotarako. Gaur, egubakoitza, argazki emanaldia egingo du Marin auzoan bizi den Unai Salaberriak. Urpean ibiltzea du gustuko Salaberriak, eta itsasoa ateratako argazkiak erakutsiko dizkie gatzagarrei, 18:30ean, kultur etxeen.

Bihar, zapatua, jaiotza jarriko dute herrian umeek gurasoen laguntzarekin. Azken urteotan urtero egin izan dute, eta non jarriko duten zehazteko egon arren, aurkituko diote txokoa, elizpean ez bada, goiko plazan. Goizean zehar lanean jardundakoei txistorra mokadutxoa geratuko diete gero.

Datorren astean, bestalde, pandero eta kantu entseguak egingo dituzte. Astelehenean, hilak 18, eta egunean, hilak 21, elkartuko dira ludotekan,



BASERRIETARA Ume eta guraso baserriz baserri kantuan.

KIROLA > PILOTA TXAPELKETA

Herriko sei pilotari Oñatin dabiltza txapelketa jokatzen

Herrian egingo duten pilotak txapelketa urtarrila artean atzeratzea erabaki dute, azken kontuak ondo lotzeko

M.A.> GATZAGA
Multikirolean dabiltzan herriko sei mutiko Oñatira joaten dira zapatu arratsaldeetan pilotan jokatzen. Zapatuan, hilak 16, lehen faseko azken partidua jokatuko dute.

MULTIKIROLEKO EKINTZA
8 eta 11 urte bitarteko mutikoa dira seiak eta taldeak osatzeko Eskoriatzakoekin egin dute bat. Hala, Eskoriatza A taldean honakoak daude: Iñaki Salaberria, Aratz Oñaederra eta Asier Urtzelai eskoriatzarra. Eskoriatza B taldean: Asier Urizar, Ander, Xabi Fernandez eta Julen

Alvarez. Entrenamendu saioak Leintz Gatzagan bertan egiten dituzte eguzzenetan, 18:00etan 19:30era, Jose Inazio Belokiren esanetara. Belokik berak azaldu dizkigu txapelketaren gorabeherak: "Beste era batean jokatzen dute pilotan, hirunaka; horregatik osatu behar dira hiru kidetik gorako taldeak". Bihar, zapatura, lehen faseko azken partidua jokatuko dute. Urtarilean bigarren faseari ekingo dioite, eta, seguru asko, liga eran jokatuko dute.

HERRIAN URTARRILEAN
Abendu inguruan herrian bertan ere jokatu izan dute pilotak txapelketa, baina aurten atzeratzea erabaki dute: "Dirulagunza eskatu diogu Udalari kamisetak erosteko eta beste kontu batzuera, eta urtarileran arte itxarotea erabaki dugu", adierazi digu Belokik. Hortaz, Gabonetan entrenamendu saioekin jarraitu beharko dute urte berrian sasoian egoteko.

> ONGIZATEA
Asteon osatu dute Bideberri mankomunitatea, eta Jon Sasiain presidenteordea izango da

Martitzenean, hilak 12, elkartu ziren Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagako alkate eta zinegotzi batzuk Bideberri mankomunitatea sortzeko. Antzuolako zinegotzi Dina Muxika izendatu zuten presidente eta Jon Sasiain gatzagarra presidenteordea izango da.

Ongizate sailetako gaiak landu eta aurrera eroateko sortu dute Bideberri mankomunitatea Debagoieneko hiru herri txikienen artean. Karmele Korta, Gizarte laguntzailea, hasi da lanean, eta laster beste bat hartuko dute egun erdiz. Lehenengo eta behin, herritarrek dituzten beharrak ezagutzeko ikerketa lana egingo dute Leintz Gatzagan hilabete batzuetan, eta egoeraren berri izan dakoan erabakiko dute zenbat aldiz etorri eta zela bideratu gaiak.

'Asteleheneko Goienkaria', Debagoineneko kirol taldeekin

UDA 06-07
astelehen honetan,
Asteleheneko Goienkaria-rekin.

Debagoineneko kirol taldeen posterrak argitaratzen dihardu astero **Asteleheneko Goienkaria-k**. Oraingo astelehenean, hilak 18, Aretxabaleta (UDA) elkartearren futbol sailarena argitaratuko dugu.

Talde nagusia handiz, jokalarien izen eta abizenekin, eta baita beste talde guztien argazkiak ere, erdian koloreetan.

Ez galdu aukera eta eskuratu **Asteleheneko Goienkaria**.



asteburuko hitzorduak**FUTBOLA**

Preferente maila
Aretxabaleta-Zarautz
Domeka. 16:30. Ibarra.

Mondra-Zestoa
Zapatua. 15:30. Atxabalpe.

Trintxerpe-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Pasai Antxo.

Lehen erregionala
Bergara-Lagun Onak
Zapatua. 15:30. Agorosin.

Bigarren erregionala
Aretxabaleta-Eibartarrak
Zapatua. 17:30. Ibarra.

Soraluze-Elgeta
Zapatua. 17:30. Ezozia.

BTLS-Zestoa
Zapatua. 19:30. Ipintza.

Gazteak-Mondra
Zapatua. 15:30. Unbe.

Ohorezko mailako gazteak.
Igoera fasea
Beasain-Mondra
Zapatua. 18:30. Igartza.

Baskonia-Aretxabaleta
Zapatua. 17:00. Martutene.

Eloibar-Aretxabaleta
Zapatua. 13:00. Mintxeta.

Ohorezko mailako gazteak.
Kopa eta jaitsiera postuak
Hondarribia-Bergara
Zapatua. 16:00. Ondartza.

Lehen mailako gazteak
Ilintxa-Antzuola
Zapatua. 16:00. Bikuña.

Arizmendi Aretx-Urki
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Eibartarrak-Arrasate
Domeka. 15:30. Eibar.

Soraluze-Bergara
Domeka. 15:30. Ezozia.

Ohorezko mailako kadeteak.
Igoera fasea
Arizmendi-Touring
Domeka. 11:30. Aretxabaleta.

Bergara-Zarautz
Zapatua. 17:30. Ipintza.

Ohorezko mailako kadeteak.
Kopa eta jaitsiera fasea
Aloña Mendi-Lagun Onak
Zapatua. 11:00. Ibarra.

Arrasate-Hernani
Zapatua. 10:00. Atxabalpe.

Lehen mailako kadeteak
Bergara-Soraluze
Domeka. 12:00. Ipintza.

Ilintxa-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 18:00. Legazpi.

Ohorezko mailako infantilak.
Igoera fasea
Zarautz-Arizmendi Aretx.
Domeka. 11:00. Zarautz.

Ohorezko mailako infantilak.
Kopa eta jaitsiera fasea
Touring-Arrasate
Zapatua. 11:00. Erreteria.

Lehen mailako infantilak
Bergara-Mutriku
Domeka. 10:30. Ipintza.

Emakumezkoen Liga
Mondra-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 12:00. Atxabalpe.

Emakumezkoen F-8
Arizmendi Arrasate-Zaramag.
Zapatua. 11:00. Almena.

Kadete emakumezkoak F11
Aloña Mendi-Beasain
Zapatua. 11:00. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Liga

Eskoriatza-Alegria Kirol Elk.

Domeka. 17:30. Intxaurtxet.

Lehenengo maila

Aloña Mendi-Gorka Pinturas

Gaur. 22:30. Zubikoa.

Hirugarren maila

UDA Mercedes Goi.-2king-Uak

Zapatua. 18:00. Aretxabaleta.

Gazteak

MCM A-Aloña Mendi

Zapatua. 13:00. Donostia.

SASKIBALOIA

Lehenengo Mailak

Ventanas Leon-Mugarrir Alkes.

Zapatua. 18:00. Logroño.

Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)

Gipuzkoako ligako gazte maila (gizonezkoak)

Mugarrir Alkes-Easo B

Zapatua. 10:00. Musakola.

Goierrir Verkol-Aloña Mendi

Domeka. 12:15. Uretxu.

ESKALADA > SANTAMAS BOULDER TXAPELKETA

"Frontoian ikusleek hobeto jarraitu ahal izango dute txapelketa"

Bihar egingo dute,
Uarkapen,
Santamasetako VI.
boulder txapelketa.
Goizean kanporaketak
izango dira; 17:00etan
hasiko dira finalak

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Seigarrenean egingo du Arrasateko Eskalada Taldeak txapelketa biribilena. Joan den urtean ere ahaleginu ziren txapelketa frontoira eramatzen, baina horretarako aurrekontu handia behar da. Hala, antolatzale lanetan dabilen Mikel Castillok esan digu frontoian eginda txapelketak asko irabazik duela: "Azken urteotan beheko boulderra txiki geratuta, ikusleak edozein modutan egoten ziren txapelketa jarraitzen, leku barik".

GOIZ ETA ARRATSALDE
Hala, goizeko kanporaketak beheko boulderrean egingo baditzute ere –10:00etan hasiko da izenematea-, 17:00etan hasita pilotalekuaren bertan egingo dituzte finalak: "Federazioak duen egiturak lau alde ditu, eta guk harmailetarra begira jarri gura ditugu lau aldeak". Aurreratu



ZAZPI NESKA IZAN ZIREN JOAN DEN URTEAN; marka hori ere gainditu gura dute. J.A.

moduan, eskalada taldeak esfortzu ekonomiko handia egin behar izan du: "Txapelketak arrakasta badu, aztertu egin beharko dugu egitura berriro alokatu edo berria egingo dugun. Izan ere, hiru bider erabilita amortizatuta izango genuke, alokatzeak dirutza balio du-eta. Aipatu, Munduko Txapeldun Patxi Usobiaga izango dela bihar goizean egiturak izango dituen bideak aukeratzen. Joan den urtean Euskal Herri osotik etorritako 70 eskalatzailek hartu zuten esku txapelketan, eta aurten ez dituzte gutxiago espero. Hala, antolatzaleek uste dute posible dela elite mailako eskalatzaile gehiago animatzea, baina herrikoak baztertu barik.

Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

CG
CONSULTORIO
GINECOLOGICO



ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88



Policlinica Gipuzkoa

> SASKIBALOIA
Ventanas Leonen kantxan, zortzigarren garaipenaren bila

Mugarri Alkesa Arrasatek itzuli osoa egin du partidurik galdu barik. Hau da, Gorika Zurututzaren mutilek zazpi garaipen erdietsi dituzte jarraian, eta bihar, zapatua, bolada onari jarraipena eman gura diote, errioxarren kantxan.

Bi talde horiek Iturripen jokatu zutenean Ventanas Leon ez zen kontrario izan (81-55). Logroñon, baina, gerutik zaindu beharko dute epaileen lana.

> PILOTA
Domekan jokatuko dituzte Gipuzkoako Txapelketako finalak

Seguran jokatuko dituzte finalak, eta kadete mailan, esku binakako txapelketan, Arana eta Agirregabiria arrasatearrak sailkatu dira. Astelehenean jokatu zuten finalerdia, Arrasateko beste bikote baten kontra: Goitia eta Zubizarreta (22-14).

Buruz buruko txapelketan, berriz, Ibai Bolinaga sailkatu da finalerako. Arrasateko Azkoitiako pilotari bat izango du kontrario.

> FUTBOLA
Mondrak eta Aretxabaletak etxearen amaituko dute urtea

Hirugarren lekuaren dagoen Mondrak Zestoaren bisitarekin amaituko du aurtengo urtea. Biher jokatuko dute partida, 15:30ean.

Aretxabaletak Mondrak baino kontrario gogorragoa izango du urtea amaitzeko, liderra hartuko dute-eta Ibarra, Zarautz (domeka, 16:30). Aloña izango da ibarreko ordezkarien artean etxetik kanpora jokatuko duen bakarra, Pasai Antxon, Trintxerperen kontra (zapatua, 16:30).

> ARKU TIROKETA
Gipuzkoako Txapelketa egingo dute domekan

Domeka goizean egingo dute, Zubikoa kirolegian, Gipuzkoako areto barruko txapelketa. 09:45ean hasiko dira lehian, eta 14:30ak arte jokatuko dute txapelketa.

Hala, antolatzaleek adierazi dute hainbat berrikuntza egongo direla. Doitasun jaurtiketa egiten dutenek betiko ituak (dianak) erabiliko dituzte. Jaurtiketa tradizionala egiten dutenek, berriz, animalia itxurako hiru dimentsio-tako ituak erabiliko dituzte.

Arizmendik antolatuta, neskei zuzendutako areto futbol txapelketa egingo dute abenduaren 29an

x.u. > ESKORIATZA
Arizmendik txapelketa bat antolatu du, futbolzaleak diren neskei zuzenduta. Antolatzale lanetan dabilen Urtzi Amianok eman dizkigu txapelketaren nondik norakoak: "Jendeak ez daki ondo

ARETO FUTBOLA > ABENDUAREN 29AN TXAPELKETA

Abian da Gabonetako nesken areto futbol txapelketa

zenbat neska dagoen ibarrean futbolean jokatzen, eta zelako zaletasuna dagoen. Gertatzen dena da txapelketa guztiak multilendako antolatzen dituztela, eta neskendako ez dagoela ezer. Horrekin amaitzeko antolatu

dugu txapelketa hori". Almeneko kantxan egingo dute txapelketa eta izena emateko talde bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu. Taldeek gutxienez sei lagun izan beharko dituzte, eta gehienez hamabi. Hala, inter-

resatuek honako taberna hauean eman ahal izango dute izena: Aretxabaletako Orly (943 79 09 33), Arrasateko Basati (943 71 17 68) edo Oñatioko Izarraitz (943 78 22 47). Abenduaren 21a, eguna, da izena emateko azken eguna.

Datorren astelehenean, hilaren 18an, 'Asteleheneko Goienkaria' BERRITUA



Aurten:

Egubakoitzeko GOIENKARIA, *Goiena.net* eta Goiena Telebista berritu eta hobetu ditugu.

Eta orain:

Asteleheneko Goienkaria berritu eta hobetu egingo dugu:

- Herrietako informazio zabalagoa.
- Zerbitzu-informazio zabalagoa.
- Kolore gehiago.
- Diseinu berritua.

**Datorren astelehenean, hilaren 18an,
Asteleheneko Goienkaria berritua**

DANBAKA))))))
DEBAGOIENEKO II. MUSIKA LEHIAKETA

5. KONTZERTUA
ABENDUAK
15
Egubakoitza | 22:30
Elgetako Kafe Antzokia

INALECTRIK
ARETXABAleta

LITTLE LITTLE MUCH
ARRASATE

THE 5 TWISTERS
ARRASATE

ANAL BAG
ARRASATE

INFORMAZIO +
www.danbaka.com

KAMisetak SALGAI!

G2a

Goienk2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> DANBAKA

Debagoineneko musika lehiaketa: bosgarren saioa gaur Elgetan > **45**



> SUSTATU

Sustatu blogaren 5. urteurrena ospatu zuten eguztenean Arrasaten > **51**

> IÑAKI OLALDE

Etxe-Aundi jatetxeen sukaldari lanetan dabil; Oñatiako Laixan euskara elkartean presidente ardurak ere hartu ditu azken urteotan. > **50**



EDU MENDIBIL > ARRASATE

Actto para la Noche Buena, Hego Euskal Herrian ezagutzen den euskarazko lehen antzerki lana, Arrasateko Amaia antzokian ikusteko aukera izango da oraingo aste bukaeran. XVIII. mendeko lana izan arren, ia ia estreinalditzat jo daiteke zapatuko emaneldia. Izan ere, bi aldiz bakarrik antzeztu da aurretik Pedro Ignacio de Barrutiaren antzezlana, 1960ko hamarkadan eta 1982an, Barrutiaren jaiotzaren hirugarren mendeurrenoko ospakizunen barruan.

Aramaion jaioa, Pedro Ignacio de Barrutia (1682-1759) Arrasateko Udaleko idazkaria izan zen. Hain zuzen ere, Arrasaten antzeztua izateko idatzi zuen Barrutiak *Actto para la Noche Buena*. Eta Erdi Aroan gertatzen zen bezala, herriarrek eurek antzeztean Barrutiaren asmoa. Orain, Arrasateko Doke antzerki taldeak asmo horri eutsi nahi izan dio, eta aktore amateurrak izango dira taula gainean.

Hamabost lagun izango dira aktore lanetan, Itziar Rekalderen zuzendaritzapean. Izenburuak dioen bezala, Gabon giroko lana da *Actto para la Noche Buena*; egi-leak Arrasaten kokatu zuen Belen, eta Jesusen jaiotzako pertsonaia tradizionalak eta XVIII. mendeko Arrasaten ziren pertsonaia ezagunak tartekatu zituen. Doke taldekoek egunera tu egin dute Barrutiaren lana, gaur egungo Arrasateko pertsonaiak antzezlanean txertatuta.

MOLDATUTAKO EUSKARAN

Josemari Velez de Mendizabal Doke antzerki taldeko kidea da eta, era berean, hainbat lan argitaratu ditu Barrutiaren gainean, haren biografia tartean. Hark moldatu du XVII. mendean era-biltzen zen euskara, ikusleei modu ulergarrian iristeko: "Antzezlana gertatzen orain dela urtebete hasi ginen eta lehenbiziko lana horixe izan zen: gehieni *sanskritoa* iruditzen zitzainen hizkera batetik ulergarriagoa gerta daitekeen beste euskara batera moldaketa egitea, antzezlek Barrutiak erabiltzen zuen euskarara ohitzeko".

Barrutiaren lana azken aldiz antzeztu zenean Velez de Mendizabal tartean zegoen: "Barrutiaren jaiotzaren hirugarren mendeurrenoko ospakizunetan, Euskaltzaindiaren izenean parte hartzea egokitu zitzaidan, eta antzezlana egin genezakeela iku-si genuen. Sasoi hartan Oiarzungo Intxisu taldea oso ezaguena zen eta haietkin adostu genuen *Actto para la Noche Buena* antzeztea. 1982an izan zen emanaldia,

'Actto para la Noche Buena'

Doke antzerki taldeak Pedro Ignacio de Barrutiaren antzezlana, XVIII. mendekoa, eskainiko du
Arrasaten eta Aramaion



DOKE ANTZERKI TALDEA Doke taldekoak, antzeztuko duten *Actto para la Noche Buena* antzezlaneko entsegu batean.

IKER BARANDIARAN

'Actto para la Noche Buena', Barrutiaren antzezlanan

(43. orrialdetik dator)

Aramaion. Barrutiaren testua denbora luzean ezkutuan egon zen eta Juan Carlos Guerra historiagileak berreskuratu zuen XX. mende hasieran. Iragan mendean birritan aurkeztu zen eta oraingo hau da Arrasateko talde batek berezko ekoizpenarekin egiten duen lehen antzezpena".

ASPALDIKO AMETSA

Aspaldiko ametsa beteko du Josemaría Velez de Mendizabalek Barrutiaren lana taularatuta: "Hamaika aldiz idatzi izan dut antzezlan hau Arrasaten egitearen garrantzia, lan hau taularatu lukeen talde bat herrian sortza aldarrikatuz. Orain dela bi urte *Eskuak elkarri* lana egin genuen Doke taldekoak eta Barrutiaren lanari heltzeko momentua izan zitekeela ikusi genuen. Ilusio handia jarri dugu proiektu honetan eta urtebete eman dugu lana gertatzen".

AKTORE AMATEURRAK

Askok azpimarratu izan dute Barrutiaren teknika: "Teknika modernoak erabiltzen ditu Pedro Ignacio de Barrutiak; Ama Birjina, San Jose eta Jesus haurtxoa Arrasateko plazan kokatzen ditu eta garai hartako Arrasateko hainbat pertsonaiarekin uztartzen ditu. Konposizio polita egiten du, eta gure helburua zera izan da: orain dela 300 urteko herriko giro hartatik gaurko gizartera etortzea, denboran jauzi egitea. Egungo ikuspegia eman nahi izan diogu. Bestalde, kontuan izan behar da Doke taldeko gehienok antzerkiarekin harreman txikia dauagula eta



URTEBETEKO LANA Doke taldekoek urtebete eman dute antzezlanan gertatzen.

IKER BARANDIARAN

Bi emanaldi aste bukaeran Amaia antzokian eta datorren zapataun Aramaion

Doke antzerki taldea Arrasaten sortutakoa da, 2004. urtean *Eskuak elkarri* lana antzeztu zutenean. Taldean kide gehiago badira ere, 15 lagunek hartzen dute parte *Actto para la Noche Buena*-n: María Asun Pagoaga, Marixabel Arsuaga, Joxe Eugenio Otadui, Josu Jauregi, Arantza Ezkurra, Marga Mercader, Eugenio Etxebeste, Mikel Ezkurra, Elena Velez de Mendizabal, Mikel Irastortza, Saioa Iturbe, Igor Fernandez, Itziar Rosado, Mikel Dominguez eta Josemaría Velez de Mendizabal arituko dira aktore lanetan. Itziar Rekalde zuzentzen du lana eta musikak eta dantzak ere garrantzia daukate: musika Sabin Salaberrirena da eta Iñaki Maidagan da zuzendaria; musikariek Arrasateko Shot estudioetan egin zuten grabazioa. Goikobalu abesbatzaren lagunza izan dute, besteak beste.

Esan bezala, bi emanaldi egingo dituzte aste bukaeran Arrasateko Amaia antzokian: zapataun 20:00etan eta domekan 19:00etan (sarrerak salgai daude Amaia leihaitilan, 10 euroren truke). Datorren zapataun, hilaren 23an, Pedro Ignacio de Barrutiaren jaiotterrian, Aramaion, egingo dute antzezlanan. Emanaldia kultura etxearen izango da, 20:00etan. Antzezlanak ordubete irauten du.



Hamabost aktorek hartuko dute parte antzezlanean.

IKER BARANDIARAN

Bisita ezazu Gipuzkoako sukaldetako bainuontzien erakusketa handiena



600 m² baino gehiagoko erakusketa
Ikusteko 31 sukaldetako bainuontzi
Merkatuko prezio hoberenak
Europar marka hoberenak

Bisita ezazu Gipuzkoako sukaldetako bainuontzien erakusketa handiena

Armeko
Sukaldeak Integralak

Kataide Poligonoa, 4 pabiloia

ARRASATE

943 770157



YOSU THERMIK
LEIHOAK ISOLATZAILEAK

Bisita ezazu leihoen erakusketa berria
Kalitate handiena
Gehienezko berma
Prezio hobeak

ERAKUSKETA BERRIA



943 770157

MUSIKA > DEBAGOIENEKO II. DANBAKA MUSIKA LEHIAKETA

Astelehenean jakingo dugu zeintzuk diren hiru finalistak

Gaur, egubakoitza, azkeneko lau taldeek emango dute kontzertua Elgetan

‘Asteleheneko Goienkaria’-n emango dute aditzera hiru finalistuen izenak

IKER BARANDIARAN > DEBAGOIENA
Danbaka lehiaketaren lehenengo fasea bukatzean da. Dagoeneko 17 taldek jo dute Elgetako Espaloia Kafe Antzokiko eszenatokian. Guztiek ere jende ugari izan dute behean, animuak eta babesak ematen.

Batzuk zuzenean estreinatu dira taula gainean eta beste batzuk lehenengo aldi aritu dira halako areto baten. Zirroraren, urduritasunaren eta poztasunaren arteko sentsazioa sortzen du halako areto baten horrenbeste jenderen aurrean aritzeak.

ORAINDIK EZ DA BUKATU
Talde horiek guztiek bizi izandakoa beste lau taldek ere egin beharko dute oraindik. Gaur, egubakoitza, Inalecrik pop-rocka eta rock iluna eskainiko du; Little Little Much taldeak umorez jantxitako metalak; The 5 Twisters garaje eta rock-and-rolla; eta Anal Bagek, zaleek aukeratutako taldeak, grind-corea, musika elektronikoa eta pornografia.

EPAIMAHAIAREN ERABAKIA
20 taldeak ikusi ostean, epaimahaiak erabaki beharko du zeintzuk izango diren hiru talde finalistak. Hain zuzen ere, hilaren 18an, *Asteleheneko Goienkaria-n*, aditzera emango dituzte hiru taldeen izenak.

Eta, hain zuzen ere, hautatzen dituzten hiru talde horiek 2007ko urtarrilaren 12an neuritu beharko dituzte indarrak eszenatoki berean. Zorte on!



INALECTRIK
Aretxabaleta

Inalecrik Iñaki Sagasta aretxabaletaren proiektu pertsonala da. Sagastak urte asko darama bere kasa musika idazten eta etxeen jotzen. Sagastak gitarra jo eta abestu egiten du. Lagun batekin hainbat abesti grabatu ditu. Kantu akustikoak eta elektrikoak jotzen ditu, eta lehiaketarako baxu-jotzaile eta bateria-jotzaile bana izango ditu lagun. Pop-rocka, rock ilunagoa eta beste jorratzen ditu.



THE 5 TWISTERS
Arrasate

The 5 Twisters Arrasateko rock-and-roll eta garage taldeen belaunaldi berriko protagonista bat da. Boskote hori Jokinek, Jagobak, Josebak, Beñatek eta Xabik osatzen dute. 50eko rock-and-rolla, garajea eta surf doinuak dituzte gustuko, eta hala erakusten dute egiten duten emaitzan. Aspaldian Arrasateko Radio Wings taldearekin Euskal Herrian hainbat kontzerto ematen dihardute, eta eurek ekoiztutako lan bat kaleratu berri dute.



LITTLE LITTLE MUCH
Arrasate

Arrasateko talde hori ezohiko samarra da. Izan ere, Bartzelonan kontzerturen bat eman izan dute, baina Euskal Herrian ez dira inoiz aritu. Taldeko kide guztiek arrasatearrak dira, aurretik beste talde batzuetan ibilitakoak (Spank, Lau...); gazteak dira, baina eskarmentu handia dute. Little Little Much proiektuan metala eta rocka lantzen dituzte umorezko ukitu handiarekin.



ANAL BAG
Arrasate

Honako hau da Debagoieneko musikazaleek Internet bitartez aukeratu zuten 20. taldea. Horiei esker izan dute aukera lehiaketan esku hartzeko. Arrasateko proiektu berri horrek bazterrak astinduko ditu seguruenik. Arrasateko hiru gaztek grind-corea, musika elektronikoa eta pornografia batzen dituen proiektu polemikoa sortu dute, eta muturreko soinu eta eskaintza oso berezia lortu. Arrasateko beste talde batzuetan aritutako hiru lagun daude atzean.

DANBAKA

Publikoaren Saria

Hemen, orain arteko sailkapena. Bozkatzeko hiru aukera daude: danbaka.com webgunean; SMS bidez: danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 5767 zenbakira. SMSaren kostua 1,20 euro+BEZ. Eta Espaloian jarritako kutxetan.

1	LITTLE, LITTLE, MUCH ARRASATE	Botoen %17,85
2	DRAKES OÑATI	Botoen %17,82
3	ANAL BAG ARRASATE	Botoen %11,45
4	ABY-KEM BERGARA	Botoen %9,45
5	KLAKSON ANTZUOLA-ZUMARRAGA	Botoen %8,38
6	RAUL LASA ARRASATE	Botoen %8,14
7	SCAM BERGARA	Botoen %4,65
8	UNNÉA OÑATI	Botoen %4,62
9	THE 5 TWISTERS ARRASATE	Botoen %4,03
10	LOS CRETINOS ARRASATE	Botoen %3,00
11	OZEN ARRASATE	Botoen %1,90
12	BELCEBLUES BERGARA	Botoen %1,69
13	YOTOX BERGARA	Botoen %1,62
14	IGOR ARETXABAleta	Botoen %1,54
15	MALENKONIA OÑATI	Botoen %1,28
16	MATX ELGETA	Botoen %0,97
17	MAHASTER RIVER BERGARA	Botoen %0,64
18	INALECTRIK ARETXABAleta	Botoen %0,31
19	JIM TNT ARRASATE	Botoen %0,29
20	AZKAITER PELOX BERGARA	Botoen %0,27

DANBAKA))))

ASTELEHENKO GOIENKARIan!

Danbaka-ko kontzertuen gaineko informazio guztiak ASTELEHENKO GOIENKARIan:

kronikak, kritikak, iritziak, inkestak, taldeen impresioak, argazkiak...

Eta baita ikuslearen sariaren gaineko sailkapen eguneratua.

Hori guztiak eta gehiago... ASTELEHENKO GOIENKARIan.

Erosi ASTELEHENKO GOIENKARIA edo egin zaitez harpidedun!

INFORMAZIO + www.danbaka.com



KIABROSSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorostia.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Sant'Antonio 50 m². Berriuta.
• Duplex Ortibar. Oso ondo.
• Masterreka 92 m². Ondo.
• Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
• Angiozar Bi solairu. Beritzeko.
• Ibargarai 118 m². Oso ondo.
• Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
• San Pedro 65 m². Prezio ona.
• Martoko 80 m². Prezio ona.
• Simon 80 m². Oso ondo.
• Ibargarai 87 m². Oso ondo.
• Ortibar 97 m². Oso ondo.
• Osintxu 95 m². Prezio ona.
• Zubiaurre 65 m². Oso ondo.

Etxebizitza berrien erakundea San Lorentzoz 2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobe!

Elgeta:
• Etxebizitza berrien erainkuntza, 2-3 logela, Duplex-ak, garaje, terraza. Bista politik.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telefónor Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA:
• Ibargarai 118 m². Oso ondo.
• Bidekuruteta 60 m². Oso ondo.
• Bolu 100 m². Ondo.
• Duplex berria. 72 m² + 34 m².
• Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
• Arte kale 70 m². Ondo.
• Masterreka duplexa 170 m².
• Juan XXIII plaza 80 m². Berriuta.
• Masterreka 79 m². Ondo.
• Arte kale 74 m². Ondo.
• Angiozar bi solairuko etxeak. Beritzeko.
• Masterreka 87 m². Oso ondo.
• Ibargarai 80 m². Ondo.
• Fraiskozuri 102. Ondo.
• Arrizuri 97 m². Oso ondo.
• Zubiaurre 62 m². Ondo.
• Mugertza. Duplex berria.
• Martoko 53 m². Berriuta.
• San Lorentzoz 18 etxebizitza berri. Garaje eta trastekurekin.
• DUPLEX-AK:
• Duplex berria erdialdean.
• Sagasti 71 m². Ondo.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguedia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrak iragarri ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. GOIENKARIK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitekeen operazioen erantzukizunik.

ARETXABAleta Bodega Riojana esku aldatzan da. Prezia: 42.000 e kontratu: 2014 arte 600 09 19 59 (21:00etatik 23:00etara)	BERGARA Duplex berria eta garaje itxia salgai. 699 49 14 14	ANGIOZAR Ortzi erretegia alokatu egiten da. 943 78 22 80 665 72 24 46	BERGARA Haur parkea eskualdatu egiten da. 943 76 94 52
--	---	---	--



PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)

Copreci kooperatiba-sozietateak, MCCko Osagaien Dibisioko parte den enpresak, formaziodun makinistak behar ditu.

GOI MAILAKO MODULUETAN TITULATUTAKO PERTSONEN bila gabiltza. Euskararen ezagutza eta kudeaketarako eta talde lanerako gaitasuna kontuan hartuko dira.

Interesatuek ahalik eta azkarren bidali behar dute curriculum-a, harremanetarako telefonoa eta erreferentzia adierazita.

Copreci koop.
Personal departamentua
Araba etorbidea, 3
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

**1/ ETXEBIZITZAK****101. SALDU**

Antzuola. Duplex berria salgai bi autorendakoleku duen garajearekin. Bi komun, hiru logela, egongelata bii baldoi. Berehalde bizitza joateko gertu. 653 71 54 16.

Arrasate. Apartamento berria hirri erdi-erdian. Egongela, sukaldetua, logela bat, bainua, trastekua, igogailua, berogailua. Oso polita. Deitu 16:00etan tik rurrera. 670 55 87 41.

Arrasate. Erdigunean etxebizitza salgai. Jantzia. Igogailua. 60576 34 24.

Arrasate. Garaje plaza (14 m²) Usaetxe plazan. 665 71 40 34.

Bergara. Zubiaurre kalean. Guztiz berritua. Hiru logela, balkoa eta garaje. Berogailua dauka. 943 28 76 36.

Bergara. Apartamentua Zubietan. 50 m². Erdi berritua. Ruben. 679 45 57 62.

Bergara. Erdialdean. Hiru logela, egongela, bainugela. Dena.

kanpoaldera, ikuspegia onekin. Solairu altua, igogailuarain. 620 18 59 06.

Eskoriatza. 90 m². Hiru logela, bi bainugela, bi terraza, trastekua eta garaje itxia. Berogailua eta igogailua ditu. Jantzia. 607 43 84 55.

Eskoriatza. Berriuta eta jantzia. 90 m², lau logela, bi bainugela, bi terraza eta berogailua. 636 57 76 13.

Oñati. Leku eta egoera oso onean. Hiru gela, bi bainu, garbara. Garaje aukera. 635 70 83 11.

Oñati. Euskadi etorbidean. Lehen solarirua. Eguzkitua. Guztia krankoaldera ematen du. 645 72 42 42 edo 945 14 18 17.

103. ERRENTAN EMAN

Apartamentua errentan Cau-teret erdiadean. 4-6 lagunen-dako aproposa. 625 70 61 91.

Arrasate. Ferrerias kalean. Telefónoa: 669 66 54 99.

Vera (Almería). Naturista-gune baten. Jantzia. Igerilekuak. Telefónoa: 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Hiru laguneko familia batek etxebizitza edo gela bat hartuko luke errentan. Telefónoa: 649 63 23 24.

2/ GARAJEAK**201. SALDU**

Antzuola. Garaje salgai edo errentan emateko Kalegoian. 666 44 10 09.

Bergara. San Lorentzoz. Zape-laitz azpian. 943 76 40 05.

202. EROSI

Bergara. Erdialdean garajea hartuko nuke. 616 72 43 48.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Sagastin. Telefónoa: 650 55 44 98.

Arrasate. Garajea errentan ematen da Uribe auzoan. Telefónoa: 677 53 68 46.

ARRASATE
Taberna baten neska euskalduna behar da aste barruan lana egiteko, eta beste bat asteburuetarako. 617 60 84 45 680 67 22 93

ARRASATE
Zerbitzaria behar da asteburuetan jatetxe baten lan egiteko. 605 72 72 39 (Iñaki)

ARRASATE
Sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan jatetxe baten lan egiteko. 618 62 79 88 (Ainhoa)

4/ LANA
402. ESKAERAK
Arrasate. Emakumea gertu garibiketan lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. Lanaldi osoa egiteko prest. 678 80 96 01.

Arrasate. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko edo garibiketan lanak egiteko. Lan egin behar duetean bizitzeko ere prest dago. 659 34 68 05.

Bergara. Emakumea gertu etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. 671 33 75 63.

Debagoina. Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak eta umeak zaindu edo garibiketan lanak egiteko. Arratsaldez lan egindo luke. 628 82 96 56.

Debagoina. Haur Hezkuntza ikasketa egiten dihardunen neska gazte bat arratsaldez umeak zaintzeko gertu. Eskarmen-tua. Maddi. 652 77 89 15.

Debagoina. Nagusiak zaindu edo beste dozeo lan serio egiteko gertu. 610 93 49 51.

Debagoina. Neska arduratsua databernari edo zerbitzari lanak egiteko, baita garibiketan lanak egiteko ere. 676 66 12 49.

Debagoina. Neska arduratsua databernari edo zerbitzari lanak egiteko, baita garibiketan lanak egiteko ere. 676 66 12 49.

Karabana. Knaus 550. 2006ko a. 6 plaza. Airegirotua eta esterak. 17.000 euro. 652 77 73 27.

Peugeot 206. Urdina, gasolina, 30.000 km. Deitu telefono hone-tara: 652 75 50 11.

Peugeot Boxer Isotermo salgai. 943 79 34 23.

5/ IRAKASKUNTZA
502. EMAN
Matematika, kalkulu, ingeles eta fisikako eskolak ematen ditut. Maila ertainean eta universitate mailan. Marco. Telefónoa: 649 63 23 24.

Debagoina. Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Lan egin behar duetean bizitzeko ere prest dago. 659 34 68 05.

Citroen ZX 1.600. 90.000 km. 3.000 euro. 650 56 87 79.

Citroen C5 autoa salgai, 2.0 eta 16V. 4 urte eta 36.000 km. 11.500 €. 661 23 48 07.

Furgoneta salgai. Iveco Daily Unijet markakoa. 40.000 Km. 3.500 Kg. 659 44 75 08.

Karabana. Knaus 550. 2006ko a. 6 plaza. Airegirotua eta esterak. 17.000 euro. 652 77 73 27.

Peugeot 206. Urdina, gasolina, 30.000 km. Deitu telefono hone-tara: 652 75 50 11.

Peugeot Boxer Isotermo salgai. 943 79 34 23.

Masajeak emateko mahaiak. Laerabilitatea. Alteuraren regula-garraria eta tolesgarria. 300 euro. 943 79 01 12 edo 680 35 04.

Masajeak emateko esku-ohea.

6/ MOTORRA
601. SALDU
Audi A-3 kotxa salgai. Telefónoa: 699 49 14 37.

Autokarabank salgai. Hymer, 6 lagunentzako; Citroen C-25 diesel; Knauss, 6 lagunentzako; Fiat Ducato 1.9 turbodi-sela; Weinsberg, 6 lagunentzako; Fiat Ducato 2.5 TDI. Telefónoa: 657 79 09 58.

Citroen ZX 1.600. 90.000 km. 3.000 euro. 650 56 87 79.

Citroen C5 autoa salgai, 2.0 eta 16V. 4 urte eta 36.000 km. 11.500 €. 661 23 48 07.

Furgoneta salgai. Iveco Daily Unijet markakoa. 40.000 Km. 3.500 Kg. 659 44 75 08.

Karabana. Knaus 550. 2006ko a. 6 plaza. Airegirotua eta esterak. 17.000 euro. 652 77 73 27.

Peugeot 206. Urdina, gasolina, 30.000 km. Deitu telefono hone-tara: 652 75 50 11.

Peugeot Boxer Isotermo salgai. 943 79 34 23.

Masajeak emateko esku-ohea.

8/ DENETARIK
801. SALDU
Aspes hozkailu konbia salgai. 699 72 48 91 edo 680 44 91 61.

Bi guitarra oso egoera oean. Lehena, Epiphone Les Paul Custom, Gibson, pastillak aldatu berri ditu (500 euro). Bigarrena, Fender Stratocaster USA (700 euro). 635 74 09 70.

Sukalderako mahai. Neurria: 90X90. Guztiz zabaltzen da. 617 17 15 88.

Trikitia salgai. Beltza. 1.200 euro. 605 77 14 67.

806. GALDU

Bergara. Astelehenean 400 euro galdu nituen Mariaren Lagundiaaren inguruan. Telefónoa: 943 76 39 93.

Fujifilm kamera digitala galdu nuen azaro bukaeran Aretxabala eta. Arrasaten. Telefónoa: 665 71 46 26.

Giltzak galdu nituen Lanbide Eskola inguruan. 943 79 39 42.

Oñati. Errekalde alauza edo Moiua kalearen inguruan giltzak galdu ditu. 650 27 05 78.

URTEURRENA

Javier Lazcano Lonbide

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 17an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Felix Iriarte Elcoro

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 17an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.




Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Felisa Elkoroberezibar Maiztegi

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 17an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Estanis Kortabarria Azkarate-Ascasua

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 17an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

IX. URTEURRENA

Iñaki Elortza Palacios

"Artantxo"

Bederatzigarren urteurreneko meza zapatuau, abenduaren 16an, 20:00etan, Oñatiako Bidaurreta elizan. Eguaztenean, abenduaren 20an, 19:30ean, Bergarako Siervetan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Miguel Angel Irizar Beistegi



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 17an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Jesus Murgizu Txintxurreta

Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 17an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

II.URTEURRENA

Pablo Gallastegi Unamuno

2004ko abenduaren 20an hil zen.


*Hutsik gaude zu barik,
baina alaitasunez bete zenuen
zure bizitzaren oroinmenak
irribarrea sortarazten du gure bihotzean*



Bergaran, 2006ko abenduaren 15ean.

URTEURRENA

Amador Gomez Urruchi



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduaren 17an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

VIII. URTEURRENA

Lorea Astondoa Altuna

Zortzigarren urteurreneko meza domekan, abenduaren 17an, 15:00etan, Aramaioko Barajuengo Andra Mari elizan.




Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

Iban Guridi Zaloña

2006ko abenduaren 12an hil zen, 32 urte zituela.

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan*



Monika eta bere lagunak. Oñatin, 2006ko abenduaren 15ean.

ESKELA

Eugenio Zuazua Urrutia

Aita karmeldarra

Bogotan (Kolonbia) hil zen 2006ko abenduaren 7an, 88 urte zituela.



*Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.*

Egileor baserria. Aretxabaletan, 2006ko abenduaren 15ean.

ESKELAK

GOIENKARIA eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 85 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 euro**.

Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.




ESKER ONA

Roman Muguruza Azkarate

Bergaran hil zen 2006ko abenduaren 10ean, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrik bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko abenduaren 15ean.

ESKER ONA

Sandorio Retolaza Arantzabal

Maria Mendikuteren alarguna



Bergaran hil zen 2006ko abenduaren 12an, 85 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrik bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2006ko abenduaren 15ean.

bila-bila 7



hitz gezidunak

Eraman	▼	Otoitz egiten duena	▼	Aurpegia-ren atal	▼
Galtzgorri	►	Nafarroako herria	▼	10	
Bokal errepikatua	►			Kiloa	►
Mahai joko				Bira	
Eltze	▼	Jasaile, pairatzalle	►	Zuzen, tente	►
Adiskide		Sendo, irmo	▼	Dimako auzoa	
Bozkario, alaitasun	►			... egin, agurtu	►
IRUDIKO MENDIA	►			Kromosomen osagaia	
Beldurtu, kikildu	►				
Goien, garaien	►			Pausaldi (alderantziz)	►
					Utikan!

GOIENKARIA

sudokua

			1		8			
4		3		2		7		9
	6						4	
8	5						3	1
		4			9			
7	9					6	2	
	1					8		
9		5	1		6		3	
		3	7					

hieroglifoa

Noiz jaten duzu?



hizki salda

Euskal Herriko bost idazleren abizenak

D	I	A	R	T	A	M	U	E
P	A	T	D	E	K	O	L	D
Z	E	X	E	K	I	L	O	L
A	B	A	T	M	N	U	Z	A
N	X	G	I	L	P	O	A	R
E	U	A	U	D	L	A	Z	R
P	E	L	E	X	P	U	R	U
I	L	A	M	O	R	E	A	T
M	O	N	T	O	I	A	K	I

bono fotoa



Debagoieneko herriko txikiena ageri da argazkian,
nola du izena?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goiaren edozein egoitzara

Antiu Xixona turroia (etiketa zuria)
300 g-ko tableta

3,79 € 631 pta.
Super BM beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
ISABEL ARANTZABALrendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Elgetan. Jasokundeko Santa maria



umore giroan

Kike Amonarriz




Haur-reratua

Badira beren adinerako nahi-koak aurreratuta datozen haurrak. Arturo horietako bat da.

Bilboko Albiako lorategietaiko eserleku batean lasai arraio zigarrotxo bat erretzen ari dela, emakume bat geratu zaio parean eta errietan hasi:

- Aizu, mutiko! Bainazuk zer egiten duzu zigarroa erretzen? Zenbat urte dituzu?
- Nik? 9 urte!
- Eta normala iruditzen al zai zu 9 urterekin zigarroa erretzea?
- Bai, noski! Putetxeetara joatea bezala.
- Zu izan al zara bada inoiz horrelako lekuren batean?
- Azkena bart gauean!
- Eta non izan zinen?
- Ez dut oroitzen. Larregi edanda nindoan!

soluzioak



Egun ero.
Jergatikoa: Eguna ero.



imajinatzen duzun eguberriak,
ez du mugarik

Imajinatzen duzun Eguberriak ez du mugarik Gasteizko Boulevard dendagunean. Zure buruan existitzen dena, egia bihur daiteke. Izan ere, imajinatzen duzun Eguberria arautik harago doa, iragarki honetatik harago doa. Nahi duzunean hasten da, eta ez du izen berezirik. Ohiturak, zeure etxekoak dira; eta tipikoa, zuk betidanik gozatu nahi izan zenuen hura.



Joko didaktikoak eta glentzero bilduma ikastolen elkartekek txokoenan



ANIMALIEN
ALFABETOÀ



NOR DA NOR?



ZAZPI, BURU BETE BAZPI
DVDÀ



Iñaki Olalde > Sukaldaria eta Laixaneko presidente

"Parrandak lanarengatik utzi beharko banitu, berehala aldatuko nuke lana"

Iñaki Olalde oñatiarrak urte askodaramatza sukaldari lanean. Etxe-Aundi jatetxeen dabil

aspaldian, baina horren aurretik beste hainbat jatetxetan ibili da, baita hoteleko harrerak

lanak egiten ere. Biak ala biak, sukaldoko eta hoteleko lana, oso gustuko ditu. Aste barruan libre

samar dabilenez, Laixan elkar-tean presidente ardurak ere hartu ditu azken urteotan.

IKER BARANDIARAN > OÑATI

Etxe-Aundiko sukaldari eta Laixaneko presidente delako ezaguna da Iñaki Olalde, baina bertsolaritza, hoteletako lana eta bidaiatzea ere oso gustuko ditu oñatiarrak.

Txintxoa zinen txikitán?

Formala itxuraz, baina alproja samarra ere bai.

Txikitán amari laguntzen ibilten zinen sukaldlean?

Ez. Jende askok hala uste du, baina etxean ez dut horretan ezer-txo ere lagundu. Zaletasuna gero etorri zitzaidan, lagun baten jate-txeen laguntzen hasi nintzenean.

Zalantzan izan zinen zer ikasi?

Ez, orduan oso argi neukan. Ez nintzen oso ikasle ona eta erabaki nuen, gehiago itxaron barik, Sukaldaritza ikastera joatea. Etxekoak harrituta gelditu ziren, baina lagundu egin zidaten.

Ikasle etxebizitzan ondo jaten zenuten?

Bai, ondo jaten genuen. Lan egiteko gogo handirik ez genuenean, beheko tabernara jotzen genuen, baina denetatik prestatu eta jaten genuen.

Zer aurkitu zenuen Donostian, Sukaldaritza Eskolan? Espero zenuena?

Eskolatik ez nintzen irten sukaldari eginda. Hori, beste ikasketa askotan moduan, geroago egiten da. Lehenengo aldiz ikasketak gaztelerez egin nituen, eta horretara ohitu egin behar izan nuen. Horrez gain, harrituta utzi ninduen Donostiako gazteek aste bukaeretan bakarrik elkar ikus-teak. Gu, sasoi hartan, Oñatin egunero elkartzen ginen bazkalau-retik eta bazkalostean.

Bestela, Donostian gustura bizi izan zinen?

Bai, oso gustuko dut Donostia, zoragarria da. Hala ere, egubakoitz goizetan Oñatira bueltatzeko irri-kan egoten nintzen.

Beste lan batzuk egiten aritu zinen, ezta?

Bai, Sukaldaritza ikasketak bukatu aurretik, aste bukaeretan lagunaren jatetxeen ibiltzen nintzen. Eta Donostiatik bueltan, Hoteletarako Harrera ikasketak egin nituen Oñatin. Horri esker urtebete egin nuen Zestoako bai-nuetxeen lanean. Oso gustuko nuen lana, lankideak oso jatorrak ziren eta bezeroekin hartu-ema-na ere oso ona zen. Zoritzarrez,



JOSETXO ARANTZABAL

PERTSONALA

Herría: Oñati. **Adina:** 30 urte. **Ikasketak:** Sukaldaritza eta Hotelera Harrera. **Zaletasunak:** Bertsoak, kirola eta lagunekin jatorduak egitea. **Zure espezialitatea?** Kukulu eta gulen entsalada epela. **Betetzeko daukazunametsbat?** Buruan daukadan proiektu bat erre-

alitate bihurtzea eta hotel txiki bateko zuzendaria izatea. **Baduzu maniarik?** Lanean ordenatu samarra naiz, baina etxeen ez horrenbestekoa. **Parranda one-na, non?** Oñatin, edozein aste bukaeratan. **Zenbatseme-alaba edukiko zenituzke?** Hiru zenbaki polita da.

urtea pasa ondoren, gaueko txanda eskaini zidaten, eta utzi egin nuen lana. Askotan esan dut nire ametsa dela hotel txiki bateko zuzendari izatea.

Eta sukaldari lanetan hasi zinen?

Bai, Zestoako nagusiari esker Soraluze jatetxeen lana eskaini zidaten denbora batez. Horren ostean, Kalifornian lan egiteko aukera izan nuen.

Zer-nolako esperientzia izan zen Kaliforniako?

Oso ona. Gainera, Mallorkako sukaldari batekin harreman oso ona egin nuen. Lagunak bueltan etorri behar izan zuen, emaztea haurdun gelditu zelako. Horren erruz, nire bizitza aldatu egin zen apur bat, eta urtea betetzerakoan Oñatira bueltan etorri nintzen. 23 urte neuzkan, eta han jarraitzeko hemengo lagunen baten premia nuen. Oso gogoan neuzkan hemengo lagunak eta jaiak.

Lana aurkitzeko ez zenuen arazorik izan...

Ez. Soraluzen jarraitu nuen; Baqueiran ere ibili nintzen eta azken bost urteotan Etxe-Aundin nabil lanean.

Gogorra da besteek jai dutenean zuk lan egitea?

Sukaldaritza oso lan polita da, baina aste bukaeretan lan egitea gogorra da. Nik beti esan izan dut parrandak lanarengatik utzi behar baditut, gurago dudala lana aldatzea. Hala ere, gaur egun ez diot halako garrantzirik eman, nahiz eta gauez irteten jarraitzen dudan. Izugarri gustatzen zait jendearekin egotea. Zorionez, aste barruan ez naiz aspertzeta eta gauza ugari egiten ditut.

Bertsozale amorratua zara?

Bai. Txikitistik ibili nintzen bertso eskolan eta makina bat auzotan ibili naiz kantuan. Zoritzarrez, lanarengatik alboratu behar izan nuen. Azken bi urteotan nagusien bertso eskola sortu dugu eta hamar bat lagun elkartzen gara martitzenero. Ahal dudan jaialdi guztiek ikustera joaten naiz.

Laixan ere bazabiltza...

Bai. Guztion esku dago euskara indartzea, guztioek hartu beharko genuke ardura. Laixanen orain dela lau bat urte sartu nintzen. Aurretik elkarteko sukaldari lanak egin nituen aspaldi.

INTERNET > 'SUSTATU'-REN BOSGARREN URTEURRENEKO JAIA

Aurpegi ezagun ugari egon ziren 'Sustatu' atariaren urteurren jaian

Ed Freyfogle-k eta Iban Zalduak modu ironikoan jardun zuten Internetti buruz

Mikel Alvarezek 'The Indezents' blogean argitaratutako mezuak irabazi du lehiaketa

GOIENA > ARRASATE
Sustatu Interneteko atariak bost urte bete dituela ospatzeko jaia egin zuten eguztetenen iluntzean Arrasaten, kultura etxe berriko klaustroan.

*Sustatu*ren jabe diren Goiena eta CodeSyntax empresetako kideak, blog komunitate askotariko blogariak (Joxe Arantza, Mikel Irizar, Goio Arana, Elena Laka, Mikel Iturria...) eta Eusko Jaurlaritzako sailburuorde Patxi Bartzarrika izan ziren, bes-teak beste, ekitaldian. Blogariek eta Internetzaleek euren esperientziak partekatzeko aproba-txatu zuten jaia.



EKITALDIA Iban Arantzabal izan zen hizlarietako bat eta Maria Agirre aurkezlea.

BLOG LEHIAKETAKO SARIAK

Internetez eta *Sustatu*-z hitz egi-teko ez ezik, baina, blog lehiaketako sariak banatzeko ere baliatu zuten jaia. Mikel Alvarez beasaindarra *The Indezents* blogean argitaratutako mezu barregarri batek irabazi du lehiaketa. "Blog berri samarra da, urrian hasi zen, baina zela-ko martxan... Egunero du zer-bait, eta blogista profesionalaren gisan, ez bakarrrik testua, irudiak, bideoa, musika ere itsasten du bere blogean", diote epaimahaikideek. Egileak 80 gigako iPod bideo bat jaso zuen. Bi iPod Nano ere zozketatu zituzten blogarien artean eta Mikel Iturria eta Goio Arana egin ziren haien jabe.

Maria Agirre ekitaldiaren aurkezleak epaimahaieren izenean zera esan zuen blog lehiaketaren gainean: "Dozenaka lan aurkezta dira, eta benetan, euskal blogosferaren argazki bat ate-ratzeko balio izan digu. Lotsatiak izan gara, eta geure burua pro-mozionatzen lotsa hartu dugu blogari gehienok... Gehiago izan dira irakurtzen ditugun beste blog batzuetan aurkitutakoak aurkeztu dituztenak".

HIZLARIAK UMOREZ

Ed Freyfogle, Iban Zaldua, Luis-txo Fernandez eta Iban Arantza-bal en hitzak entzuteko aukera izan zen jaian; guztiak umorez eta ironiaz jardun zuten. Ed Freyfo-

gle eta Iban Zaldua ziren goni-bidatu nagusiak. Lehenengoak Eus-kal Herrian Interneten dabilta-zanek zer egin behar duten azaldu zuen: "Funtsezko gauzatan zen-tratu eta gainerakoak ahaztu".

Jostunaren aholkuera ere eman zuen: "Birritan neurtu eta behin moztu".

Iban Zalduak, berriz, "Inter-netek salbatuko du literatura" esan zuen bere hitzaldian.



Iban Zaldua
Idazlea



Luis-txo Fernandez
'Sustatu'-ren sustatzailea



Patxi Bartzarrika
Euskara sailburuordea



Mikel Irizar
Goienako zuzendari ohia

Ez naiz bereziki teknologizalea, baina dauzkan gauza onak aprobetxatu behar dira. Blog kolektibo bateko partaide naiz. Aldizkari bat egin nahi genuen, baina garestia zenez bloga sortu genuen. Bide errazagoa da eta jende gehiagoren gana heltzen da.

Orain dela bost urte *Sustatu* esperimentu bat zen eta jendea ohitu behar izan genuen. Inork ez zekien zer zen blog bat, eta bide erakusleak izan ginen. Gaur egun mordoxka bat daude, eta komunitatea zabaldu egin denez, aberasgarria da.

Sustatu zoriondu nahi nuke, ez bakarrik euskara eta teknologia uztartzeko lanetan aitzindaria izan zelako, baizik eta uneoro aurrera egiten duelako. Euskarak ez du inoren maizter izan behar eta Interneterako ere eduki propioak sortu behar ditu.

Sustatu-ren sorreran Goienak Code&Synta-xekin bat egin zuen eta aliantza ona izan zen. *Sustatu* garatzeaz gain Goienak esperientzia horretatik asko ikasi du eta gaur egun Goienaren adar telematikoa bere hanka indartsuenerako bat dela uste dut.



GABONETAKO 7 ARTISAU AZOKA

Galerias Parkeko Karpan, Eibarren
Abenduak 16tik Urtarrilak 5era - 11:00 - 14:00 / 17:00 - 21:00

Elisabet Juana Iratxe Unanue Marta Irusta
Ione Martinez Eneritz Aristregi Elexamendi
Maite Alex Elizondo Oier Zubioaga Eskulan
Darma ta Rosa Garbi Igor Unanue Snoker

Abendua 16	PERFORMANS MAITE ETA NEREA KONTZERTUA NAPOKA IRIA	Abendua 27	KAMISETA TAILERRA
12:30etan	17:00etik 19:00etara	18:00etan	17:00etik 19:00etara
21:00etan			
Abendua 20	FORJA ERAKUSKETA SUOKER	Abendua 28	ANTZERKIA KIL-KOLO
12:00etan	18:00etan	12:00etan	17:00etik 19:00etara
Urtarrila 2	MANDALAS TAILERRA DARMA y ROSA	Urtarrila 4	PIN TAILERRA
17:00etik 19:00etara		17:00etik 19:00etara	
Abendua 21	SANTO TOMAS EGUNA		
12:00etan			

berriak

> GOITB
**'Sustatu'-ren
V. urturreneko festa
ikusgai eguztenean**

Eguaztenean, hilaren 13an, *Sustatu*-ren bosgarren urturreneko festa ospatu zuten. Arrasateko kultur etxe berrian aurpegi ezagun ugari ikusi ahal izan genituen. Bereziki nabarmentzekoa Ed Freyfogle eta Iban Zalduak egindako hitzaldia. Ekitadiaren amaieran, Mikel Alva-rezen bloga saritu zuten (www.blogak.com/theinde-zents). Saioa eguztenean iku-si ahal izango duzue, 21:15ean.

> GOITB
**Datorren urtean
bueltatuko da
'Debarri' saioa**

Ikasturte honetan Debagoieneko lau alkate eta Aramaikoak izan dira *Debarri* saioan. Eta datorren urtean, urtarri-laren 10ean bueltatuko da saioa Goiena Telebistara. Debagoieneko beste lau alkate gonbidatuko ditu urtarri-lean zehar Alberto Gorritiberea kazetariak: Joxe Angel Zabalo (Antzuola), Patxi Basauri (Elgeta), Ignacio Lakuntza (Arrasate) eta Victoriano Gallastegi (Bergara).

>ARRASATE IRRATIA
**Datorren astean
urteko zuzeneko
azken saioak**

Datorren egunean oporrak hartuko ditu 107.7ko autobusak. Eta urtarrilaren 8an itzuliko da uhinetan barrena. Urtea agurtu aurretik, baina, entzuleen artean banatzeko hainbat opari ekarriko ditu maletategian: ikuskizunetarako sarrerak, liburuak, diskoak... Eskuratzeko, bada, erabili 943-71 17 31 telefonoa.

Egubakoitzean, berriz, Santamas eguna izanik, saioa berezia izango da.

> ARRASATE IRRATIA
**Unnëa eta Scam
taldeak 'Danbaka'
saioan entzungai**

Oraingo asteburuan ere bi kontzertu eskainiko dizki-zueg 107.7an. Pop doinuak izango ditugu zapatuan, Oñati-ko Unnëa taldearen eskutik. Kontzertuaren aurretik, taldearekin izandako berbetal-dia berreskuratuko dugu.

Domekan, berriz, Scam taldeak hartuko du lekukoa. Aretxabaletarrak dira eta punk-rocka egiten dute. Gazteak dira, baina taulagaine-an eskarmenua dutela era-kutsiko dute haien ere.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

'Ilunpean' saiora gonbidatu dute Porrotx pailazoa

Goiena Telebistara
Porrotx eterri zela
aprobetxatuta,
Gabonetako agurra
grabatu zuten

GOIENKARIA > ARRASATE
Gabonen atarian gaudela-eta, Olentzero gonbidatu nahi izan zuen Oihana Elortza kazetariak *Ilunpean* saiora. Baina jakin du aurten Pirritx eta Porrotx pailazoa izango direla Olentzero-ren laguntzaileak. Porrotxek, gainera, ederto ezagutzen du gure bailara, *Mari Motots* ikuskizunarekin eterri baita gurera. Arrosa koloreko arropa berria jantzi eta dotore eterri zen telebistara. Gabonak gustatzen zaizkiola kontatu zigun, eta aurten ere amonarekin eta Pirritxekin batera ospatuko ditu, baita Euskal Herriko umeekin ere.



PORROTX *Ilunpean* saioan elkarriketak du gaur Oihana Elortzak. GOIENKARIA

'DANBAKA' > ASTELEHENNA, 21:45

Astelehenean, hilak 18, jakingo dugu zeintzuk diren Danbakako hiru finalistak

GOIENKARIA > ARRASATE
Dagoeneko azken txanpan sartuta dago Danbaka, Debagoieneko II. Musika Lehiaketa. Gaur bertan, Elgetako Espaloian azken lau taldeak entzuteko aukera izango dugu: Inalec-trik bakarlariaren kontzertua ikusi ahal izango dugu. Berezi-ki rock doinuak eskainiko dizkigu Iñaki Sagasta aretxabale-tarrak. Eguenean, berriz, hilak 21, Little Little Much taldearen kontzertua eskainiko digute.

Lau kidez osatutako talde gaza-tea da, baina taula gainean hiru besterik ez dugu ikusiko, abes-lariak eztarriko arazoak dituelako. Baina *ganberro* samarrak ere badira, eta ez dute beldurrik. Bi kontzertuak 21:45ean eskai-niko dizkigu Goiena Telebistak.

telebegi

Leire Kortabarria

Info-'bilatzailea'

Esaten ari nintzen, hortaz, telebistako albistegiekin batere pozik ez nengoela. Eta halaxe jarraitzen dut. Are gehiago, gero eta haserreago jartzten naute. Lehengoan nioen albistegiak ez direla bezperatik gauera arte berritzen eta aspergarriak eta ez-informatiboak direla. Bueno, ba hori aldatu egin da: orain ez dago aspertzerik; izan ere, metamorfizatzen ari dira.

Tele5 hartuko dut adibide, kate hori izaten da-eta denetik aurrekariena, eta beste guztiak kopiatu egiten dutelako. Begiratu ditzue *El Buscador* saioa? Tele5en, *El Buscador* bere tentakuluak zabaltzen hasi da. Horrekin batera, albistegiekin elkartu da, biak jarraian doaz-eta. Eta, hirugarrenik, albistegia kutsatzen dihardu, gero eta gehiago. Hala, albistegia *El Buscador*-en bigarren zati bihurtu da, krimenez, debaldeko biolentzia bideoz, sentsazionalismoz eta, askotan, tontokeria galantaz beteta. Biolentzia albiste denean, horren berri modu neurtuan ematea gauza bat da, eta beste bat, bideoklipa balitz moduan ematea. Baina tira: morboaren artean, tarteka, albisteren bat ematen dute.

bertain, 21:45ean. Horrez gain, martitzenean, hilak 19, Inalec-trik bakarlariaren kontzertua ikusi ahal izango dugu. Berezi-ki rock doinuak eskainiko dizkigu Iñaki Sagasta aretxabale-tarrak. Eguenean, berriz, hilak 21, Little Little Much taldearen kontzertua eskainiko digute. Lau kidez osatutako talde gaza-tea da, baina taula gainean hiru besterik ez dugu ikusiko, abes-lariak eztarriko arazoak dituelako. Baina *ganberro* samarrak ere badira, eta ez dute beldurrik. Bi kontzertuak 21:45ean eskai-niko dizkigu Goiena Telebistak.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.
Ikastolatik Sahararaproiektuaren gainean;
Acto para la Noche Buena antzezlanaren
gainean, Jose Mari Velez de Mendizabal eta Sabin Salaberriren...

16:00 Danbaka: Unnëa.

23:00 Danbaka: Unnëa.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.
16:00 Danbaka: Scam.
23:00 Danbaka: Scam.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarritzetak
Zozketak
Zorion agurrrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarreran ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko
albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

GOITBko programazioa

EGUBAKOITZA, 15

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka-Scam. 14:45 Albistegi aurrerapena. 15:15 Eltze beroa 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Hitz bitan 16:45 Albistek. 17:15 Sherlock Holmes. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Debarri-Aramaio. 18:45 Albistek. 19:15 Erreportaje. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Mandio 22:15 Ilunpean-Porrotxa. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

ZAPATUA, 16

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak: Nonochan, Sherlock Holmes eta Snorkeldarrak. 11:00 Ikusmira. 11:30 Jazmina. 12:00 Astekoak. 12:15 Gatza ta berakatza. 12:30 Didjeridu 13:00 Eltze beroa 13:30 Debarri-Aramaio. 14:30 Danbaka. 15:00 Teknopolis. 15:30 Mandio 16:00 Erre-reportaje. 16:30 Ilunpean-Porrotx. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Klip@. 20:00 16mm. 20:30 Didjeridu. 21:00 Berbaire. 21:30 Danbaka. 22:00 Astekoak. 22:15 MKT. 22:30 Ilunpean-Porrotx. 23:00 Erreportaje. 00:00 Emisio amaiera.

DOMEKA, 17

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes, Nonochan eta Snorkeldarrak. 11:00 Mandio. 11:30 Erreportaje: Artzantza liburu. 12:00 Danbaka. 13:00 Gatza ta berakatza. 13:30 Berbaire. 14:00 Astekoak. 14:15 MKT. 14:30 Didjeridu. 15:00 Ikusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Jazmina. 18:30 Mandio. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Astekoak. Gatz ta berakatza. 20:30 Ilunpean-Porrotx. 21:00 Debarri-Aramaio. 22:00 Erreportaje: Artzantza liburu. 22:30 Didjeridu. 23:00 16mm. 23:30 Danbaka. 00:30 Emisio amaiera.

ASTELEHENENA, 18

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Mandio. 14:45 Albistek. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Bizitegia. 16:00 Klip@. 16:15 Jazmina. 16:45 Albistek. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albistek. 19:15 Danbaka. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka berezia. 22:15 Hasiberriak. 22:45 Berriak. 23:15 Didjeridu. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Ikusmira. 00:15 Emisio amaiera.

MARTITZENA, 19

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Danbaka berezia. 14:45 Albistek. 15:00 Didjeridu. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albistek. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Bizitegia. 18:30 Klip@. 18:45 Albistek. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka: Inalec-trik. 22:15 16mm. 22:45 Berriak. 23:15 Mandio. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Harmailatik. 00:15 Emisio amaiera.


EGUATZENA, 20

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka-Inalec-trik. 14:45 Albistek. 15:15 16mm. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Mandio. 16:45 Albistek. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Hitz bitan. 18:15 Danbaka berezia. 18:45 Albistek. 19:15 Danbaka. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka: Inalec-trik. 22:15 16mm. 22:45 Berriak. 23:15 Mandio. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Erreportaje. 00:15 Emisio amaiera.


EGUENA, 21

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Sustatuk 5 urte. 14:45 Albistegi aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Danbaka berezia. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albistek. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Berbaire. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albistek. 19:15 Klip@. 19:30 Gaurkoak. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka: Little little much. 22:15 Didjeridu. 22:45 Berriak. 23:15 Danbaka berezia. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

Gabonetan herriko dendetan erosi




Dorleta eta Txaro estetika zentroa
Eskoriatza
Aranburuzabala 22 – 943 71 51 20
Edertasun bonoak opari egin




Gorosti loradenda
Bergara
Matxiategi 1 – 943 76 07 47
Opari eta detaile bereziak



Igaro lurrindegia
Bergara
Barrenkale 35 – 943 76 17 27
Masajea shiatsu puntuen estimulazioarekin



Iñarra masajeak
Bergara
Ibargarai 30 – 943 76 93 26
Osasun, edertasun eta ongizate tratamenduak




Jolas opariak
Bergara
Barrenkale 27 – 943 76 46 48
Uno de 50 lepokoak



Lonbide oinetakoak
Bergara
Bidekurutzeta 5 – 943 76 10 57
Denondako zapatak



Merkeopari opariak
Bergara
Ibargarai 14 – 943 76 55 46
Opari eta jolasak



Urkiola jantzi denda
Bergara
Barrenkale 13 – 943 76 16 48
Nolita jantziak



Zubia oinetakoak
Arrasate
Biteri etorbidea 1 – 943 79 66 53
Aretxabaleta
Mitarte 14 – 943 79 16 00
Nordika zapatilak

Abenduak 15-22

Hitzaldia



OÑATI

> Rafa Ruedaren eta Unnëa taldearen kontzertua izango da bihar, zapatua

Rafa Rueda bakarlariak *Saredun eskua* diskoa aurkeztuko du bihar, zapatua, gaztelekuaren, 22:30ean. Gau berean, Oñatin lehenengo aldi, Danbanak parte hartzen ari den Unnëa talde oñatiarrak joko du. Sarrera 5 euro da.

Ospakizuna



ARETXABAleta

> Beinkeren urteurrena ospatzeko jaialdia egingo dute

Beinke elkartea orain 20 urte sortu zutela ospatzeko, jaialdia izango da gaur, egubakoitza. Ludotekako gaztetxoek antzerkia egingo dute, Beinke-Loramendi dantza ikuskizuna izango da, *Jotzeko prest!* pala txapelketako finala eta afaria.

Kontzertua



ARRASATE

> Gabonak direla-eta, bi ekintza antolatu ditu Arrasate Musikalek egunotarako

Gaur, egubakoitza, ikasleek Gabonetako kontzertua emango dute, eskolan, 18:30ean. Gabonetako abestiak joko dituzte. Bestetik, bihar, zapatua, txistulariek euskarriko emanaldia egingo dute, eskolan hori ere, 12:00etan.

Ospakizunak

ARRASATE

> Gaztaina-jana egingo dute Arrasate Herri Eskolakoek

Ikasturtea bukatu eta Gabonak zoriontzeko, gaztaina jana antolatu du Arrasate Herri Eskolako guraso elkartek.

Gaur, egubakoitza, Herriko plazan, 17:00etan.

OÑATI

> Kultura astea hasteko, gaztaina-erre jana institutuan

Oñatiko institutuak Hezkultur kultura astea ospatuko du hilaren 18tik 22ra bitartean. Berau hasteko, gaztaina-erre jana egingo dute gaur, egubakoitza. Hainbat ospakizun egingo dituzte hilaren 22ra bitartean.

Argibideak: www.onati.net.

ESKORIATZA

> Herriko erretiratuentako jaialdia antolatu dute

Olazar erretiratuen elkartekoek txistorra-jana eta opari zozketa izango dituzte.

Hilaren 21ean, eguna, Olazarren, 17:30ean.

OÑATI

> Extremadurako kultura elkartearen jaialdia

Corazón de Encina Extremadurako kultura elkartea antolatutako jaialdia egingo dute. Salmenta postuak, produktu-dastatzea... egongo dira.

Etzi, domeka, Herriko plazan, eguerdian.

OÑATI

> Umeak agurtuko ditu Bizarzrik, Olentzeroren lagunak

Bizarzuri, Olentzeroren laguntzailea, gaztelekura etorriko da umeak agurtzera. Horrez gain, Laixanen postal lehiaketako sariak banatuko dituzte.

Etzi, domeka, gaztelekuaren, 18:00etan.

OÑATI

> Jaiotza ospatu eta Argentinako dirua batuko dute

Jaiotza ospatuko dute Elkar Hezi ikastetxekoek asteluhenean, hilak 18. Janari-dastatzea eta diru-batzea egingo dituzte. Diru hori Argentinara bidaliko dute, laguntza proiektu baterako.

Astelehenean, hilak 18, Herriko plazan, 18:00etan.

Bestelakoak

OÑATI

> Hitzaldia egingo du Lucio Urtubia anarkistak

Lucio Urtubia anarkista historikoak hitzaldia egingo du. Aste Libertarioaren barruan antolatu dute.

Gaur, Zuazola institutuan, 19:30ean.

Musika

BERGARA

> Kontzertuak egubakoitz eta zapatuan Jam aretoan

Honako kontzertuak izango dira Jam aretoan: Herf, Rave Party Animals eta Nekrotech taldeena gaur, egubakoitza; eta Grises Sueños eta Natural Project taldeena bihar, zapatua.

Egubakoitzeko kontzerturako, 21:00etan zabalduko dituzte areak.

ELGETA

> Donosti Ereski Schola

Gregorianista taldea Espaloian

Jokin Otamendik zuzentzen duen Donosti Ereski Schola Gregorianista taldeak emanaldia egingo du Elgetan.

Bihar, zapatua, Espaloia kafe antzokian, 20:15ean. Sarrera doan.

ANTZUOLA

> Zaragozako eta Antzuolako abesbatzen kontzertua

Zaragozako Santa Teresa abesbatzak eta Antzuolako Gabonetako kontzertua egingo dute.

Bihar, zapatua, parrokan, 19:30ean.

OÑATI

> Gabonetako kontzertua egingo dute herriko musika taldeek

Gabeneko kontzertu berezia egingo dute musika bandak, txistulari bandak, Ganbara eta Ganbara Txiki abesbatzek, parrokiako abesbatzak eta Txantxiku ikastolako abesbatzak.

Etzi, domeka, parrokan, 19:00etan.

ARRASATE

> Los Rancios Rancid-en tributu taldearen kontzertua

Rancid taldearen Los Rancios tributu taldeak kontzertua egingo du 3.60an. Gaur, egubakoitza, 22:30ean.

ARETXABAleta

> Musika eskolako Gabonetako kontzertua egingo dute

Leizarra musika eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua egingo dute gurasoendako eta herritar guztiendako. Hainbat musika-tresna joko dituzte.

Martitzenean, hilak 19, parrokan, 18:30ean.

ANTZUOLA

> Musika eskolako ikasleek kontzertua egingo dute

Musika eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua egingo dute egunean, hilak 21. Udaletxeko batzar areo nagusian, 19:00etan.

BERGARA

> Musika eskolako taldeek kontzertua egingo dute

Musika eskolako gazteen bandak, irakasleek, orkestra

sinfonikoak, akordeoi orkestrak, umeen abesbatzak, koral eta kantu ikasleek eta aurrehizkuntza eta hizkuntza musikaleko taldeek egingo dute kontzertua.

Hilaren 19an, martitzena, pilotalekuaren, 19:00etan.

ARETXABAleta

> Akordeoi orkestrak kontzertua egingo du bihar, zapatua

Musika emanaldia egingo du Aretxabaletako akordeoi orkestrak. Bukatutakoan, diskoa aurkeztuko dute.

Bihar, zapatua, parrokan, 20:30ean.

ESKORIATZA

> Helduendako ipuinak kontatuko ko ditu Virginia Imazek

Helduendako ipuin kontakizuna egingo du Virginia Imaz

joan diren guztiie.

aktore berigararrak, Aitzorrotz kultura elkartek antolatuta.

Bihar, zapatua, Inkernu tabernan, 22:30ean.

ANTZUOLA

> Umeendako ipuinak kontatuko dituze bihar, zapatua

Lupe Lekuona ipuin kontalariak emanaldia egingo du bihar, zapatua.

Liburutegian, 18:00etan.

OÑATI

> Poxpolo, Mokolo eta Konpañia pailazozen emanaldia

Poxpolo, Mokolo eta Konpañia pailazozen emanaldia antolatu du Errekalde Herri Eskolako guraso elkartek herriko ume guztiendako.

Emanaldia eta gero, gaztaina-errereak eta txori-boiloak sagardoarekin emango dizkiete joan diren guztiie.

Bihar, zapatua, institutuan, 17:00etan.

Antzerkia

PROPOSAMENA



nire aukera



Nagore Narbaiza
Udal Gatzetaria teknikaria
Bergara

"Kranpoiak hartu eta goazen Pirinioetara!"

Jendeak, normalean, asteburua patxadaz egoteko aprobetxatzen du. Ni, egia esan, ez naiz batere patxadazalea eta asteburua... geldirik ez egoteko aprobetxatzen dut. Kirolzalea naiz, baina neurrian; parrandazalea ere banaiz, hau ere neurrian. Beraz... Negua datorrela kontuan izanda, astebururako plana proposatuko dizuet: kranpoiak hartu eta goazen Pirinioetara, mendi tontortxo bat igo eta dutxa eder bat hartu osean, afari goxo-goxoa konpainia onean. Plan ona ezta ba? Primerakoa!

Zelan ikusten duzu Bergarako aisiaaldi eskaintza?
Galdera konprometitua, e? Erantzunak luzejo dezake... Nire ustez, Bergaran, bai aisiaaldi eskaintza bai eskaera pobre samarrak dira.

Irakurlea bazara? Gomendatu liburu bat...
Durangoko azokan erosi berri dudan Anjel Lertxundiren *Ihes betea*.

Telebista ikusten duzu?
Ba... Egia esan, aspaldian, ez dut telebista askorik ikusten; hori bai, Ana Urrutiak egindako eguraldiaren iragarpenen zale amorrata naiz, ia egunero ikusten dut.

Edonora bidaiatu ahal izango bazenu, nora?
Perura joango nintzateke.

Gabonetako erosketak egin dituzu?
Ez, zorionez ez naiz horrelako saltsetan ibiltzen.

Gabonak gustatzen zaizkizu?
Topikoa izan arren, Gabonak ez ditut gustuko. Aurten ere, lanean eta familiarekin pasatuko ditut. Originala, ezta?

Zinema

ANTZUOLA OLARAN ETXEA

(Umeendako film bat)
Domeka: 16:30.

ARAMAIO KULTURA ETXEA

Ice Age 2
Domeka: 17:00.

ELGETA ESPALOIA ANTZOKIA

La ducha
Eguaztena: 21:30.

ESKORIATZA IBARRAUNDI

Azti ikaslea
Domeka: 17:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

Casino Royale
Egubakoitzta: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehenak: 19:30.

ASTÉRIX Y LOS VIKINGOS

Zapatua: 17:00.

Domeka: 17:00.

Cruzando el puente: los sonidos de Estambul

Eguena: 20:00.

EIBAR UNZAGA

Eragon
Eguenetik domekara: 17:00, 19:30, 22:30.

Astelehenetik eguztenera: 19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

Rompiendo el hielo

17:30, 19:45.

Ratonpolis

Egubakoitzta: 18:00, 20:15.

Zapatua eta domeka: 17:00, 18:45, 20:30.

VACACIONES

El perfume

17:00, 19:45, 22:30.

Infiltrados

22:00.

Eragon

Egubakoitzta: 18:00, 20:15,

22:30.

Zapatua eta domeka: 17:30,

20:00, 22:30.

Arthur y los minimoys

Egubakoitzta: 18:00, 20:15,

22:30.

Zapatua eta domeka: 17:00,

19:45, 22:30.

Casino Royale

19:30, 22:15.

Scoop

22:30.

Déjà vu

17:30, 20:00, 22:30.

Cristobal Molon (euskaraz)

18:00.

Irresistible

Egubakoitzta: 18:00, 20:15,

22:30.

Zapatua eta domeka: 17:30,

20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

El camino de los ingleses

19:45.

Quinceañera

17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Mía Sarah

17:30, 20:00, 22:30.

Vacaciones

17:00, 19:45, 22:30.

El ilusionista

17:30, 20:00, 22:30.

El gran silencio

18:00, 21:15.

Grbavica

Egubakoitzta: 22:30.

Zapatua eta domeka: 17:00,

22:30.

El perfume

17:00, 19:45, 22:30.

ÁBAKO-LAKUA ZINEMAK

Eragon

Egubakoitzta: 18:00, 20:15,

22:30.

Zapatua eta domeka: 17:30,

20:00, 22:30.

Déjà vu

16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

Ratonpolis

16:00, 18:00, 20:00.

Arthur y los minimoys

16:00, 18:00, 20:00, 22:00,

00:30.

Casino Royale

16:00, 19:00, 23:00.

Colegas en el bosque

16:00, 18:00, 20:00.

Natividad

20:00, 22:00, 00:30.

Jackass 2

22:00, 00:30.

Yo soy la Juani

22:00, 00:30.

Isi / Disi: alto voltaje

12:15, 16:40, 18:40, 20:40.

Un buen año

12:15, 15:45.

Rompiendo el hielo

12:15, 15:45, 18:00, 20:15.

Arthur y los minimoys

12:15, 16:00, 18:15, 20:30,

22:45, 01:00.

El ilusionista

18:05, 20:20, 22:35, 00:45.

El laberinto del fauno

19:45, 22:15, 00:40.

Colegas en el bosque

12:15, 16:15, 18:15,

Ratonpolis

12:15, 16:00, 18:00, 20:00.

Saw 3

22:25, 00:35.

¡Peligro, menores sueltos!

12:15, 16:30, 18:30, 20:30,

22:30, 00:30.

Vacaciones

16:00, 18:45, 21:30, 00:15.

Natividad

12:15.

Guerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuak.

Eguerdiko saioak, domekan.

Astelehenak, ikuslearen eguna (jaiegunki izan ezik).

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Casino Royale

Egubakoitzta eta zapatuak:

12:15, 17:30, 20:30, 23:30.

Domeka: 16:00, 19:00, 22:00.

Déjà vu

12:15, 16:45, 19:15, 21:45,

00:15.

Infiltrados

18:25, 21:30, 00:25.

El perfume

12:15, 16:15, 19:00, 21:45,

00:20.

Borat

12:15, 16:35.

Scoop

22:00, 00:00.

El camino de los ingleses

22:20, 00:35.

El corral

12:15.

Eragon

Loteria eta urteroko aztiak

869 Sari potoloa 869 amaiera duen zenbakiarentzat izango dela iragarri du azti batek

EDU MENDIBIL > ARRASATE
 Gabonetako iragarki, argi eta turroiekin batera, aztiak azaltzen dira urteko sasoi honetan. Horietako batek zera iragarri du: loteriako saritzarra 869 amaiera duen zenbakiarentzat izango dela aurten. Bada, Arrasateko Hilarion jatetxeen horrelako zenbaki bat izan dute salgai..., joan den astera arte. Dagoeneko agortuta dago. Hilarioneko Gladys Hernándezek zera adierazi digu: "Beste urte batzuetan Santa Luzia eguneko oraindik ere loteria izaten dugu saltzeko, baina aurten ez da ezer geratzen. T5 kateko *El buscador* saioan norbaitek esan zuen 869 amaierako zenbaki izango zela sariduna: telebistan esan, eta astelehenean bertan jende ugari eterri zen tabernara, loteria eske. 80.869 zenbakiaren 80.000 euro saldu dituzte Arrasateko Hilarion tabernan; berehala saldu zuten loteria

bukaera duen zenbakiren bat izaten duten. "Zenbaki polita da, nire gustuko" dio Hernándezek, ironiarekin. Aztien iragarpenean ez duela sinismen handirik diosku. Hala ere, badezpada, diru apur bat jokatu du aurten ere loterian: "Ea abenduaren 22ko albistegietan azaltzen garen behingoz... Seinale ona izango litzateke! Zertan gastatuko nukeen diru? Ez dakit ba, gizonarekin eta alabekin Karibe aldeko hondartzetara joan nahi nuke...".

AZTIEN ERAGINA
 Oñatiako Irizar administrazioko Jimmy Irizarrek zera diosku: "Jende asko etorri da 9 bukaerako zenbakien eske. Harrigarria da zenbaterainoko eragina duten urtero azaltzen diren azti horiek... Gero inor ez da akordatzen haiekin, baina... Loteria asko saldu dugun? Antzera. Beharbada dezimo gehiago eta partizipazio gutxiago aurten. Agian jendeak nahiago du dezimoa eskuetan izan paper bat baino... Auskalo!". Edozein modutan, *alea jacta est*.

HILARION 80.869 zenbakiaren 80.000 euro saldu dituzte Arrasateko Hilarion tabernan; berehala saldu zuten loteria

ANTZEKO SALMENTAK Beste urte batzuen pareko salmentak izan dituzte Oñatiako Irizar administrazioan



80.869 ZENBAKIA Gladys Hernandez, Hilarion tabernan salgai izan duten zenbakia erakusten.

XABIER URTZELAI

ahobero

"Gerra hotzaren sasoian, nire aitaitak marxismoak inposatu nahi zuen sistema totalitarioa garaitu zuen"

Augusto Pinochet Molina
> Kapitain militarra

Ez dakigu zer-nolako historia kontatu zion Augusto Pinochet diktadoreak bere biloba-txoari. Dena den, hobe luke 1973an Txilen aitaitak egindakoa hobeto ezagutzea.

iturri onetik

Santamasetako txerriak, 'Frantxexka'-k, ia 300 kiloko pisua du eta Arabatik dator

Santamasetako ferian zozketatzen duten txerria Arabako Aixpuru herrikiko dute aurten: *Frantxexka*-k ia 300 kilo inguruko pisua dauka eta egunean, hilaren 21ean, ekarriko dute Arrasatera. Santamasetako feriaren aurreko gaua Udalako Kabueña baserrian igaroko du. Abenduaren 22ko ferian ikusgai egon ondoren eta zozketa eginda gero, Azkoitira era-mango dute *Frantxexka*.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

Trena eta tranbia

Juan den astean jakin dugu Jaurlaritzak onartu egin dituela Bergarako udalak egindako alegazioak ibarreko tranbiari. Orain berriro jendaurrean jarriko dira, traztua behin betiko onartu aurretik. Ez da denbora asko beste horrenbeste jakin zela Aretxabaletari buruz. Han ere, Durana kalean aldaketak proposatu eta onartua izan ziren. Luzatu egiten da prozesua horrela, baina herritarren adostasuna eta atxikimendua handitzearen truke. Ondo dago hori.

Komparatu orain AHTrekin. Non egon da ikusgai proiektua? Nork egin ahal izan ditu alegazioak? Ze aldaketa onartu zaie udal edo herritarrei? Nahikoa da AHTk duen adostasuna eta atxikimendua halako lan erraldoiari ekiteko? Zergatik hainbeste presa hain gai eztabaidegarrian?

ai, ene!



Elefante itxurako zapatilak, udarako

Gabonetako zuhaitzaren ondoan Olentzeroak zapatilok aurkituko balitu, agian ikaratu eta oparirik utzi gabe hanka egin...

<http://www.boingboing.net/>

Etxeko aldaketekin amesgaiztoak?
Har ezazu lo goxo!
Esperimentziadunak gara.
Arkauz etxearekin ederto amestuko duzu.

Arkauz zure etxea da.